GIPUZKOAKO GIZARTE-ZERBITZUETAKO MAPA

2018-2021

Aurretiko diagnostikoa

2018ko iraila

Centro de Documentación y Estudios SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA 4
1.1. Helburuak 4
1.2. Metodologia 5

2. GIZARTE-ZERBITZUEK ARTATUTAKO PREMIAK: EGUNGO EGOERA ETA BILAKAERA-IKUSPEGIAK 7
2.1. Sarrera 7
2.2. Oinarrizko datu soziodemografikoak: egungo egoera eta bilakaera-ikuspegiak 7
2.2.1. Egungo egoera 7
2.2.2. 2018-2021 aldirako biztanleriaren kalkulua 11
2.3. Mendekotasun-egoerak: egungo egoera eta bilakaera-ikuspegiak 14
2.3.1. Egungo egoera 14
2.3.2. 2021 urterako mendekotasun-egoeran egon daitekeen biztanleria 16
2.4. Babesgabetasun-egoerak: egungo egoera eta bilakaera-ikuspegiak 17
2.4.1. Egungo egoera 17
2.4.2. 2021 urterako babesgabetasun-egoeran egon daitekeen biztanleria 23
2.5. Pobrezia, desberdintasuna eta gizarte-bazterkeria egoerak: egungo egoera eta bilakaera-ikuspegiak 29
2.5.1. Egungo egoera 29
2.5.2. 2021 urterako gizarte-bazterkeria egoeran egon daitekeen biztanleria 32

3. GIZARTE-ZERBITZUETAKO BALIABIDE SAREAREN EGOKITZAPENA GIPUZKOAKO BIZTANLERIAREN BEHARRETARA: AZTERKETA KUANTITATIBOA 34
3.1. Sarrera 34
3.2. Gipuzkoako gizarte-zerbitzuak: osotasunetik egindako eboluzio- eta konparazio-ikuspegia 36
3.2.1. Artatutako biztanleria 36
3.2.2. Langileak 38
3.2.3. Gizarte-Zerbitzuetako gastu publikoa 38
3.3. Mendekotasun-egoeran edo arriskuan dauden adineko pertsonentzako zerbitzuak 41
3.3.1. Sarrera 41
3.3.2. Gipuzkoako adineko pertsonentzako Gizarte-Zerbitzuak konparazio-ikuspegitik 41
3.3.3. Adineko pertsonen eta/edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arloan Mapak zehaztutako helburuen betekizun-maila 43
3.3.4. Adineko pertsonentzako lehen-mailako arreta-zerbitzuen lurralde-hedakuntza 46
3.3.5. Adineko pertsonentzako bigarren-mailako arreta-zerbitzuen lurralde-hedakuntza 48

3.4. Gipuzkoan desgaitasunak eta gaixotasun mentalak dituzten biztanleentzako Zerbitzuak 51
3.4.1. Sarrera 51
3.4.2. Desgaitasunak dituzten pertsonentzako Gizarte-Zerbitzuak Gipuzkoan konparazio-ikuspegitik 51
3.4.3. Desgaitasunen eta gaixotasun mentalen arloetako Maparen helburu-betekizuna 52
3.4.4. Desgaitasuna duten biztanleentzako gizarte-zerbitzuetako bigarren-mailako arretaren lurralde-hedakuntza 55
3.5. Babesgabetasun-egoeran edo arriskuan dauden adingabekoentzako zerbitzuak 65
3.5.1. Sarrera 65
3.5.2. Babesgabetasun-egoeran edo arriskuan dauden adingabekoentzako zerbitzuak Gipuzkoan ikuspegi konparatuan 65
3.5.3. Babesgabetasun-egoeran edo arriskuan dauden adingabekoen arloko Maparen helburu-betekizuna 66
3.5.4. Babesgabetasun-egoeran edo arriskuan dauden adingabekoentzako gizarte-zerbitzuetako lehen-mailako arretaren lurralde-hedakuntza 68
3.5.5. Babesgabetasun-egoeran edo arriskuan dauden adingabekoentzako gizarte-zerbitzuetako bigarren-mailako arretaren lurralde-hedakuntza 69
3.6. Gizarte-bazterketa arriskuan dauden biztanleentzako zerbitzuak 70
3.6.1. Sarrera 70
3.6.2. Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden biztanleentzako Gizarte-Zerbitzuak Gipuzkoan ikuspegi konparatuan 70
3.6.3. Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden biztanleen arloan Mapak zehaztutako helburu-betekizuna 71
3.6.4. Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden biztanleentzako lehen-mailako arreta-zerbitzuen lurralde-hedakuntza 72
3.6.5. Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden biztanleentzako bigarren-mailako arreta-zerbitzuen lurralde-hedakuntza 75
3.7. Genero-indarkeriaren emakume biktimentzako zerbitzuak 79
3.7.1. Sarrera 79
3.7.2. Genero-indarkeriaren emakume biktimentzako zerbitzuak Gipuzkoan ikuspegi konparatuan 79
3.7.3. Genero-indarkeriaren emakume biktimen arloan Mapak zehaztutako helburu-betekizuna 80
3.7.4. Genero-indarkeriaren emakume biktimentzako lehen-mailako arreta-zerbitzuen Lurralde-hedakuntza 80
3.7.5. Genero-indarkeriaren emakume biktimentzako bigarren-mailako arreta-zerbitzuen Lurralde-hedakuntza 81
3.8. Ondorioak 83

4. GIZARTE-ZERBITZUETAKO BALIABIDE SAREAREN EGOKITZAPENA GIPUZKOAKO BIZTANLERIAREN PREMIETARA: AZTERKETA KUALITATIBOA 89
4.1. Aurretiko argibideak 89
4.2. Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako lehen- eta bigarren-mailako hobekuntza-arlo nagusien identifikazioa 90
4.2.1. Alderdi orokorrak 90
4.2.2. Mendekotasuna eta zahartzea 91
4.2.3. Desgaitasuna eta gaixotasun mentala 93
4.2.4. Babesgabetasun- edo arrisku- egoeran dauden edo kaltebera diren adingabekoak 93
4.2.5. Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden biztanleak 94

1. AURKEZPENA

1.1. Helburuak

Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren eta Eguia-Careaga Fundazioko SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroaren artean hitzartutako kontratuaren esparrukoa da txosten hau, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarte-Zerbitzuei buruzko premia-diagnostikoa egiteko. Txosten honetako xede nagusia Gizarte-Zerbitzuek artatzen dituzten premia-egoerei buruzko diagnostikoa eskaintzea da, baita aurreikus daitekeen bilakaera ere; eta 2015-2017ko Gizarte-Zerbitzuen Mapak zehaztutako helburuen eta gomendioen inguruko Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuen egungo eskaintza.

Zehatzago, hauexek dira txostenaren helburuak:

- Gipuzkoako eta Gizarte-Zerbitzuek artatutako arloei eta kontingentziei buruzko premiak identifikatzea, eta haien azken urteotako bilakaera eta epe motzerako eta luzerako bilakaera-ikuspegiak.

- Arreta-sarean eta sareko zentroetan oinarrizko osagaiak ezartzen laguntzea: aurreko Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapan planteatutako proposamen- eta gomendio-betekizunen analisi batean oinarritua, toki- nahiz lurralde-mailako zerbitzuen estaldura-mailak eta itxarote-zerrenden bilakaera kontuan hartuta, eta Gizarte-Zerbitzu gipuzkoarren sareko hobekuntza-arlo nagusiak aztertuta.

Ondoren berriz argituko den bezala, azterlan honek ez du premiazko izango diren plaza- edo zerbitzu-eskaintzaren dimentsioen berri ematen, izan ere, 2021 bitarteko Gizarte-Zerbitzuen ardurapeko kontingentzia horiek epe motzean kalkulatzea baitu xede, baita gertakizun haien ondorioz artatu beharrekoen zenbatekoa kalkulatzea ere. Informazio hau zerbitzu desberdinen eskariari buruzko datuekin osatu behar da, egiazko premiekin bat etortzeko zerbitzu-sarearen planifikaziorako planteamenduak.

Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako sarea aztertzea du xede ondorengo atalak, bereziki biztanleriaren premiei eta eskariei erantzuteko ikuspegitik. Ildo horretatik, zerbitzu desberdinen lurraldeko estaldura eta hedakuntza aztertzen da batik bat, eta nagusiki 185/2015 Dekretuak (urriaren 6koa, Gizarte-Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa) eta Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuen Mapak zehaztutako zentroak. Zehatzago esanda, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuen Mapak zehaztutako xede-betekizunak aztertzen dira atal horretan, dela Maparen 5. puntuan zehaztutako kudeaketa-helburuetan, dela zentro desberdinetarako gomendatutako estaldura-betekizunari kontu hartuta, lurralde-hedakuntzarako aproposenentzat jotzen diren lurralde-eremuetan.

Dagokion atalean nabarmentzen den bezala, analisi honek ez du xede 2015-2017ko Gizarte-Zerbitzuen Mapak zehaztutako betekizun-maila ebaluatzea –Zorroko zerbitzu eta zentroentzako berariazko estaldura tasak proposatzeaz gain, eguneko zentroetarako eta bigarren-mailako egoitza-baliabideetarako premiako esku-hartzeak zehazten zituena–, baizik eta aurreko atalean eginiko analisiari gehitzea baliabideen lurralde-hedakuntzaren azterketa, hurrengo Gizarte-Zerbitzuetako Maparen premiak ezagutzeko. Horretarako, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuen sistemaren helmenari buruzko oinarrizko datuak aztertzen dira, sistema osoa aintzat hartuta. Azterketa hori egin ondoren, Gizarte-Zerbitzuek artatutako kolektiboak edo kontingentzia desberdinetara orientatutako zerbitzuak eta zentroak aztertzen dira: adinduak eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak, desgaitasunak edo gaixotasun mentalak

dituzten pertsonak, babesgabetasun-egoeran edo arriskuan dauden adingabekoak, gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak, eta genero-indarkeriaren emakume biktimak.

Azkenik, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuen sarearen egituratzeri dagozkion hobetu beharreko gabeziak edo hobetu daitezkeen alderdiak aztertzea da azken atalaren xede nagusia –ikuspegi kualitatibo batetik–, 2018-2021eko Gizarte-Zerbitzuen Mapa zehazteko. Atal horretan jasotako analisiak ez dio inolako erreferentziarik egiten plaza-hornidurari edo baliabideen lurralde-hedakuntzari –aurreko ataletan aztertu baitira–, baizik eta nagusiki Gizarte-Zerbitzuetako sarearen funtzionamenduari eragiten dioten alderdiak aztertzen ditu, Gizarte-Zerbitzuetako maparen lanketan kontuan har daitezkeenak. Zehatzago esanda, atal honek Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuen sare publikoaren hobekuntza-helburuen definizioan ekarpena egin nahi du, 2015-2017ko Mapak zehaztutako hobekuntza-helburuen ildotik.

1.2. Metodologia

Txosten honetako atal bakoitzean erabilitako metodologia ondoren zehazten da.

Lehenik eta behin, Gipuzkoako biztanleriak Gizarte-Zerbitzuen ardurapeko arloetan dituzten premiei dagokienez (2. atala), eskura dauden estatistika-iturburuak erabili dira, bai premia-egoeren egungo prebalentziari dagokionean nola haientzako aurreikusitako bilakaerari kontu hartzean. Zehatzago esanda, azterketarako kontuan hartutako estatistika-eragiketak eta ikerketak hauek izan dira:

- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. Estatistika Judiziala. Emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegiak, 2017.
- Genero Indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritza. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko makroinkesta, 2015.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. EAEn gizarte-bazterketa larria bizi duten pertsonen inguruko azterlana, 2016.
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Mendekotasunaren Balorazioko Baremoaren (MBB) erregistroa 2017ko abenduaren 31n.
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Haurren eta Nerabeen Babeserako Memorien Seriea.
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren Inkesta (GPGBI), 2017.
- Emakunde. EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko estatistika-datuen analisia eta interpretazioa. 2016 urteko eta 2017ko lehen seihilekoko estatistika-datuak, 2017.
- Emakunde. 2016 urteko EAEko indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaien arretaren irismenari buruzko datuak, 2017.
- EUROSTAT. European Union Statistics on Income and Living Conditions (EU-SILC).
- EUSTAT. Kontu Ekonomikoak.
- EUSTAT. Migrazio Mugimenduen Estatistikak.
- EUSTAT. Biztanleria Jardueraren Arabera.
- EUSTAT. Proiekzio demografikoak 2031.
- Eusko Jaurlaritza. Gizarte-Zerbitzuen Eskariaren Estatistika – Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2014.
- Hughes, K, et al. Prevalence and risk of violence against adults with disabilities: a systematic review and meta-analysis of observational studies. The Lancet, 379. Bol., 9826.zkia. 2012.
- INE. Soldaten Egiturari buruzko Inkesta.
- INE. Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta (EPA).
- INE. Biztanleriaren Udal Errolda.
- INE. Prezioen Kontsumorako Indizea.
- Meil, G., Los malos tratos a personas mayores. Las personas mayores en España. Informe 2016. Datos estadísticos estatales y por comunidades autónomas. Seriea: Personas mayores. Documentos Técnicos y Estadísticos, Madril, Instituto de Mayores y Servicios Sociales, 2017, 489-539 or.

- Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Estatistiken Urtekaria.
- Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.
- Estatistika Organo Espezifikoa. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGBI), 2016.
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta (GPGBI), 2017.
- Sancho, M. (zuz.). EAEko adinekoenganako tratu txarren susmoaren prebalentziari buruzko azterlana. Sorta: Documentos de Bienestar Social-Gizartea Hobetuz, 75. Zkia., Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2011, 168 or.

dagokionez (3. atala), Behagi – Gipuzkoako Gizarte Behatokia; Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoak argitaratutako Gizarte-Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika; eta udal gipuzkoarrek lehen-mailako arretatarako zerbitzuei eta zentroei buruzko datuak.

2. GIZARTE-ZERBITZUEK ARTATUTAKO PREMIAK: EGOERA ETA BILAKAERA-IKUSPEGIAK

2.1. Sarrera

Orri hauetan azaldutako azterketak Gipuzkoako Lurralde Historikoan 2021erako Gizarte-Zerbitzuek artatu beharreko edonolako egoeren balizko bilakaera kalkulatzea du xede; Gipuzkoako II. Gizarte-Zerbitzuetako Mapa iraungi artekoa.

12/2008 Legearen 6. Artikuluaren arabera, Gizarte-Zerbitzuetako Euskal Sistemaren oinarrizko helburuak, larrialdi-egoerek sortarazitako premia pertsonalak eta familiarrak prebenitu eta artatzeaz gain, hauexek dira:

- Autonomia pertsonala sustatzea eta mendekotasunari loturiko premia pertsonalak eta familiarrak prebenitu eta artatzea.
- Babesgabetasun-egoerek sortutako premiak prebenitu eta artatzea.
- Gizarte-bazterkeria egoerak prebenitu eta artatzea, eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.

Beraz, atal honetan aipatutako egoera horien Gipuzkoako egungo prebalentzia aztertuko da –mendekotasuna, babesgabetasuna eta gizarte-bazterketa–, kontingentzia horietako bakoitzari aurre egiteko aurreikuspen eta hipotesi batzuk azalduta 2021ean beharrezkoa izango den zerbitzu eta prestazio sozialen bilakaera kalkulatzeko. Informazio hori zerbitzu desberdinetarako beste eskari-datu batzuekin osatu beharra dago, egiazko premien araberako zerbitzu-sarea egoki planifikatu ahal izateko.

2.2. Oinarrizko datu soziodemografikoak: egungo egoera eta bilakaera-ikuspegiak

2.2.1. Egungo egoera

Gaur egun, 2017ko urtarrilaren 1eko Biztanleen Udal Erroldaren Estatistikaren arabera, Gipuzkoak 719.282 biztanle ditu –gaur egunera arte gure lurraldeak izandako biztanleria-erregistrorik altuena– eta 363 biztanle kilometro koadro bakoitzeko, hau da, Gipuzkoa –Estatu osoan azalera gutxiena duen probintzia– azaleraren arabera laugarren probintzia jendetsuena da, Madril, Bartzelona eta Bizkaiko probintzien ondoren[1].

Ikuspegi soziodemografiko batetik, biztanleria gipuzkoarraren joera eta ezaugarri nagusiak ondoren azaltzen dira.

Gipuzkoako biztanleria-kopurua erlatiboki orekatua mantendu da azken bi hamarkadetan zehar. Biztanleria gipuzkoarra %6,3 hazi da 1998 eta 2017 urteen artean. Neurri konparatuan, EAE osotasunean (%4,6) eta Bizkaiaren aldean (%0,9) zerbait altuagoa izan da hazkunde hori, baina, Arabakoaren aldean (%14,6), aldiz, askoz baxuagoa izan da, edota Estatukoarekin konparatuta (%16,9). Gainera, urtez urteko hazkuntzaren erritmoa %0,1 eta %0,4 bitartean erlatiboki konstantea izan da aldi horretan; 2006-2009 bitarteko epea salbu, biztanleria-hazkuntza pixka bat altuagoa izandakoa.

[1] Institutu Geografiko Nazionalaren datuak dira. Ceuta eta Melilla ez dira kontuan hartu.

Bestalde, biztanleria gipuzkoarraren azken aldiko biztanleria-bilakaeraren ikuspegitik, 2013tik 2017ra bitarteko aldia nabarmendu behar da, izan ere, Gipuzkoa biztanleriarik galdu gabeko Estatu osoko sei probintzietako bat baita; eta gainera, biztanleria neurri erlatiboetan hazitako hirugarrena (Araba eta Almeriaren atzetik). Hazkuntza hori soilik %0,8koa izan da Gipuzkoan –zifra absolutuetan 5.500 biztanleren baliokidea–, baina Bizkaiko biztanleriaren beherapenarekin (-%0,7) eta Estatu osokoarekin (-%1,2) alderatuta, altua izan da.

1. Grafikoa. Biztanleria-bilakaera eta urtez urteko biztanleria-hazkundea. Gipuzkoa 1998-2017



Iturria: INE. Udal Erroldaren Estatistika.

Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako biztanleriak zifra absolutuetan funtsezko bariaziorik ezagutu ez arren, haren ondorioz **eraldaketa nabarmena** gertatu da **adin-egiturari** dagokionean; gehienbat, bizi-itxaropenean, ugalkortasun-faktoreetan eta, neurri apalagoan, migrazio-fluxuetan. Eraldaketa horren ondorioz, 65 eta urte gehiagoko biztanleriak garrantzia handiagoa hartu du

2. Grafikoa. Biztanleria-bilakaeraren banaketa, adin-taldeen arabera. Gipuzkoa 1998-2017



Iturria: INE. Udal Erroldaren Estatistika.

Hurrengo taulan ikus dezakegun bezala, 65 urte eta gehiagoko biztanleria gipuzkoarra %39,6 hazi da; eta bitarte berean biztanleria orokorra %6,3 hazi da. 1998 eta 2017 bitartean, 65 urte eta gehiagoko biztanle adinduak biztanleria osoaren %16,5 izatetik, egungo %21,6ra pasa dira gaur egun. Berariaz, %3,7 izatetik, %7 izatera pasa da 80 eta urte gehiagoko biztanleria. Aldi horren bitartean, haien kopurua bikoiztu egin da, hau da, 1998an 25.349 izatetik, 2017an 50.254 izatera pasa da. Hori gertatzeko zergati gisara, ez da soilik bizi-itxaropenaren hazkunde progresiboa[2] kontuan hartu behar, baita jaiotze-tasa altuko belaunaldiak biztanleria-talde horretara gehitu izana ere.

1. Taula. Biztanleria-bilakaera, adin-taldeen arabera. Gipuzkoa 1998-2017

	0-17 urte	18-64 urte	65 eta urte gehiago	80 eta urte gehiago	Guztizkoa
1998	107.671	457.391	111.378	25.349	676.439
1999	108.245	455.071	113.957	25.472	677.275
2000	106.580	456.769	116.016	25.914	679.370
2001	105.331	456.177	118.561	26.941	680.069
2002	104.611	457.150	121.216	28.012	682.977
2003	104.459	457.241	122.716	29.196	684.416
2004	105.281	457.801	123.431	30.380	686.513
2005	106.090	458.661	123.957	31.809	688.708
2006	107.608	458.261	126.026	33.123	691.895
2007	109.480	458.044	127.420	34.828	694.944
2008	111.922	460.223	128.911	36.255	701.056
2009	114.366	459.721	131.611	37.907	705.698
2010	116.525	456.418	134.320	39.426	707.263
2011	118.680	453.062	137.865	41.233	709.607
2012	120.541	450.682	140.874	42.783	712.097
2013	122.288	447.658	143.872	44.572	713.818
2014	123.343	444.235	147.570	46.322	715.148
2015	124.434	441.809	150.591	47.926	716.834
2016	125.063	439.790	152.979	49.006	717.832
2017	125.653	438.176	155.453	50.254	719.282
Δ (%) 2017/1998	%16,7	-%4,2	%39,6	%98,2	%6,3
Δ (%) 2017/2012	%4,2	-%2,8	%10,3	%17,5	%1,0

Iturria: INE. Udal Erroldaren Estatistika.

Ondoz ondoko urtetako beherakadez gain[3], aurreko hamarkadaren erdialdetik adingabeko biztanleriaren gorakada txiki bat antzeman da. 2005 eta 2017 urteetako aldian, %19 hazi da 18 urtez azpikoen biztanleen zenbatekoa, eta bitarte horretan biztanleria orokorraren hazkundea %5ekoa izan da. Joera horren jatorriari kontu hartuz gero, ugalkortasun-indize sintetikoaren berreskurapen apal bat nabarmendu behar da[4], 30 urtetik gorako emakumeek atzeratutakoa berreskuratu eta 25 urtez azpikoen[5] ugalkortasun-tasaren gorakada txiki batengatik; oso lotura hertsia duena gazteagoa den ugalkortasun-patroiari segitzen dioten emakume atzerritarren eraginez.

[2] Eustatek eskainitako adierazle demografikoen arabera, gizonen bizi-itxaropena 74,9 urtetik 79,2 urtera pasa da eta emakumeena 82,8tik 85,6 urtera 1995 eta 2010 urteen bitartean.

[3] Zergatien artean, bereziki apalak diren ugalkortasun-indizeez gain, adin erreproduktiboan dauden belaunaldien beherakada nabarmendu behar da aldi horretarako. Eustaten adierazle demografikoen arabera, Gipuzkoako 1975-1995 aldiko ugalkortasun-indize sintetikoa (emakume bakoitzaren batezbesteko seme-alaben zenbatekoa) 2,60 izatetik 1,01 izatera pasa da. EAE osoan gertatu zen beherakada hori. Hartatik aurrerantzean, ugalkortasun-indize sintetikoa arinki hazten joan da. Gipuzkoari buruzko azken datuen arabera, 2010 urtean emakume bakoitzeko 1,39 seme-alabakoa izan da.

[4] 2016 urtean, Gipuzkoako koiunturako ugalkortasun-adierazlea, INEren arabera, 1,44 seme-alabakoa da emakume bakoitzeko, eta 1995 urtean 1ekoa izan zen.

[5] INEk eskainitako adin-taldeetako ugalkortasun-tasa globalari buruzko datuek baieztapen hori argitzen dute. 25 urteko emakumeen ugalkortasun-tasa globala %1,97koa izan zen 2000 urtean, eta 2016an %3,25ean kokatzen da adierazle hori.

Horietaz gain, migrazio-fluxuek **biztanleria gipuzkoarraren** zenbatekoan eta **osaeran eragin nabarmena** izan dute eta, zehatzago, **atzerritar jatorriko immigrazioak.** 1999 urtetik –hamarkada horretan lehen aldiz immigrazioak emigrazioa urte horretan gainditu zuen–, EAEtik Gipuzkoara heldutako pertsonen zenbatekoaren hazkundeak ez du etenik izan 2007 urtera arte. 2009an erregistratutako beherakada garrantzitsuaren ondoren, orekatze moduko bat beha daiteke ondoz ondoko urteetan, gutxienez 2012 urtera bitartean; eta hazkunde progresibo bat hartatik aurrerantzean, izan ere, atzerriko jatorria duten migrazioek 2008an erregistratutako tankerako maila baitute. Aurrekoaren ondorio gisara, azken hogei urteotan atzerrian jaiotako Gipuzkoako biztanleria oso modu nabarmenean hazi da. [6] Ikuspegi konparatzaile batetik, ezin da esan zifra altuak direnik, izan ere, atzerrian jaiotako Gipuzkoako biztanleriaren ehunekoa (%9,1) EAEkoaren tankerakoa baita, eta baxuagoa, Estatu osoaren konparazioan (%13,3).

2. Taula. Gipuzkoako migrazio-adierazleak eta biztanle atzerritarrak. 1998-2017

	Kanpo emigrazioak[1]	Kanpo immigrazioak[2]		Kanpo migrazio-saldoa[3]	Atzerrian jaiotako biztanleak		Nazionalitate atzerritarreko biztanleak	
		Guztizkoa	Atzerrikoa		Guztizkoa	% guztizkoaren arabera	Guztizkoa	% guztizkoaren arabera
1998	4.223	4.117	291	-106	5.243	%0,8	5.301	%0,8
1999	4.543	4.700	569	+157	6.964	%1,0	6.359	%0,9
2000	4.559	6.001	893	+1.442	9.458	%1,4	7.903	%1,2
2001	5.000	7.760	1.197	+2.760	12.428	%1,8	8.856	%1,3
2002	5.556	7.359	2.507	+1.803	15.860	%2,3	11.716	%1,7
2003	6.659	8.046	2.777	+1.387	19.620	%2,9	14.878	%2,2
2004	6.744	8.095	3.206	+1.351	23.450	%3,4	18.232	%2,7
2005	6.672	10.374	4.701	+3.702	28.604	%4,2	21.536	%3,1
2006	8.700	11.644	6.015	+2.944	32.861	%4,7	25.290	%3,7
2007	8.643	14.327	7.904	+5.684	36.916	%5,3	29.040	%4,2
2008	9.194	13.535	7.179	+4.341	44.097	%6,3	35.935	%5,1
2009	9.092	10.799	4.890	+1.707	49.416	%7,0	40.859	%5,8
2010	8.815	10.845	4.672	+2.030	51.319	%7,3	42.449	%6,0
2011	9.031	11.196	4.772	+2.165	53.548	%7,5	44.179	%6,2
2012	8.538	10.619	3.882	+2.081	56.184	%7,9	46.132	%6,5
2013	10.477	11.520	4.467	+1.043	57.590	%8,1	46.684	%6,5
2014	10.271	12.306	4.843	+2.035	59.060	%8,3	46.464	%6,5
2015	10.328	12.165	5.558	+1.837	60.907	%8,5	46.548	%6,5
2016	9.936	13.013	6.667	+3.077	63.017	%8,8	47.592	%6,6
2017	--	--	--	--	65.461	%9,1	48.652	%6,8

1. Gipuzkoatik EAE kanpoko norakoa duten migrazioak dira (bai Estatuko beste lurraldeetara bai atzerrira). 2. EAE kanpoko udalerri batean hasitako migrazio-prozesuak dira.

Iturriak: EUSTAT. Migrazio Mugimenduen Estatistikak eta Biztanleriaren Udal Errolda Estatistika – INE.

Jaiolekuaren araberako Gipuzkoako biztanleria-osaerari dagokionez, 2008 eta 2017 urteen bitartean EAEn jaiotako Gipuzkoako biztanleria %75ean mantendu dela nabarmendu behar da. Aldiz, Estatuko beste lurraldeetan jaiotakoen proportzioa %19 izatetik, %16 izatera pasa da[7] eta, aipatu den bezala, baita atzerrian jaiotako biztanleria ere, aldi horretan %6tik %9ra pasa dena.

[6] Jaioterriaren ordez herritartasunaren irizpide administratiboa aukeratuz gero, arinki murrizten dira kopuru horiek. 2008 eta 2017 urteen bitartean, 35.935 biztanle izatetik 48.652 izatera pasa da Gipuzkoako atzerritar herritartasuna duen biztanleria, hau da, bederatzi urtetan %5,1 izatetik %6,8 izatera pasa da talde horren garrantzia erlatiboa.

[7] Gipuzkoan bizi den beste autonomia-erkidegoetako jatorriko biztanleriaren %75ak 55 edo urte gehiago ditu.

Estatutik kanpo jaiotako biztanleriari dagokionez (65.461 biztanle 2017an), %45,5 herrialde amerikarretatik datozela nabarmendu behar da. Horietatik, bost herrialdetatik dator erdia (%57): Nikaragua, Kolonbia, Ekuador, Honduras eta Argentina. Gainera, %27,6k herrialde europarren bateko jatorria du, gehienbat, EB-28koak (atzerrian jaiotako biztanle guztien %22,5); eta hein handiagoa batean Errumaniatik (%7,1), Portugaletik (%5,3) eta Frantziatik (%4,2). Azkenik, Estatutik kanpo jaio eta Gipuzkoan erroldatutakoetatik %19,3k jatorri afrikarra du –Marokoarrak haietatik %58–, eta %7,5ak Asiakoa –Pakistan eta Txina, gehienbat–.

3. Taula. Atzerrian jaiotako biztanleria-banaketa, jaioterriaren arabera, Lurralde Historikoaren arabera. 2017

	Gipuzkoa		Araba	Bizkaia
	Zenbatekoa	Banaketa (%)	Banaketa (%)	Banaketa (%)
EUROPAKO HERRIALDEAK	**18.043**	**%27,6**	**%18,9**	**%22,2**
EB	14.760	%22,5	%14,5	%19,3
Errumania	4.651	%7,1	%4,2	%9,8
Portugal	3.448	%5,3	%3,9	%2,3
Frantzia	2.780	%4,2	%1,9	%2,6
Alemania	798	%1,2	%1,2	%1,2
Ez EB	3.283	%5,0	%4,4	%2,9
Ukraina	1.460	%2,2	%1,4	%0,6
Errusia	705	%1,1	%0,7	%1,0
AFRIKAKO HERRIALDEAK	**12.651**	**%19,3**	**%32,2**	**%19,5**
Maroko	7.364	%11,2	%15,6	%8,9
Aljeria	1.439	%2,2	%6,0	%1,6
Senegal	1.200	%1,8	%1,2	%2,9
Nigeria	683	%1,0	%3,7	%1,4
AMERIKETAKO HERRIALDEAK	**29.762**	**%45,5**	**%41,3**	**%51,3**
- ZENTRALA ETA KARIBEA	10.887	%16,6	%6,4	%7,9
Nikaragua	4.271	%6,5	%0,5	%2,9
Honduras	2.920	%4,5	%0,4	%1,3
Dominikar Errepublika	1.858	%2,8	%3,3	%1,3
- IPARRALDEA	1.431	%2,2	%1,1	%2,1
- HEGOALDEA	17.444	%26,6	%33,8	%41,3
Kolonbia	4.011	%6,1	%12,2	%10,4
Ekuador	3.312	%5,1	%4,0	%3,8
Argentina	2.384	%3,6	%2,2	%2,5
Brasil	1.841	%2,8	%3,6	%3,2
ASIAKO HERRIALDEAK	**4.888**	**%7,5**	**%7,4**	**%6,7**
Pakistan	2.174	%3,3	%4,1	%1,3
Txina	1.362	%2,1	%2,3	%3,4
OZEANIAKO HERRIALDEAK	**117**	**%0,2**	**%0,1**	**%0,3**
GUZTIZKOA (guztizkoaren %)	**65.461**	**%9,1**	**%10,9**	**%8,3**

Iturria: INE. Udal Erroldaren Estatistika.

2.2.2. 2018-2021 aldirako biztanleriaren kalkulua

Osagai demografikoen metodoan oinarritu da Eustatek eginiko kalkulua, zeinaren oinarria, gehienbat, oinarrizko urte batetik hasita epe batean fenomeno demografiko nagusiei lotutako hipotesi batzuk (heriotza- eta ugalkortasun-tasak eta migrazio-fluxuak) zehaztea baita. 2031ean proiektatutako egoera bakarrean oinarritzen da proiekzio hori, eta fenomeno horietarako bilakaera-hipotesirik sinesgarrienak erabili dira lanketarako.

Era oso sinple batean azalduta, proiekzio horien lanketarako Eustatek kontuan izandako hipotesi nagusiak laburbiltzen dira:

- **Bizi-itxaropenaren gorako joera mantentzen da.** Azken 14 urtetako sexu eta adinaren araberako eboluzio-joeren estrapolazioak, eta egun nabarmentzen diren lurraldeen araberako desberdintasunek ere, 2021 urterako 81,8 urteko jaiotzeko bizi-itxaropena gizonetan eta 87,52 emakumeetan aurreikusten dute. Kalkulu horiexek aintzat hartuz gero, 2017 eta 2021 urteen aldian 1,2 urte gizonezkoen artean eta 0,82 urte emakumezkoetan haziko litzateke jaiotzako bizi-itxaropena

- **Ugalkortasun-tasaren hazkunde arin bat, baina jaiotzen beherakada ugal-aldiko adinetako emakumeen murrizketagatik.** Gipuzkoako kasuan eta aztertutako garaiko kalkulu horien arabera, 2017ko jaiotza-tasa 6.200 izatetik, 2021ean 5.800 izatera pasako da, nahiz eta ugalkortasun-indize sintetikoak emakume bakoitzeko 1,46tik 1,51ra pasako dela aurrez ikusi.

- **Migrazio-saldoa positiboa izango da eta biztanleria-hazkundeari lagunduko dio:** Eustatek planteatutako migrazio-hipotesien arabera, immigrazio-fluxuak mantenduko direla aurreikusten da, Estatuko beste lurraldeetatik etorritako aurreko urteetako immigrazio-mailan; baita 2012ko tamainako immigrazio-fluxuek ere, immigrazio horrek hazkundea ezagututako aldiko tamainan mantenduko omen dira. Hipotesi horietara egokituz gero, immigrazio-kopurua urteko 14.100 pertsonakoa izango da 2017-2021 aldian. Bestalde, emigrazioei dagokienez, Eustatek immigrazio-tasen aldean apalagoak izatea aurreikusten du; eta 2017 eta 2021 urteen bitartean, 11.400 izatetik 11.100 izatera pasako dela aurreikusten du Eustatek. Laburbilduz, Eustaten aurreikuspenen arabera, egungoaren antzeko immigrazio-maila 2017-2021 urteen aldian mantenduko da (hau da, urteko 14.100 biztanle berriren iritsiera); baita emigrazio-joera beherakor arin bat ere. Azken batean, migrazio-saldo positiboa aurreikusten da aztertutako aldirako: 3.100 biztanlekoa 2021 urterako.

Ondorengo taulan 2017 eta 2021 aldirako Eustatek aurreikusitako Gipuzkoako adierazle demografiko nagusiak laburbiltzen dira.

4. Taula. Gipuzkoarako jaiotze-, heriotza- eta migrazio-adierazleak. 2017-2021

	Ugalkortasuna			Hilkortasuna			Migrazioak		
	Jaiotzak (milakotan)	Ugalkortasun indize sintetikoa	Amatasunerako adinaren batezbestekoa	Heriotzak (milakotan)	Gizonen bizi itxaropena	Emakumeen bizi itxaropena	immigrazioa (milakotan)	Emigrazioa (milakotan)	Migrazio saldoa (milakotan)
2017	6,2	1,46	32,77	6,7	80,80	86,87	14,1	11,30	2,80
2018	6,0	1,48	32,78	6,8	81,10	87,03	14,1	11,30	2,80
2019	5,9	1,49	32,80	6,8	81,30	87,20	14,1	11,20	2,90
2020	5,8	1,50	32,81	6,9	81,50	87,36	14,1	11,10	3,00
2021	5,8	1,51	32,82	6,9	81,80	87,52	14,2	11,10	3,10

Iturria: EUSTAT. 2031 urterako proiekzio demografikoak.

Eustatek Gipuzkoarako eginiko proiekzio demografikoen emaitzak, 2018 eta 2021 urteen aldia hartzen dutenak, jarraian datorren taulan laburbiltzen dira.

5. Taula. Aurreikusitako biztanleria-bilakaera (milakotan) adin-taldeen arabera. Gipuzkoa 2018-2021

	2018			2021		
	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
0 - 4	16,7	16,0	32,7	15,9	15,2	31,1
5 - 9	19,0	17,9	36,9	17,7	16,9	34,6
10 - 14	18,2	17,3	35,5	19,6	18,4	38,0
15 - 19	16,8	15,5	32,3	18,4	17,4	35,8
20 - 24	15,8	14,9	30,7	17,1	16,2	33,3
25 - 29	16,6	16,2	32,8	16,5	16,0	32,5
30 - 34	20,3	19,9	40,2	17,8	17,8	35,6
35 - 39	26,5	26,0	52,5	21,8	21,7	43,5
40 - 44	30,8	29,0	59,8	28,3	27,6	55,9
45 - 49	28,5	27,3	55,8	30,2	28,8	59,0
50 - 54	27,1	27,4	54,5	28,0	27,2	55,2
55 - 59	25,0	25,7	50,7	26,3	26,9	53,2
60 - 64	21,7	22,8	44,5	23,9	25,0	48,9
65 - 69	20,1	21,8	41,9	20,0	22,1	42,1
70 - 74	16,9	19,6	36,5	18,5	21,1	39,6
75 - 79	11,3	14,4	25,7	13,8	17,5	31,3
80 - 84	9,8	15,2	25,0	9,0	13,1	22,1
85 - 89	5,5	10,7	16,2	6,4	11,8	18,2
90 - 94	1,8	5,2	7,0	2,5	6,4	8,9
95 - 99	0,3	1,3	1,6	0,5	1,9	2,4
100 eta +	0,0	0,2	0,2	0,0	0,2	0,2
Guztizkoa	348,7	364,3	713	352,2	369,2	721,4

Iturria: EUSTAT. Proiekzio demografikoak 2031.

Eustatek Gipuzkoarako aurreikusitako proiekzio demografikoen arabera, gure lurraldeko biztanleria arinki haziko omen da 2018-2021 urteen arteko aldian. Zehazki, lau urte horietan %0,8 haziko omen da, hau da, urtez urteko neurri konstanteetan %0,28ko hazkunde-tasa izango litzateke eta, horren ondorioz, 2013-2017 aldiko gorakada baino pixka bat altuagoa (%0,19). Tarte horretan gertatu izandako aldaketarik garrantzitsuenak, edonola ere, biztanleria gipuzkoarraren adin-egiturari dagokionean gertatu dira. Logikoki, aldi hori murritza da eta, horren ondorioz, aldaketa demografikoak txikiak dira, baina hala eta guztiz ere, datuek erakusten dutenez, 65 eta urte gehiagoko biztanleriaren hazkunde erlatibo nabarmena gertatu da, izan ere, Gipuzkoako biztanleria orokorraren %21,9 izatetik, %22,8 izatera pasa baita lau urte horietan. Zifra absolutuak aintzat hartuz gero, 8.100 bat pertsonetan haziko litzateke 65 urtetik gorako biztanleria. Proiekzio demografikoen arabera, halaber, aurretiko urteotan gertatu ez bezala, 80 eta urte gehiagoko biztanleria 65 eta urte gehiagoko biztanleria baino erritmo apalagoan haziko da, eta hori gertatzeko arrazoia azken urteotan gerra zibilean eta gerraostean jaiotako kohorteen zahartzea izan da. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, 2018 eta 2021 urteen artean, 80 eta urte gehiagoko pertsonen zenbatekoa 1.100 biztanletan haziko da, baina haren aurretiko aldian (2014-2017), 3.932 biztanletan hazi zen.

6. Taula. Aurreikusitako biztanleria-bilakaera, adin-taldeen arabera. Gipuzkoa 2018-2021

	Biztanleria osoa (milakotan)			Biztanleria osoaren araberako %	
	2018	2021	Aldea	2018	2021
0-19	138,4	139,5	1,1	%19,3	%19,3
20-44	212,2	200,8	-11,4	%29,7	%27,8
45-64	208,1	216,3	8,2	%29,1	%30,0
65 eta gehiago	156,7	164,8	8,1	%21,9	%22,8
+80 eta gehiago	*50,7*	*51,8*	*1,1*	*%7,1*	*%7,2*
Guztizkoa	715,4	721,4	6,0	%100,0	%100,0

Iturria: EUSTAT. 2031 urterako proiekzio demografikoak.

Bestetik, hartutako biztanleria-proiekzioen arabera, biztanleria gazteenak ere gorakada oso arin bat izango luke. 2018 eta 2021 bitartean, 20 urtez azpiko biztanleak 138.400 izatetik, 139.500 izatera pasako lirateke. Aldiz, 20 eta 44 urte bitarteko biztanleriaren beherakadari dagokionez, %11,4an zehazten da aurreikusitako biztanleen kopuru hori.

3. Grafikoa. Biztanleria-piramidea. Gipuzkoa 2018-2021



Iturria: EUSTAT. 2031 urterako proiekzio demografikoak.

2.3. Mendekotasun-egoerak: egungo egoera eta bilakaera-ikuspegiak

2.3.1. Egungo egoera

Mendekotasun-balorazioa duten pertsonen zenbatekoari buruzko foru-erregistroaren informazioa gure lurraldeko mendekotasunaren prebalentzia ezagutzeko modu egokia da gaur egun. Ikuspegi horri jarraituz, mendekotasunaren balorazioa egindako pertsonen kopurua bakarrik azaldu arren –ez baitu berez kontingentzia horren prebalentzia adierazten–, haiei buruzko datuak prozesu baten emaitza dira, mendekotasunaren balorazioaren prozesua, hamarkada bat baino gehiagoren ondoren nahiko finkatua dagoena.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuko mendekotasun-baloraziorako erregistrotik lortutako datuen arabera, 2017ko abenduaren 31n I Graduko mendekotasuna duten pertsonen kopurua 28.366 biztanlekoa izan zen eta beste 7.809 lagunek, I Graduko mendekotasuna onartzeko puntuazio nahikorik ez jaso arren, eguneroko bizimoduko oinarrizko jarduerak edota jarduera instrumentalak betetzeko behintzat, mugaren bat izango omen lukete.

7. Taula. Mendekotasuna izateko arriskuan edo egoera dagoen biztanleria graduaren, sexuaren eta adin-taldeen arabera. Gipuzkoa 2017

	0-5 urte	6-17 urte	18-64 urte	65-79 urte	80+ urte	Guztizkoa
Gizonak						
Arriskua	152	248	557	859	1.224	3.040
Mendekotasuna	130	458	3.300	2.238	4.283	10.409
- I Gradua	27	156	1.677	978	1.756	4.594
- II Gradua	67	178	1.038	758	1.424	3.465
- III Gradua	36	124	585	502	1.103	2.350
Guztizkoa	282	706	3.857	3.097	5.507	13.449
Emakumeak						
Arriskua	169	244	512	1.231	2.613	4.769
Mendekotasuna	81	221	2.405	2.939	12.311	17.957
- I Gradua	23	77	1.091	1.429	4.468	7.088
- II Gradua	37	76	786	930	4.166	5.995
- III Gradua	21	68	528	580	3.677	4.874
Guztizkoa	250	465	2.917	4.170	14.924	22.726
Bi sexuak						
Arriskua	321	492	1.069	2.090	3.837	7.809
Mendekotasuna	211	679	5.705	5.177	16.594	28.366
- I Gradua	50	233	2.768	2.407	6.224	11.682
- II Gradua	104	254	1.824	1.688	5.590	9.460
- III Gradua	57	192	1.113	1.082	4.780	7.224
Guztizkoa	532	1.171	6.774	7.267	20.431	36.175

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. MBB balorazioa duten eta bizirik dauden pertsonen erregistroa 2017ko abenduaren 31n.

Goiko datuek erakusten dutenez, mendekotasun-balorazioa egindakoetatik %63 emakumeak dira, eta mendekotasun-graduren bat dutenetik %58 80 eta urte gehiagoko biztanleak dira.

Foru-erregistroak eskainitako datuak Gipuzkoako 2017ko biztanleriarekin erkatuz gero, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, mendekotasun-prebalentzia biztanleriaren %3,94ra iristen da.

8. Taula. Mendekotasuneko arriskuen edo egoeren prebalentzia-tasa graduaren, sexuaren eta adin-bitarteen arabera. Gipuzkoa 2017

	0-5 urte	6-17 urte	18-64 urte	65-79 urte	80+ urte	Guztizkoa
Gizonak						
Arriskua	0,745	0,562	0,252	1,763	7,016	0,865
Mendekotasuna	0,637	1,039	1,496	4,594	24,549	2,963
- I Gradua	0,132	0,354	0,760	2,007	10,065	1,308
- II Gradua	0,328	0,404	0,471	1,556	8,162	0,986
- III Gradua	0,176	0,281	0,265	1,030	6,322	0,669
Guztizkoa	1,382	1,601	1,748	6,357	31,564	3,829
Emakumeak						
Arriskua	0,871	0,584	0,235	2,180	7,965	1,296
Mendekotasuna	0,418	0,529	1,105	5,204	37,526	4,879
- I Gradua	0,119	0,184	0,501	2,530	13,619	1,926
- II Gradua	0,191	0,182	0,361	1,647	12,699	1,629
- III Gradua	0,108	0,163	0,243	1,027	11,208	1,324
Guztizkoa	1,289	1,113	1,341	7,383	45,490	6,175
Bi sexuak						
Arriskua	0,807	0,573	0,244	1,987	7,635	1,086
Mendekotasuna	0,530	0,791	1,302	4,921	33,020	3,944
- I Gradua	0,126	0,271	0,632	2,288	12,385	1,624
- II Gradua	0,261	0,296	0,416	1,605	11,123	1,315
- III Gradua	0,143	0,224	0,254	1,029	9,512	1,004
Guztizkoa	1,337	1,364	1,546	6,908	40,655	5,029

Iturriak: Gipuzkoako Foru Aldundia. MBB balorazioa duten eta bizirik dauden pertsonen erregistroa 2017ko abenduaren 31n; INE. Biztanleriaren Errolda Jarraitua, 2017ko urtarrilaren 1ean.

2.3.2. 2021 urtean mendekotasun-egoeran egon daitekeen biztanleria

Epe motzeko mendekotasun-egoeren prebalentzia kalkulatzeko, egungo mendekotasun-taulak mantentzea jo da hipotesirik egokientzat. Hipotesi horrek egungo mendekotasun-tasak aplikatzea dakar (ikus 8. Taula) sexuaren eta adin-kohorte desberdinen arabera, 2021 urterako kalkulatutako ezaugarri soziodemografiko berberak dituzten biztanleetan (ikus 5. Taula). Hurrengo taulan laburbiltzen dira operazio horren emaitzak.

9. Taula. Mendekotasun egoeran edo arriskuan dagoen pertsonen zenbatekoa, graduaren, adin-taldeen eta sexuaren arabera. Gipuzkoa 2021

	0-5 urte	6-17 urte	18-64 urte	65-79 urte	80+ urte	Guztizkoa
Gizonak						
Arriskua	145	252	549	922	1.291	3.158
Mendekotasuna	124	465	3.250	2.402	4.517	10.759
- I Gradua	26	158	1.652	1.050	1.852	4.738
- II Gradua	64	181	1.022	814	1.502	3.582
- III Gradua	34	126	576	539	1.163	2.439
Guztizkoa	269	717	3.799	3.325	5.808	13.917
Emakumeak						
Arriskua	162	247	504	1.323	2.660	4.897
Mendekotasuna	78	224	2.367	3.159	12.534	18.361
- I Gradua	22	78	1.074	1.536	4.549	7.259
- II Gradua	35	77	774	1.000	4.241	6.127
- III Gradua	20	69	520	623	3.743	4.976
Guztizkoa	240	472	2.871	4.482	15.194	23.258
Bi sexuak						
Arriskua	307	499	1.053	2.245	3.951	8.055
Mendekotasuna	201	689	5.617	5.561	17.050	29.120
- I Gradua	48	237	2.725	2.586	6.401	11.996
- II Gradua	99	258	1.796	1.813	5.743	9.709
- III Gradua	54	195	1.096	1.162	4.907	7.414
Guztizkoa	508	1.189	6.670	7.806	21.002	37.175

Iturria: lanketa propioa.

Lortutako emaitzetan nabarmen daitekeen moduan, 2017 eta 2021 urteen bitartean mendekotasun-egoeran (I, II eta III Graduak) dauden 28.366 biztanle izatetik, 29.120 biztanle izatera pasatzea aurreikusten da; %2,7ko hazkunde moderatu batekin. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen hazkunde hori –Eustaten demografia-proiekzioen arabera, %1,2 haziko omen da Gipuzkoako biztanleria–, gehienbat, biztanleria adinduaren garrantzi handiagoagatik gertatuko da, mendekotasun-arrisku handiagoa duena. Egindako kalkuluen arabera, 2017 eta 2021 urteen artean, mendekotasun-egoeran egongo den pertsonen zenbatekoa 754 pertsonetan haziko litzateke, eta mendekotasun-arriskuan dauden 246 pertsonetan. Bi urte horien arteko aldeak, adin-taldeen eta mendekotasun-graduaren arabera, hurrengo taulan kontsulta daitezke.

10. Taula. Mendekotasuneko egoeran edo arriskuan dagoen biztanleriaren arteko aldea, graduaren eta adin-taldearen arabera. Gipuzkoa 2017-2021

		Arriskua	I, II eta III Graduak				Guztizkoa
			I Gradua	II Gradua	III Gradua	Guztizkoa	
2017	0-5 urte	321	50	104	57	211	532
	6-17 urte	492	233	254	192	679	1.171
	18-64 urte	1.069	2.768	1.824	1.113	5.705	6.774
	65-79 urte	2.090	2.407	1.688	1.082	5.177	7.267
	80+ urte	3.837	6.224	5.590	4.780	16.594	20.431
	Guztizkoa	7.809	11.682	9.460	7.224	28.366	36.175
2021	0-5 urte	307	48	99	54	201	508
	6-17 urte	499	237	258	195	689	1.189
	18-64 urte	1.053	2.725	1.796	1.096	5.617	6.670
	65-79 urte	2.245	2.586	1.813	1.162	5.561	7.806
	80+ urte	3.951	6.401	5.743	4.907	17.050	21.002
	Guztizkoa	8.055	11.996	9.709	7.414	29.120	37.175
Aldea 2021-2017	0-5 urte	-14	-2	-5	-3	-10	-24
	6-17 urte	+7	+4	+4	+3	+10	+18
	18-64 urte	-16	-43	-28	-17	-88	-104
	65-79 urte	+155	+179	+125	+80	+384	+539
	80+ urte	+114	+177	+153	+127	+456	+571
	Guztizkoa	+246	+314	+249	+190	+754	+1.000

Iturria: lanketa propioa.

2.4. Babesgabetasun-egoerak: egungo egoera eta bilakaera-ikuspegiak

2.4.1. Egungo egoera

Babesgabetasunaren arloan, Gizarte-Zerbitzuen xede diren esku-hartzeak kolektibo desberdinei buruzkoak izan daitezke:

- Babesgabetasunerako arriskuan edo egoeran dauden adingabekoak.
- Indarkeria matxistaren emakume biktimak.
- Babesgabetasun-egoeran dauden pertsona adinduak.
- Biztanle helduak, orokorrean autonomia-galera gradu desberdina dutenak, tratu txarrak edota arreta arduragabea duten babesgabetasun-egoeran daudenak.

Ondoren, babesgabetasun-egoeren egungo prebalentzia kalkulatzen da aurreko lau kolektibo horien inguruan:

2.4.1.1. Babesgabetasunerako arriskuan eta egoeran dauden adingabekoak

Babesgabetasun-prebalentziak aztertzen hasita, eta gehienbat larritasun handiagoa ezaugarri dutenen kasuetan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamenduaren Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak eskainitako datuek ahalbidetzen dute lehen gerturatzea. Datu horien arabera, haur-babesgabetasunaren balorazio- eta orientazio-zerbitzuaren esparruan, 2017 urtean, balizko babesgabetasun egoeran zeuden adingabekoen 91 jakinarazpen jaso zituzten. Jakinarazpen horien %37 (359) familia-erreferentzia duten adingabekoek osatzen dute, %18,5 (180) adingabe lege-hausleek eta lagundu gabeko adingabekoek %44,5 (432). Ikuspegi ebolutiboa aintzat hartuz gero, 2016 eta 2017 urteetako gorakada nabarmentzen da lagundu gabeko adingabekoen jakinarazpenetan, baita adingabe lege-hausleei buruzko jakinarazpenak pixkanaka beheratu izana ere.

Bestetik, harrera-egoerei dagokienez, 2017 urtearen amaieran, 685 haur eta nerabe zeuden harrera-zerbitzuek artatuta; horietatik 336 (%49) egoitza-harreran eta 349 (%51) familia-harreran.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskainitako datu horiek kontuan hartuz, 2017ko abenduaren 31n 1.112 adingabeko gizarte- eta hezkuntza arloko edota arlo psikosozialeko programa desberdinetan hartuta zeudela jakin daiteke.

11. Taula. Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak artatutako babesgabetasun-egoeran dagoen biztanleria adingabearen bilakaera. Gipuzkoa 2012-2017

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	Bilakaera
Urtean zehar jasotako jakinarazpenean inplikatutako adingabekoak							
- Familia-erreferentzia duten adingabekoak	306	312	367	375	385	359	17
- Adingabeko lege-hausleak	332	353	300	259	199	180	-%46
- Lagundu gabeko adingabekoak	138	148	159	173	305	432	%213
- Guztizkoa	776	813	826	807	889	971	%25
Harreran hartutako adingabekoak, abenduaren 31n							
- Egoitza-harrera	263	288	293	306	316	336	%28
- Familia-harrera	319	323	335	254	348	349	%9
- Harreran hartutako adingabekoen guztizkoa	582	611	628	560	664	685	%18
Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartze-prometan inplikatutako adingabekoak, abenduaren 31n	862	802	1.025	1.287	1.149	1.112	%29
Haurren babeserako sistemak artatutako adingabekoen guztizkoa, abenduaren 31n	datu gabe	datu gabe	1.127	1.402	1.481	1.435	

Iturria: Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuaren 2017 urteko Memoria. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Zifra horiek oinarri hartutako babesgabetasun larriko egoerek duten prebalentzia kalkulatu nahiko bagenu, adingabeko biztanleriaren %1,142k biziko omen luke horrelako egoeraren bat, behintzat, 2017ko abenduaren 31n Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak espedientea zabalik izandako kasuak aintzat hartuta.

12. Taula. Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak artatutako babesgabetasun-egoeran dauden adingabekoen tasa 18 urtez azpiko 100 biztanleren arabera. Gipuzkoa 2012-2017

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Urtean zehar jasotako jakinarazpenean inplikatutako adingabekoak						
- Familia-erreferentzia duten adingabekoak	%0,254	%0,255	%0,298	%0,301	%0,308	%0,286
- Adingabeko lege-hausleak	%0,275	%0,289	%0,243	%0,208	%0,159	%0,143
- Lagundu gabeko adingabekoak	%0,114	%0,121	%0,129	%0,139	%0,244	%0,344
- Guztizkoa	%0,644	%0,665	%0,670	%0,649	%0,711	%0,773
Harreran hartutako adingabekoak, abenduaren 31n						
- Egoitza-harrera	%0,218	%0,236	%0,238	%0,246	%0,253	%0,267
- Familia-harrera	%0,265	%0,264	%0,272	%0,204	%0,278	%0,278
- Harreran hartutako adingabekoen guztizkoa	%0,483	%0,500	%0,509	%0,450	%0,531	%0,545
Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko eskuhartze-prometan inplikatutako adingabekoak, abenduaren 31n	%0,715	%0,656	%0,831	%1,034	%0,919	%0,885
Haurren babeserako sistemak artatutako adingabekoen guztizkoa, abenduaren 31n	datu gabe	datu gabe	%0,914	%1,127	%1,184	%1,142

Iturria: Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuaren 2017 urteko Memoria. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Babesgabetasun-arloan instituzioek artatutako adingabekoez gain, badaude babesgabetasun arineko eta moderatuko edo arrisku altuko kasuak, agian detektatu gabeak edota Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuek artatuak direnak. Hori dela eta, adingabekoei eginiko tratu txarren prebalentzia kalkulatzean, bestelako iturburuetara jotzea komenigarri izaten da. Gizarte-Zerbitzuetako Eskariaren Estatistika hartuz gero –Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Premiei buruzko 2014ko Inkesta–, adibidez, hezkuntzako integrazioko, portaerako, familia-ardurarik ezeko edo tratu txarretako arazo larriko kasuen intzidentzian oinarrituta, lehen-mailako Gizarte-Zerbitzuen artarako 1.921 adingabe izan zituzten 2017 urtean, hau da, 18 urtez azpiko biztanleriaren %1,53.

13. Taula. Arazo desberdinen ondorioz babesgabetasun-arriskuan dagoen adingabeko biztanleria. Gipuzkoa 2014-2017

	Gizarte-Zerbitzuetako Eskariaren Inkestaren araberako intzidentzia	Eragindako pertsonen zenbatekoaren kalkulua
	EAE 2014	Gipuzkoa 2017
Bi edo urte gehiagoko absentismoa edo eskola-atzerapena	*6 eta 16 urte bitarteko biztanleriaren %0,402*	319
Eskolako integrazio-arazo larriren bat	*6 eta 16 urte bitarteko biztanleriaren %0,729*	578
Portaera- edo jokabide-arazoak	*15 urtez azpiko adingabekoetatik %0,612 eta 15 eta 17 urte bitarteko adingabekoetatik %0,894*	825
Familiaren zabartasuna edo arbuioak, tratu txarrak edo indarkeria	*15 urtez azpiko adingabekoetatik %0,146 eta 15 eta 17 urte bitarteko adingabekoetatik %0,223*	199
Babesgabetasun-arriskua, guztizkoa	*17 urtez azpiko biztanleriaren %1,529*	1.921

Iturria: Eusko Jaurlaritzako datuetatik eginiko lanketa propioa. Gizarte-Zerbitzuetako Eskariaren Inkesta - Gizarte Premiei buruzko Inkesta. 2014.

Gizarte-Zerbitzuen Eskariaren Estatistikak eskainitako datuez gain, Foru Aldundiko Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuaren eskariz 2017an egindako azterlanak –Gipuzkoako Udal Gizarte-Zerbitzuen babesgabetasun-egoeran dauden haurren eta nerabeen artari buruzkoa– babesgabetasun arinak eta moderatuak ezagutzeko hurreratze egokia eskaintzen du. Ikerketa horren arabera[8], erreferentziazko urtetzat 2016 duena, Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuen arta bateratuko tasa babesgabetasun-arrisku arin eta moderatuan biztanleria adingabearen %1,302koa da.

[8] Guztira, 43 udalerrietan erantzun zioten inkestari, udalerri gipuzkoarren %49k, biztanleria osoaren %81 bizi dena, eta Gipuzkoako 18 urtez azpiko biztanleriaren %80 bizi dena.

2.4.1.2. Indarkeria matxistaren emakume biktimak

Iturri estatistiko eta administratibo desberdinek eskainitako datuen arabera, genero-indarkeriako egoeren egungo prebalentzia %0,31 eta %4,3 bitartean zehaztuko litzateke.

14. Taula. Iturri desberdinen araberako emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebalentzia. Gipuzkoa 2015-2016

Ikerketa/erregistroa	Emakumeen aurkako indarkeriaren Makroinkesta Indarkeria fisikoa edo sexuala azken 12 hilabetetan	Emakunde Emakumeen aurkako indarkeriaren emakume biktimen zenbatekoa	Emakumeen aurkako Indarkeria Epaitegiak Jasotako salaketetako indarkeriaren emakume biktimak
Urtea	**2015**	**2016**	**2016**
Kolektiboa	**16 eta urte gehiagoko emakumeak**	**Emakumeak**	**Emakumeak**
Eremua	**Espainia**	**Gipuzkoa**	**Gipuzkoa**
100 emakumeren araberako tasa	%2,70	%0,308	%0,355
Emakume-kopurua*	8.415	1.129	1.302

Oharra: ikerketa eta iturburu desberdinek kolektibo eta eremu zehatzen araberako balioak azaltzen ditu tasak, baina emakume-kopuruak datu horien erreferentziazko urtean Gipuzkoan bizi diren emakumeen zenbatekoari dagokion tasa ezartzean lortzen da.

Iturriak: Genero Indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritza. Emakumeen aurkako indarkeriaren 2015eko Makroinkesta; Emakunde. EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoen azterketa eta interpretazioa. 2016ko eta 2017ko lehen seihilekoko datu estatistikoak; BJKN. Estatistika Judiziala. Emakumeen aurkako Indarkeria Epaitegiak.

Kasuetatik %78an, biktima propioak informatu zuen polizia, eta kasuetatik %20,1ean beste pertsona batek eman zuen berri.

Bestetik, Emakundek urtero argitaratzen dituen datuen arabera, 2016an emakumeen aurkako indarkeriaren biktima-kopurua 1.129 izatera heldu zen Gipuzkoan, %0,308ko tasa. Estatistika Judizialak ere oso tankerako zifra eskaintzen dute. Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegietako datuen arabera, 1.302 emakume biktimek genero-indarkeriako salaketak jarri zituzten, %0,355eko prebalentzia, beraz.

Aurreko datuek azaldu bezala, indarkeria matxista pairatutako emakume askok eta askok ez dituzte salatzen haien erasotzaileak, eta horren ondorioz, emakume biktimei buruzko datu administratiboetatik lortzen den intzidentzia-tasa hori –%0,355– askoz ere baxuagoa da emakumeei berariaz egindako inkesten aldean –%2,7koa emakumeen aurkako makroinkestan–, eta tratu txarren emakume biktimek Gizarte-Zerbitzuei izan dezaketen balizko eskariaren tamaina kalkulatzean kontuan hartu beharko lirateke; nahiz eta Gizarte-Zerbitzuetara heltzeko erasotzailea salatu beharra derrigorrezko ez izan, tratu txarrak pairatu izanaren emakumearen aitortza publikoaren premia baitago. Ildo horretatik, Gizarte-Zerbitzuen laguntza eskatuko duten emakumeen zenbatekoa, une zehatz batean, indarkeria matxistako salaketak aurkeztutako emakumeen zenbatekotik gertuago egongo da problematikaren egiazko prebalentziatik baino. Hori bera interpreta daiteke Emakundek *EAEn 2016an indarkeria jasan duten emakumeei laguntzeko zerbitzuen eta baliabideen irismenaren gaineko datuak* aintzat hartuta. Txosten horren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2016an indarkeria matxistaren 447 emakume biktima berri artatu zituen[9], eta udaletxeek 458 emakume lehen aldiz artatu zituzten Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuetatik gehienbat, eta ostatu-zerbitzuek neurri apalagoan.

[9] Zifra horren baitan, zerbitzu hauek hartzen dira kontuan: egoitza-zentroak (70 emakume), emakumeen aurkako etxeko tratu txarretako egoeretarako aholkularitza juridikoko zerbitzua (45), emakumeen aurkako etxeko tratu txarretako eta sexu-erasoetako arta psikologikoko zerbitzua (234) eta bestelako berariazko programak (98).

Ohar horiek aintzat hartu ondoren, 2016an jarritako genero-indarkeriako salaketen araberako %0,355eko tasa hori aintzat hartuta egin dira Gizarte-Zerbitzuetako etorkizuneko eskariari buruzko kalkuluak.

2.4.1.3. Babesgabetasun-egoeran dauden adineko biztanleak

Adin handiko biztanleek, eta gehienbat autonomia-gabezia altua dutenek, beste biztanleen aldean babesgabetasun-egoerak bizitzeko arrisku handiagoa izaten dute. Egoera horien artetik, bakardade- eta isolamendu-egoerak ematen dira maizenik, eta neurri apalago batean, gainera, abusuak eta balizko tratu txarrak pairatzeko kalteberatasun eta arrisku handiagoa izaten dute.

[10], EAEko 60 eta urte gehiagoko biztanleriaren %0,9k adierazten du tratu txar motaren baten biktima dela. Ikerketa horren arabera ere, 60 eta 74 urte bitarteko pertsonei eginiko tratu txarren intzidentzia zerbait altuagoa izango litzateke, %1,1eko tasa duena, adin handiagoa duten biztanleen %0,6ko tasaren aldean. Prebalentzia hori biztanleria gipuzkoar adinduari ezarriz gero, 2017an 1.400 pertsona adinduek pairatuko zuketen tratu txarren moduren bat.

15. Taula. Iturri desberdinen araberako 65 urte eta gehiagoko pertsonen babesgabetasun-egoeren prebalentzia. Gipuzkoa

Ikerketa/erregistroa	EAEko adinekoenganako tratu txarren susmoaren prebalentziari buruzko azterlana	Gizarte Premiei buruzko Inkestaren araberako bakardade- eta tristura-arazo larrien intzidentzia
Urtea	2010	2014
Kolektiboa	60 eta urte gehiagoko pertsonak	65 eta urte gehiagoko pertsonak
Eremua	EAE	EAE
65 urte eta gehiagoko 100 pertsonen araberako tasa	%0,90	%3,83
Pertsona-kopurua*	1.399	5.954

Oharra: ikerketa eta iturburu desberdinek kolektibo eta eremu zehatzen araberako balioak azaltzen ditu tasak, baina emakume-kopuruak datu horien erreferentziazko urtean Gipuzkoan bizi diren emakumeen zenbatekoari dagokion tasa ezartzean lortzen da.

Iturriak: Sancho, M. (zuz.) testuan oinarrituta eginiko lanketa propioa. EAEko adinekoenganako tratu txarren susmoaren prebalentziari buruzko azterlana Sorta: Documentos de Bienestar Social-Gizartea Hobetuz, 75. Zkia., Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2011; eta Gizarte-Zerbitzuetako Eskariaren Estatistika – Gizarte Premiei buruzko Inkesta. 2014.

Isolamendu- eta bakardade-egoerei dagokienez, Gizarte Premiei buruzko 2014ko Inkestaren arabera, 65 eta urte gehiagoko euskal biztanleriaren %3,83k bakardade- edo tristezia-arazo larriak izango lituzke; eta harreman pertsonaletan, familiarretan edo sozialetan arazo sozial larriren bat %4,29k.

EAEko adinekoenganako tratu txarren susmoaren prebalentzia-ri buruzko berariazko ikerketa dela eta, hartan eskainitako tasa erreferentzia gisara erabiltzea aukeratu da babesgabetasun-egoeran egongo liratekeen pertsona adinduen etorkizuneko eskaria kalkulatzeko, hau da, biztanleria adinduaren %0,9.

[10] Sancho, M. (zuz.). EAEko adinekoenganako tratu txarren susmoaren prebalentziari buruzko azterlana. Sorta: Documentos de Bienestar Social-Gizartea Hobetuz, 75. Zkia., Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2011, 168 or.

2.4.1.4. Babesgabetasun-egoeran dauden 18 eta 64 urte bitarteko biztanleak

Desgaitasuna duten 65 urtetik beherako pertsonen babesgabetasun-egoerak detektatu eta kuantifikatzea oso zaila da. Ez da gaiari buruzko ikerketa epidemiologikorik egin orain dela gutxi arte, eta tankerako problematikei buruzko intzidentzia-datuak desgaitasuna duten pertsonen kolektibo zehatzei buruzkoak izaten dira maiz. Hala ere, abusuak eta tratu txarrak pairatzeko bereziki kolektibo kaltebera dela aho batez onartzen da, hein batean, haien burua babesteko eta abusu- nahiz indarkeria-portaerak ezagutzeko gaitasun gutxiago dutelako.

Datuak urriak izan arren, *The Lancet*[11] aldizkariak 2012an desgaitasuna duten pertsonei egindako tratu txarren prebalentziari buruzko azterlanen metaanalisi batean duela gutxiko edonolako indarkeria moduren baten (fisikoa, sexuala edo generokoa) prebalentzia bateratua %24,3koa izango litzateke gaixotasun mentalak dituzten biztanleen artean, %6,1ekoa desgaitasun intelektuala dutenen artean, eta %3,2koa bestelako desgaitasunak dituzten pertsonen artean.

Informazio hori eta desgaitasuna duten biztanleen foru-erregistroak %65 edo gehiagoko desgaitasun-maila duten 18 eta 64 urte bitarteko pertsonei buruz eskainitako datuak oinarri hartuz, desgaitasun mota nagusiaren arabera kalkula daiteke gaur egun ezaugarri horiek dituzten 912 bat pertsonek pairatzen dutela babesgabetasun-egoera bat Gipuzkoan.

16. Taula. Babesgabetasun-egoeran dauden eta desgaitasuna duten 18 eta 64 urte bitarteko pertsonak eta 2013 urtean Gipuzkoan eragina izandako biztanleriaren zenbatekoa

		Babesgabetasun egoeren prebalentzia talde bakoitzeko	18-64 urte bitarteko biztanleriaren babesgabetasun egoeren prebalentzia	Babesgabetasun egoeran dagoen biztanleriaren kalkulua
	2017	--	2017	2017
Desgaitasun intelektuala	1.157	%6,1	%0,016	71
Nahasmendu mentala	2.766	%24,3	%0,153	672
Beste desgaitasun batzuk	5.297	%3,2	%0,039	170
Guztizkoa	9.220	--	%0,208	912

Iturriak: Hughes, K. eta al. *The Lancet* 379 Bol., 9826 Zkia., 2012 testuan oinarritutako lanketa propioa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren berariazko datu batzuen ustiapen batetik lortu da 2017 urterako desgaitasuna duten Gipuzkoako pertsonen zenbatekoa.

[11] Hughes K, Bellis MA, Jones L, Wood S, Bates G, Eckley L, McCoy E, Mikton C, Shakespeare T, Officer A. "Prevalence and risk of violence against adults with disabilities: a systematic review and meta-analysis of observational studies", *Lancet,* 379 Bol., 9826 Zkia. 2012.

2.4.2. 2021 urterako babesgabetasun-egoeran egon daitekeen biztanleria

2.4.2.1. Babesgabetasun-arriskuan eta egoeran dauden adingabeak

Haur-babesgabetasun egoerek epe ertainean izan dezaketen bilakaera kalkulatzeak zailtasun bikoitza izango luke. Batetik, problematikaren izaera propioagatik, faktore oso desberdin eta aldakorrek sortzen dutena, baina lagundu gabeko adingabeko atzerritarren iritsiera aurreikustea erlatiboki zaila da; eta 2016an fenomeno horren garrantzizko igoera gertatu da.

Adibidez, arta-adierazle batzuk oraintsu izandako bilakaera aintzat hartuz gero, 2012 eta 2017 urteen bitartean balizko babesgabetasunean egoterik zuketen adingabekoei buruzko jakinarazpenak %25 hazi dira, baina ez haren tasa, %20 hazi dena, adingabekoen biztanleria hazi den neurrikoa. Tasak bakarrik hartuz gero, aldi horretan izandako hazkunde oso garrantzitsua nabarmentzen da lagundu gabeko adingabeko atzerritarrei buruzko jakinarazpenen ondorioz[12] (tasa hirukoiztu egin da), eta askoz ere gutxiago familia-erreferentea duten adingabekoena[13], zeintzuen hazkundea %13koa izan dena. Aitzitik, adingabe lege-hausleei dagozkien jakinarazpenen tasa %48 beheratu da[14].

17. Taula. Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak artatutako 18 urtez azpiko 100 biztanleren arabera tasaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2017

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	Bilakaera 2012-16 (%)
Urtean zehar jasotako jakinarazpenean inplikatutako adingabekoak							
- Familia-erreferentzia duten adingabekoak	%0,254	%0,255	%0,298	%0,301	%0,308	%0,286	%13
- Adingabeko lege-hausleak	%0,275	%0,289	%0,243	%0,208	%0,159	%0,143	-%48
- Lagundu gabeko adingabekoak	%0,114	%0,121	%0,129	%0,139	%0,244	%0,344	%200
- Guztizkoa	%0,644	%0,665	%0,670	%0,649	%0,711	%0,773	%20
Harreran hartutako adingabekoak, abenduaren 31n							
- Egoitza-harrera	%0,218	%0,236	%0,238	%0,246	%0,253	%0,267	%23
- Familia-harrera	%0,265	%0,264	%0,272	%0,204	%0,278	%0,278	%5
- Harreran hartutako adingabekoen guztizkoa	%0,483	%0,500	%0,509	%0,450	%0,531	%0,545	%13
Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartze-prometan inplikatutako adingabekoak, abenduaren 31n	%0,715	%0,656	%0,831	%1,034	%0,919	%0,885	%24
Haurren babeserako sistemak artatutako adingabekoen guztizkoa, abenduaren 31n	datu gabe	datu gabe	%0,914	%1,127	%1,184	%1,142	--

Iturria: Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuaren 2017 urteko Memoria. Gipuzkoako Foru Aldundia.

[12] Senide edo arduradunen batek lagundu gabeko EB kanpoko herrialdeetako pertsona adingabekoak dira.
[13] Adingabeko pertsona baten arduradunaren babes-betekizunak ez direla bete edota egoki bete gabeko kasuak dira: tratu txar fisikoak, abandonatze fisikoa, tratu txar emozionalak, sexu-abusuak edota Balora Tresnak aintzat hartutako bestelako egoerak.
[14] Adingabekoen Fiskaltzak igorritako espedienteak kontuan hartzen dira maila honetan, adingabeen erantzukizun penala arautzen duen 5/2000 Legearen arabera, 14 urtez azpiko haur lege-hausleen kasuak eta adin horretatik gora Fiskaltzak egokitzat hartzen dituenak Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzen zaizkio premiako diren neurriak hartzeko.

Harreran hartutako adingabekoei dagokienez, 2012 eta 2017 bitartean, harrera-familien aldean (%5), egoitza-harreran hartutako adingabekoen tasa hazi egin da (%23).

Aurreko datuen deskribapenaren araberako joera nagusitzat har daiteke, dena dela erabilitako adierazlea (jakinarazpenak, harrerak edo berariazko esku-hartze-programak), azken sei urteotan pixkanaka hazten joan da adingabekoen babes-sistemak artatutako haurren eta nerabeen tasa. Egoera horri 2016 urtetik aurrerantzean lagundu gabeko adingabeko atzerritarrei buruzko jakinarazpenak gehituz gero, epe motzean bigarren-mailako arreta-sareak eskainitako arreta espezializatuaren premia izango duten adingabekoen eskariaren hazkunde arin bat gerta daiteke. Urtez urteko %2,5eko hazkundearen baliokide izan daitekeela kalkulatzen da, eta harreran hartutako adingabekoen eta jakinerazpenen azken aldiko bilakaeraren tankerakoa da, haur-babesgabetasunaren balorazio eta diagnostikorako foru-zerbitzuak baloratuak.

Babesgabetasun-egoera arin eta moderatuen prebalentziari dagokionez, babesgabetasun-arriskuan egon daitezkeen haurren eta nerabeen zenbatekoa hazi egin omen daiteke epe motz edo ertain batean. Horietako zenbait faktore izendatzen dira ondoren.

Familia gurasobakarren, dibortziatu eta bananduen, eta baliabide gutxiago dituzten biztanleen hazkundea. Euskal Familien eta Familia Etxeetako Inkestaren arabera (FFEI), seme-alaben kargu diren familia gurasobakarren zenbatekoa %24 hazi omen zen 2001 eta 2015 urteen bitartean, beraz, gaur egun seme-alaben kargu egiten diren EAEko familia guztien %17. Ikerketa horren esanean, familia horietako ezaugarri nagusia erreferentziazko pertsona gisara emakumeen garrantzi nabarmena da, izan ere, haietatik %87,2 baitira. Eraldaketa horren atzetik, hein handi batean, dibortzio- eta banaketa-prozesuak egoten dira. Estatistika Judizialak 2013-2016 aldirako argitaratutako datuen arabera, adingabeko seme-alabak dituzten bikoteen dibortzioen eta banaketen urteko batezbestekoa 750ekoa izaten da Gipuzkoan. 2016ko datuen arabera, kasu guztietatik %64an ama direnek haurren zaintzaren ardura hartu dute, eta kasuetatik %31n zaintza partekatua. Orokorrean, gurasobakarren etxebizitzetan, pobrezia- eta gabezia-arrisku altuaz gain, haietan bizi diren adingabekoen bazterkeria-probabilitateak hazi egiten dira. Hori bera erakusten dute *Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta*-ko datuek, izan ere, biztanleria orokorrarentzako %4,7ko bazterkeria larriko tasaren aldean, %12,4koa izango bailitzateke 18 urtez azpiko adingabeko bat duten familia batean. Beraz, pentsa daiteke horrelako familien hazkundearekin bat, epe motzean, babesgabetasun-arriskuan egon daitezkeen adingabekoen zenbatekoaren hazkundea gerta daitekeela.

Jatorri atzerritarreko biztanleriaren hazkundeak, orokorrean sostengu-sare eskasagoa eta egoera sozioekonomiko ezegonkorragoa duenak, antzeko eragina izan dezake, haurren eta nerabeen arloko Gizarte-Zerbitzuetako esku-hartzeen eskaria hazi baitaiteke. Edonola ere, atzerritik datozen egungo migrazio-fluxuen maila eta prozesu horietan partaide diren pertsonen adina kontuan hartuz gero[15], sistemak artatutako haurren eta nerabeen artetik garrantzia hartzen joango da immigrazio-prozesuetan parte-hartutako haurrek eta nerabeek osatutako biztanleria. Kanpo migrazio-mugimenduen azken aldiko bilakaerari buruzko informazioaren arabera, krisialdiaren aurretik behatutako oso tankerako immigrazio-tasa jasotzen da gaur egun Gipuzkoan, eta 2012 eta 2014 bitartean atzerria helburu izandako emigrazioak immigrazio-maila gainditu arren, 2015etik aurrerantzeko saldoa positiboa izan da berriz ere.

[15] 2012-2016 aldian bildutako datuen arabera, Gipuzkoara migratutako pertsona atzerritar guztietatik %77k 40 urte baino gutxiago ditu, eta %23k 20 baino gutxiago.

18. Taula. Helburua edo jatorria atzerria duten migrazio-fluxuak. Gipuzkoa 1998-2016

	Atzerriko immigrazioa		Atzerrirako emigrazioa		Atzerri migrazio saldoa
	Zenbatekoa	1.000 biztanleren araberako tasa	Zenbatekoa	1.000 biztanleren araberako tasa	
1998	291	0,43	11	0,02	+280
1999	569	0,84	33	0,05	+536
2000	893	1,31	78	0,11	+815
2001	1.197	1,76	288	0,42	+909
2002	2.507	3,67	384	0,56	+2.123
2003	2.777	4,06	1.078	1,58	+1.699
2004	3.206	4,67	1.549	2,26	+1.657
2005	4.701	6,83	1.327	1,93	+3.374
2006	6.015	8,69	3.027	4,37	+2.988
2007	7.904	11,37	2.485	3,58	+5.419
2008	7.179	10,24	3.589	5,12	+3.590
2009	4.890	6,93	3.821	5,41	+1.069
2010	4.672	6,61	3.630	5,13	+1.042
2011	4.772	6,72	3.858	5,44	+914
2012	3.882	5,45	3.890	5,46	-8
2013	4.467	6,26	5.257	7,36	-790
2014	4.843	6,77	5.081	7,10	-238
2015	5.558	7,75	4.032	5,62	+1.526
2016	6.667	9,29	4.172	5,81	+2.495

Iturria: EUSTAT. Migrazio Mugimenduetako Estatistika.

Azken urteotako pobreziaren intzidentzia murriztu arren, oraindik ere 2008koak baino balio altuagoak jasotzen dira eta haren prebalentziak oraindik ere altuagoa izaten jarraitzen du haurren artean. Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren datuen arabera, Gipuzkoako 2017ko pobrezia larriko tasa –errentaren medianaren %40 baino errenta baliokide baxuagoa duten etxebizitzetako pertsonen proportzioa azaltzen duen adierazlea– %5,3koa izan zen biztanleria orokorrean eta %9,5ekoa 18 urtez azpiko biztanleen artean. Datu horiek inkesta horretako 2014ko boladako datuekin konparatuz gero[16], haur-pobreziaren arazoaren jarraitutasuna azaleratzen dute, edota beste zentzu zabalago batean, adingabeko seme-alabak dituzten familien pobrezia gisara uler daitekeen fenomenoa.

Aipatutako hiru faktore horiek adingabeko biztanleen babesgabetasun-arriskuaren intzidentziaren balizko hazkundea erakuts dezakete. Gipuzkoako Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuen babesgabetasun arin eta moderatuko arrisku-egoerak artatzean izan dezakeen eragina neurtzeko, hipotesi gisara 2016an erregistratutako tasaren urtez urteko %2ko hazkunde arina planteatzen da.

19. Taula. Babesgabetasun-egoeran dagoen adingabeko biztanleriaren intzidentziaren bilakaera-kalkulua. Gipuzkoa 2016-2021

	2016-2017		2021	
	100 pertsonen araberako tasa <18 urte	Pertsona kopurua	100 pertsonen araberako tasa <18 urte	Pertsona kopurua
Babesgabetasun larria	%1,142	1.435	%1,303	1.631
Babesgabetasun arina/moderatua edo arriskua	%1,302	1.628	%1,438	1.799
Guztizkoa	%2,453	3.068	%2,740	3.430

Iturria: lanketa propioa.

[16] 2014 urtean, Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestak Lurralde osorako pobrezia larriaren %5,4ko tasa kalkulatzen zuen eta 18 urtez azpiko biztanleriarentzako %8,8.

2021erako generoaren araberako babesgabetasun-egoeren zenbatekoa zehazteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak 2017ko memorian jasotako proportzioa erabili da, zeinaren arabera, haur-babeseko sistemak abenduaren 31n artatutako adingabekoetatik %60,1 mutilak izan omen dira.

2.4.2.2. Indarkeria matxistaren emakume biktimak

Gipuzkoako Emakumeen aurkako Indarkeria Epaitegiei buruzko Estatistika Judizialaren arabera, jasotako genero-indarkeria salaketak %34 inguru hazi dira 2012 eta 2016 urteen bitartean. Bestalde, aurreko datu horiek EAEko emakume biktimen zenbatekoari buruz Emakundek eskainitako datuekin kontrastatzen dute[17], izan ere, azken datu horien arabera, aldi horretan erlatiboki konstante mantendu baita Gipuzkoako emakume biktimen zenbatekoa[18].

20. Taula. Genero-indarkeriaren emakume biktimen zenbatekoaren bilakaera informazio-iturri desberdinen arabera. Gipuzkoa 2012-2016

	2012	2013	2014	2015	2016	Bilakaera 2012-16 (%)
Emakumeen aurkako Indarkeria Epaitegietako datuak						
Emakume-kopurua	975	964	1.084	1.140	1.302	%33,5
100 emakumeren araberako tasa	%0,268	%0,265	%0,297	%0,311	%0,355	%32,3
Emakumeen aurkako Indarkeria biktima-kopuruari buruzko datuak						
Emakume-kopurua	1.166	1.142	1.226	1.224	1.129	-%3,2
100 emakumeren araberako tasa	%0,321	%0,314	%0,336	%0,334	%0,308	-%4,1

Iturriak: BJKN. Estatistika Judiziala. Emakumeen aurkako Indarkeria Epaitegiak; Emakunde. EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak.

Bilakaera-hipotesi bat planteatzean, 2017-2021 aldirako urtez urteko %3,6ko hazkundearen aurreikuspena hartuko da kontuan, 2012-2016 aldian Emakumeen aurkako Indarkeria Epaitegiek behatutako urtez urteko hazkundearen erdiaren baliokidea dena.

21. Taula. Gipuzkoako indarkeria matxistaren prebalentziaren kalkulua. 2016-2021

	2016	2021
100 emakumeren araberako tasa	%0,355	%0,424
Emakume-kopurua	1.302	1.566

Iturria: lanketa propioa.

[17] Ertzaintzaren jardueraren eremuan eta eskumenean dauden polizia-dokumentuetan gordetako emakumeen aurkako indarkeriari buruzko estatistika-informazioa biltzen dute aurkezten diren datuek. Biktima gisara, aldi batean legez kontrako jardueren biktima izandako emakumeen kasuak zenbatzen dira. Gizonek eragindako indarkeria-datuak biltzen dira (bikotea, bikote ohia, senide bat edo beste gizon bat).

[18] 2017 urterako behin betiko daturik ez izan arren, Emakunderen 2017ko lehen seihilekoko datuen aurrerapenaren arabera, aldi horretan %5,9 hazi omen da indarkeria pairatu izandako EAEko emakumeen ehunekoa.

2.4.2.3. Babesgabetasun-egoeran dauden adineko biztanleak

Gaur egun, ez dago daturik biztanle adinduen epe motzeko babesgabetasun-intzidentziaren maila modu garrantzitsu batean haziko dela baieztatzeko. Ildo horretatik, eskuragarri dauden datuek, alde batetik, tankerako mendekotasun-tasak mantenduko direla iradokitzen dute, tratu txarrak eta arta arduragabeak gertatzeko arrisku-faktore nagusia dena; eta, bestetik, biztanle adinduen aurkako tratu txarren prebalentzia-tasen nolabaiteko orekarako joera[19]. Logikoki, haren intzidentzia mantendu arren, biztanleriaren zahartze-prozesu propioagatik zifra absolutuek gora egingo dute.

2021erako hipotesi horrekin bat eginez gero, Eustatek 65 eta urte gehiagoko 164.800 biztanle biziko direla aurreikusten duen urte horretarako, balizko babesgabetasun-egoera bat pairatuko luketen 1.483 biztanle gehiago izango lirateke. Gehigarri gisara, 2021 urterako kalkuluen arabera, emakumeak izan daitezke horien artetik %70. Aurretik aipatutako *EAEko adinekoenganako tratu txarren susmoaren prebalentzia*-ri buruzko ikerketaren emaitzak erabili dira kalkulu hori egiteko, zeinaren arabera, tratu txarrak hautemandako biztanleetatik %72,6 emakumeak baitira. Edonola ere, proportzio hori beherantz borobildu da, izan ere, ikerketa berean iradokitzen denaren arabera, gizonezkoek emakumeen aldean edonolako tratu txarren bat pairatzen dutela adierazteko zailtasun handiagoa izaten baitute, ustez behintzat.

2.4.2.4. Babesgabetasun-egoeran dauden 18 eta 64 urte bitarteko biztanleak

Ez da erraza biztanle helduen babesgabetasun-egoeren prebalentziak epe motzean har dezakeen bilakaera kalkulatzea, hala ere, egoera pertsonalek, familiarrek eta sozialek orokorrean arriskua haztea baldintza dezakete desgaitasuna edo gaixotasun mentala duen pertsona batek abusuak, tratu txarrak pairatzea edota arduragabe zaindua izatea; gehienbat, haren zaintza-ardura duen pertsonaren aldetik. Arrisku-faktore gisara sarri hartzen direnen artetik, ondoko hauek izenda daitezke:

- Hirugarren pertsona batekiko mendekotasun fisikoaren, emozionalaren eta ekonomikoaren maila. Mendekotasun-maila handieneko pertsonak, printzipioz, tratu txarrak pairatzeko kalteberagoak dira, eta desgaitasun kognitiboak eta desoreka mentalak dituzten biztanleak dira babesgabeenak.
- Muturreko egoera kalteberan geratzen da isolamendu soziala pairatzen duen pertsona, bereziki tratu txarrak emandako pertsonaren mendeko denean eguneroko bizimoduko oinarrizko premietan laguntzeko.
- Zaintzaileen zahartzea eta gehiegizko lan-kargak sortutako estresa.
- Ordaindutako lana eta sari gabekoa bateragarri egiteko premia. Egungo familia gutxi bizi daiteke soldata bakarrarekin, bereziki desgaitasuna duen seme edo alaba bat zaindu behar denean. Mendekotasun-egoeran dagoen pertsona zaintzeaz gain enplegua mantendu beharrak estresa sor dezake; baita zaindutako pertsonaren zaintza arduragabearen arriskua areagotu ere.

[19] Meil, G., Los malos tratos a las personas mayores: Las personas mayores en España. Informe 2016. Datos estadísticos estatales y por comunidades autónomas. Sorta: Personas mayores. Documentos Técnicos y Estadísticos, Madril, Instituto de Mayores y Servicios Sociales, 2017, 489-539 or.

- Gizarteak dituen estereotipo eta jokabide ezkorrak. Abusua gertatzea askoz ere errazagoa da desgaitasunak dituzten pertsonak gutxiesten dituen gizarte batean.
- Desgaitasunak dituzten pertsonek osasun- eta gizarte-zerbitzuak eskuratzeko sarbide-trabak.

Aipatutako faktore gehienek ez lukete okerrera eboluzionatu behar, behintzat epe motz eta ertain batean. Gero eta independenteagoak dira desgaitasuna duten pertsonak , hobe gizarteratuak eta bizimodu normalizatu errazagoa dute. Horrek guztiak abusuak gertatzeko arriskua murrizten lagundu beharko luke. Bestetik, zaintzaileen egoerekin bat datozen faktoreek –haien zahartzeak eta bizi dituzten egoera premiatsuek–, etorkizunean izan ditzaketen eragin ezkorrak hazarazteko arriskua izan arren, ez da aurreikusten hori epe motz eta ertain batean gertatzea.

Beraz, aurkakoa adierazten duten datuen gabeziaren ondorioz, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuen Mapa indarrean dagoen aldian konstante manten daiteke desgaitasuna duten pertsonen aurkako abusuen eta tratu txarren intzidentzia. Ustezko kasu horretan, 2021 urtean eragindako 898 biztanle aurki daitezke, 2017 urterako kalkulatutakoa baino zenbateko apalagoa, 18 eta 64 urte bitarteko kohorteetarako proiekzio demografikoek neurri absolutuetan aurreikusten duten beherakadaren ondorioz. Halaber, 2021 urterako kalkulatutakoaren arabera, 2017ko Gipuzkoan %65 edo gehiagoko desgaitasun-graduaren balorazioko 18 eta 64 urte bitarteko gizonezkoen (%59) eta emakumeen (%41) proportzio berbera izango litzateke.

2016 urterako ezarritako intzidentzia-tasen eta planteatutako bilakaera-hipotesien arabera, aipatutako kontingentziek eragindako biztanleriaren balizko zenbatekoa eta intzidentzia ondokoa izango litzateke:

22. Taula. Babesgabetasun-egoeren prebalentzia Gipuzkoan. 2016/17-2021

	2016/17		2021	
	Pertsonen zenbatekoa	100 emakumeren araberako tasa	Pertsonen zenbatekoa	100 pertsonen araberako tasa
	1.435	%1,142	1.631	%1,303
Babesgabetasun-egoera arin edo moderatuan dauden adingabekoak	1.628	%1,302	1.799	%1,438
Indarkeria matxistaren emakume biktimak	1.302	%0,355	1.566	%0,424
Babesgabetasun-egoeran dauden 65 urtetik gorako pertsona adinduak	1.399	%0,900	1.483	%0,900
Desgaitasuna duten pertsona helduak, 65 urtez azpikoak, babesgabetasun-egoeran	912	%0,208	898	%0,208
Guztizkoa	6.676	%0,930	7.377	%1,023

*Adingabekoen tasak 0 eta 18 urte bitarteko biztanleriaren araberako ehunekotan jasotzen dira; emakume guztien arabera-koa da emakumeen tasa; pertsona adinduena 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren arabera; biztanleria heldua 18 eta 64 urte bitarteko biztanleen arabera; eta guztizko tasa biztanleria osoaren arabera.

Iturria: lanketa propioa.

Horren arabera, 2021 urtean 7.400 pertsona egon daitezke babesgabetasun-egoerek kaltetuta, eta horietatik 3.400 babesgabetasuneko arriskuan edo egoeran egongo liratekeen adingabeak; indarkeria matxistaren 1.600 emakume biktima; tratu txarrak edo zaintza arduragabea pairatutako desgaitasuna duten ia 900 pertsona heldu; eta babesgabetasun-egoeran egongo liratekeen 1.500 pertsona adindu.

2.5. Pobrezia, desberdintasuna eta gizarte-bazterkeria egoerak: egungo egoera eta bilakaera-ikuspegiak

2.5.1. Egungo egoera

2017ko Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestako azken datuek iradokitzen duten bezala, azken aldiko egoera ekonomikoak susperraldi-sintomak agertu arren, pobrezia-mailen geldialdia gertatu da. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, 2017ko pobrezia-egoera larrienak –pobrezia larriko adierazleak neurtuak, diru-sarreren mediana baliokidearen %40ko atalasearen arabera–2014 urteko proportzio berean mantendu dira; baina pobrezia erlatiboko egoeren prebalentziak (diru-sarreren medianaren %60) gorakada ezagutuko zukeen, nahiz eta oso txikia izan.

23. Taula. Pobrezia- eta desberdintasun-adierazle nagusien bilakaera. Gipuzkoa 2012-2017

		2012	2014	2017	Bilakaera 2017-14
EU-SILC adierazleak	Pobrezia erlatiboko arriskua	%16,8	%15,6	%16,4	**+0,8**
	Pobrezia larriko arriskua	%4,3	%5,4	%5,3	**-0,1**
	Gabezia material larria	%5,2	%5,2	%6,9	**+1,7**
	Lan-intentsitate baxua	%9,3	%8,4	%5,7	**-2,7**
	AROPE tasa	%22,7	%19,5	%19,2	**-0,3**
	Biztanleria okupatuaren araberako pobrezia	%7,0	%6,2	%10,2	**+4,0**
Desberdintasun adierazleak	Giniren indizea	27,2	26,3	25,3	**-1,0**
	S80/S20	3,8	4,0	3,8	**-0,2**
Diru-sarreren adierazleak(euro/hilabeteko)	Errenta mediana baliokidea	1.404,2	1.420,6	1.533,3	+112,7
	Pobrezia erlatiboaren atalasea	842,5	852,4	920,0	+67,6
	Pobrezia larriaren atalasea	561,7	568,3	613,3	+45,0

Oharra: bilakaera negatiboa izandako adierazleak gorriz markatu dira, eta bilakaera ona izandako datuak urdinez.
Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Pobrezia erlatiboko arrisku-tasa gutxi aldatu arren, etxebizitzetako diru-sarreren hobekuntza gertatu da: errentaren mediana baliokidea ia %8 hazi da 2014 eta 2017 urteen bitartean. Hala ere, hobekuntza ez da uniformea gertatu, izan ere, etxebizitzetako diru-sarreren kintilak aztertzean, maila ertaineko taldeko diru-sarrerak (3. kintila) batezbesteko altuago batean hazi baitira, eta horren ondoriozko pobrezia-atalasearen hazkundea; diru-sarreren hazkunde apalagoa izandako azpiko kintiletako etxebizitzak beherago utzita.

Hala eta guztiz ere, aldaketa minimoak gertatu dira, izan ere, desberdintasun-adierazle klasikoek ez dela hazi erakusten baitute, eta Gipuzkoan erregistratu izandako maila horiek Estatuko datuen aldean askoz ere txikiagoak izaten jarraitzen baitute; zeinean Giniren koefizientea 34,1ekoa (Gipuzkoako 25,3aren aldean) eta S80/S20 erlazioa (hau da, diru-sarrera baliokide altuenak dituen %20aren eta diru-sarrera baxuenak dituen %80aren arteko zatiketa) 6,6koa baita, Gipuzkoako 3,8koaren aldean.

Pobrezia eta gabezia materialen egoerei dagokienez, azkenik, bai gabezia material larriko adierazleak –2014 urtean %5,2 izatetik, 2017 urtean %6,9 izatera pasa dena– bai langile pobreen tasak bereziki izandako eboluzio ezkorra nabarmendu behar da. Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, biztanleria okupatuaren pobrezia erlatiboko arrisku-tasa %10,2koa da (2014 urteko %6,2koaren aldean), hau da, soldata apalenak dituztenen sarrera-mailan gertatutako eskaste baten ondoriozko egoera.

Gizarte-bazterketari dagokionez, 2017ko GPGBIko emaitzen arabera, FOESSA Fundazioak garatutako metodologia erabiliz gero[20], biztanleriaren %4,7 egongo litzateke gizarte-bazterkeriako egoera batean −15.700 bat etxebizitzetan bizi diren ia 33.000 biztanle−, eta %9,1 bazterkeria-egoera moderatu batean; azken batean, modu baten edo bestearen eragina izango luke biztanleriaren %13,8k. Gainerako biztanleriaren %29,3 gizarteratze ezegonkorreko egoera batean egongo litzateke eta %57 erabateko gizarteratze-egoeran[21].

24. Taula. Gizarte-bazterkeriak biztanlerian izandako intzidentziaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2017

	2012		2014		2017	
	Tasa (%)	Zenbatekoa	Tasa (%)	Zenbatekoa	Tasa (%)	Zenbatekoa
Integrazioa	%58,4	413.298	%56,8	405.856	%56,9	406.341
Integrazio ezegonkorra	%29,7	210.335	%29,7	212.389	%29,3	209.071
Gizarte-bazterketa moderatua	%7,0	49.692	%8,3	59.421	%9,1	64.852
Gizarte-bazterketa larria	%4,8	339.50	%5,1	36.326	%4,7	33.273
Gizarte-bazterketa, guztizkoa	*%11,8*	*49.692*	*%13,4*	*95.747*	*%13,8*	*98.125*
Guztizkoa	%100,0	707.276	%100,0	713.993	%100,0	713.537

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta.

Denbora-ikuspegi batetik eginiko datu-analisi baten arabera, 2014 eta 2017 urteen artean ez da aldaketa nabarmenik gertatu gizarteratze/gizarte-bazterketa eskalaren baitako biztanleria-banaketan. Edonola ere, nolabaiteko aldaketa bat nabarmen daiteke, oso txikia izan arren, bazterkeria-egoera larrietatik gizarte-bazterketa mota moderatukora. Horrela, egoera horien 2014 urteko prebalentziak biztanle gipuzkoarraren %5,1 ingururi eragiten zion, eta oraintsuko GPGBIren arabera, egungo %4,7ko prebalentzia kalkula daiteke.

Gure lurraldeko gizarte-bazterketako egoeren intzidentziaren azterketaren arabera, eta oraindik gizarte-bazterketaren baloraziorako tresna teknikoaren bitartez baloratutako kasu-kopuru handiagoa izan bitartean[22], EAEko bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko azterlaneko Gipuzkoari buruzko informazioarekin osa daiteke[23]. Azterlan horren daturik berrienen arabera, zenbaketa egin-

[20] Laparra, M. eta B. Pérez Eransus (koord.) (2010). *El primer impacto de la crisis en la cohesión social en España*. Colección de Estudios, 32. Zkia., Madrid: Fundación FOESSA, Cáritas Española Editores; Renes Ayala, Victor (koord.) (2008). *VI Informe sobre Exclusión y Desarrollo Social en España 2008*. Madril: Fundación FOESSA.

[21] FOESSA Fundazioak erabilitako agregazio-metodoak oinarrizko premisaren arabera, adierazleek azaleratzen dituzten gabeziak are larriagoak izaten dira etxebizitza-kopuru murritzenen kasuetan, eta horren ondorioz, adierazle bakoitzean eragina izandako etxebizitzen ehuneko alderantzikatuaren araberako garrantzia eskaintzen zaio kasu bakoitzari. Garrantzi-maila hori kontuan hartu ondorengo adierazle bakoitzaren ezaugarri nagusia batezbestekoa 1 izatea da (edo ingurukoa), eta ez du gutxieneko eta gehieneko muga teorikorik (banaketaren araberakoa da). Beraz, biztanleria osoaren bazterkeria-indizearen batezbestekoa 1 dela oinarri hartuz gero (laginaren haztapenaren arabera), bazterkeria-indizearen (i) batezbestekoa bikoizten duten etxebizitzetan (i>2) bazterkeria-egoera erlatiboa dagoela ulertzen da. "Baztertutako etxebizitza" horien artetik, aurreko bazterkeria-indizearen (i) atalasea bikoizten duten kasuak (i>4) bazterkeria-egoera larria pairatzen dutela ulertzen da. Horren azpitik dauden kasuak (2<i<4) bazterkeria-egoera moderatuen taldean sartzen dira. Batezbestekoaren bikoitza baino indize apalagoa (0<i<2) duten bazterkeria-adierazleren batek kaltetutako etxebizitzen kasuak integrazio ezegonkorraren baitan hartzen dira kontuan, eta azkeneko taldea bazterkeria-indizea 0 duten etxebizitzek osatzen dute (hau da, hautatutako 35 adierazlek deskribatutako egoerarik bizi ez duten etxebizitzak); eta haien integrazio-maila bete dela ulertzen da.

[22] Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte-bazterketaren Balorazio eta Orientazio Zerbitzua 2017 urtean jarri zen abian. 2017ko martxotik 2018 martxora bitartean, bigarren-mailako egoitza-baliabideetako eskakizun berrien kasuan, gizarte-bazterketaren baloraziorako tresna teknikoa erabiliz 160 balorazio egin dira. Haietatik %36,6k bazterketa-arriskuko emaitzak jaso ditu, %40,4k bazterkeria arina, %18,6k bazterkeria moderatua, %2,5ek bazterkeria larria, eta %1,9ko gizarteratzea.

[23] Gipuzkoako etxegabekoen fenomenoari buruzko datuak gure lurraldean gaur egunera arte egindako lau zenbaketetan oinarritzen dira (2011, 2012, 2014 eta 2016), Kale Gorrian lantaldeak egindakoak; eta Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta erakunde sozial batzuk izan dira zenbaketa horren partaide. Eusko Jaurlaritzak erkidego-eremuan sustatuta, gure inguruko beste hiri batzuetako bizitegi-bazterketari buruzko pertsona-erroldetan oinarritzen dira zenbaketa horiek, eta haien oinarrizko helburua gau zehatz batean kalean edo etxegabeko pertsonentzako arreta-zentroetan dauden etxegabeko pertsonen zenbatekoa ezagutzea da.

dako gau horretan (2016ko urriaren 26tik 27ra) bizitegi-bazterketa larrian aurkitu zituzten 734 herritar. Horietatik 89 kalean aurkitu zituzten[24] eta 645 egoitza- eta ostatu-baliabideetan, lehen- nahiz bigarren-mailako baliabideetan[25], Donostian eta beste hamazazpi udalerri gipuzkoarretan.

25. Taula. Gizarte-bazterketa larriko egoeren intzidentzia Gipuzkoan 2011-2016. 1.000 biztanleren araberako tasa*

	Ostatua duten Gizarte-Zerbitzuetako zentroetan		Kalean			Guztizkoa	
	Tasa (‰)	Zenbatekoa	Udalen zenbatekoa	Tasa (‰)	Zenbatekoa	Tasa (‰)	Zenbatekoa
2011	0,590	419	1	0,242	45	0,654	464
2012	0,624	444	1	0,354	66	0,716	510
2014	0,709	507	2	0,518	128	0,969	635
2016	0,899	645	9	0,222	89	0,102	734

*Ostatu-baliabideei dagozkien okupazio-tasak Gipuzkoa osoko biztanleriaren arabera kalkulatzen dira. Kalean aurkitutako pertsonei buruzko datuak zenbaketa-boladetan partaide izandako udalerrien arabera bildu dira. Guztizko tasa, bestalde, lurraldeko biztanleria osoa aintzat hartuta kalkulatu da.

Iturria: EAEn etxebizitza-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko azterketa.

Nola aldatu dira egoera horiek denboran zehar? Gipuzkoako azken lau zenbaketa-boladetako bilakaera-datuak oinarri hartuz, ondoko ondorioak nabarmen daitezke:

- Kalean aurkitutako biztanleei dagokienez, Donostiari dagozkion bilakaera-datuen arabera (lau boladetako zenbaketetan partaide izandako udalerri bakarra), lokalizatutako pertsonen zenbatekoan beherakada nabarmena gertatu omen da azken urtean. Aurreko urtetan behatutako hazkunde jarraituaren ondoren (2011 urtean 45 biztanle, 2012 urtean 66 biztanle eta 2014 urtean 89 biztanle), 2016 urteari buruzko informazioak (48 biztanle), 2014 urtekoaren aldean, kalean lo egindako pertsonen zenbatekoaren %46ko beherakada jasotzen du.

- Bestetik, azken zenbaketako datuek erakusten dutenez, hiriburuko kaleetan lo egin zuten pertsona gehienek (89 biztanletik 48k), eta tamaina txikiagoko beste udalerrietan gainerako %46k; eta horrek iradokitzen duen bezala, ez da Donostiako kaleetan bakarrik gertatutako egoera bat, izan ere, Pasaian (0,247 milako) edo Irunen (0,276) Donostiako tankerako tasa duelako (0,258).

- Ostatu-baliabideetan lokalizatutako pertsonen kasuei dagokionez, eboluzio-datuek (soilik azterlaneko lau boladetan partaide izandako zentroak kontuan hartuta[26]) hasieratik gradualki hazi da haien plaza-kopurua (2011 urtean 419, 2012 urtean 444, 2014 urtean 507 eta 2016 urtean 547) nahiz eta ostatuen eta beste gizarteratzeko egoitza-baliabideen banaketa ia-ia konstante mantendu.

Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako esparruko bazterkeria-arloko etorkizuneko Gizarte-Zerbitzuen eskaria kalkulatzeko, alde batetik, gizarte-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen tasa kontuan hartu da, FOESSA Fundazioak sortutako metodologia Gipuzkoan aplikatuta; eta, bestetik, Gipuzkoan bizitegi-bazterketa larrian bizi diren pertsonei buruzko azterlanean azaldutako zenbatekoa aintzat hartuta. Beraz, Lurralde Historiko osoaren prebalentzia %5,202koa da.

[24] Gipuzkoako 9 udalerritan egin ziren gaueko zenbaketa horiek (Donostia, Eibar, Errenteria, Hernani, Irun, Legazpi, Pasaia, Tolosa eta Zarautz). Topatutako 89 pertsonetatik 48 Donostian topatu ziren, eta gainerako 41 pertsonak zazpi udalerritan.

[25] Lehen-mailako ostatu-zerbitzuei dagokienez, partaide izandako 9 udalerrietan egin zen zenbaketa hori.

[26] Kaleko zenbaketan partaide izandako udalerrietako lehen-mailako arretako ostatu-zerbitzuak zentro-erroldan eta azterketan 2016 urtetik aurrerantzean kontuan hartu direnez, azterketa honetan ez dira aintzat hartu datuak konparatu ahal izatea bermatzeko. 2016 urtean ostatu-baliabideetan aurkitutako 645 lagunetatik (25. Taulan ikus daitekeen bezala), aurreko urteetako baliabideetan soilik 547 pertsonek hartu zuten ostatu.

2.5.2. 2021 urterako gizarte-bazterkeria egoeran egon daitekeen biztanleria

Gizarte-bazterketako egoeren epe motzeko bilakaera iragartzeko zailtasuna handia izan arren, hurrengo urteetan, motel izan arren, bazterkeria-egoera horietatik traba batzuk ezaba daitezkeela pentsatzeak arrazoizkoa ematen du, etxebizitzetako baldintza ekonomikoekin edo/eta gabezia materialekin zuzeneko erlazioa dutenak.

Hain zuzen ere, dokumentu honetako 33. orrialdeko 27. Taulan ikus daitekeen bezala, ekonomia- eta pobrezia-adierazle batzuek azken hamarkadan izandako bilakaeraren arabera, hautatutako dimentsioa edozein izanda ere, hautatutako baliorik ezkorrenak 2012-2014 aldikoak dira; 2015 urtetik hobekuntza ezagutu dutenak, betiere hobea kasu batzuetan besteen aldean baino.

2014 eta 2017 urteen bitartean, adibidez, Gipuzkoako langabezia-tasa, Biztanleriaren Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren (BJA) arabera, %13,9 izatetik, %8,9 izatera pasa da; eta langabetuen zenbatekoa 18.300 pertsona izateraino beheratu. Baina, horretaz gain, biztanleria aktiboaren beherakada arin bat eman da, eta, horren ondorioz, 2014 eta 2017 urteen bitartean 9.900 pertsonetan murriztutako langabeen zenbatekoa. Lan-kontratu mugagabea duten landunen eboluzio ezkor bat antzeman da (2017 urtean %71, bolada guztietako zifrarik baxuena), baita 2014 urtetik aurrerantzean langileen batezbesteko ordainsarien hobekuntza ere, baina 2009 urtekoa baino apalagoa, euro konstanteetan kalkulatua. 2014 urtetik aurrerantzean, 2008tik lehen aldiz eman zen BPGren hazkunde jarraitua. 2013 eta 2016 urteen artean %8,5 hazi zen, baina oraindik ere 2008 urtean erregistratutako %5,4koa baino apalagoa da.

Beraz, gizarte-bazterketa larriaren tasaren bilakaera kalkulatu ahal izateko –FOESSAren proposamenari jarraikiz aurretik azaldu den bezala–, erreferentzia gisara Gipuzkoan 2014 eta 2017 urteen bitarteko %7,8ko murrizketa hartu da. GPGBI txostenak azaltzen duenez, 2014 eta 2017 aldian, adierazle hori %5,1 izatetik %4,7 izatera pasa da, hau da, neurri konstanteetan urtez urteko %274ko murrizketa aurreko urte bakoitzaren aldean. Zifra horiek oinarri izan ondoren, beraz, 2017 urtetik aurrerantzean urtez urteko %2,7ko bariazioari dagokion gizarte-bazterketaren tasaren murrizketa bat.

Bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen tasari dagokionez, alde batetik, 2016-2021 aldirako intzidentzia-maila mantendu egingo omen da. 2014-2016 aldian behatutakoan oinarritzen da kalkulu hori (haien artean zorrotz konpara daitezkeen datuei dagokienean), baina baita ere atzerriko jatorria duten immigrazio-fluxuak ez direla beheratuko aurreikusita; eta bereziki, lagundu gabeko adingabe atzerritarren kasuan.

Aurretik definitu izandako hasierako egoera eta planteatutako eboluzio-hipotesiak aintzat hartuz, 31.200 bat biztanletan kuantifikatu da bazterkeria-arloan bildutako zerbitzuen eskaria, eta haietatik 30.500 baino zenbait gutxiagok gizarte-bazterketa egoerak bizi ditzake 2021 urtean, eta 700 inguruk bizitegi-bazterketa larriko egoerak.

26. Taula. Gizarte-bazterkeria larriko eta bizitegi-bazterketa larriko egoerek kaltetutako pertsonen tasa eta zenbatekoa, adin-taldeen arabera. Gipuzkoa 2016/17-2021.

	Gizarte-bazterketa larria		Bizitegi-bazterketa larria		Guztizkoa	
	Tasa (%)	Pertsonen zenbatekoa	Tasa (%)	Pertsonen zenbatekoa	Tasa (%)	Pertsonen zenbatekoa
2016/17	4,7	33.273	0,102	734	4,8	34.007
2021	4,2	30.407	0,102	738	4,3	31.145

Iturria: azterlan desberdinetako datuak oinarri hartutako lanketa propioa.

27. Taula. Adierazle sozioekonomiko desberdinen bilakaera. Gipuzkoa 2008-2017

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Laneko merkatuaren adierazleak										
Okupazio-tasa[1]	55,4	52,7	52,3	52,2	50,6	50,3	50,3	50,2	50,5	51,3
16 urte eta gehiagoko pertsona landunak[1]	328.000	312.900	309.100	309.000	299.700	297.800	297.800	297.900	300.700	306.200
Langabezia-tasa	3,3	6,5	7,4	8,2	8,9	12,5	13,9	13	11	8,9
16 eta urte gehiagoko pertsona langabetuak[1]	11.200	21.700	24.700	27.600	29.300	42.500	48.200	44.400	37.000	29.900
Langabezia-tasa (IV. Hiruhilekoa)[2]	6,74	9,15	7,67	10,86	13,24	13,8	14,05	10,16	9,95	8,43
Erregistratutako langabezia[3]	30.059	38.494	39.449	41.133	47.688	46.612	46.007	41.335	36.965	30.059
Lan-kontratu mugagabeko langileak (%)[1]	74,0	75,7	76,1	74,9	76,5	78,0	74,3	72,1	72,1	71,0
Langileen urteko batezbesteko irabaziak (2008ko oinarriko euro konstanteak)[4]	27.897	28.483	28.469	27.381	26.933	26.888	27.703	27.571	--	--
Urteko batezbesteko irabazien genero-arraila	-%23,0	-%22,1	-%23,6	-%23,9	-%25,8	-%25,2	-%24,0	-%24,3	--	--
Adierazle makroekonomikoak										
BPG (2008ko oinarriko euro konstanteetan)[5]	24.688,0	23.140,5	23.543,9	22.926,1	22.140,8	21.532,1	21.936,8	22.667,9	23.367,1	--
Biztanle bakoitzeko BPG (euro korronteetan))[5]	35.215	32.791	33.289	32.308	31.092	30.165	30.674	31.622	32.552	--
KPIaren urteko bariazioa[6]	4,2	0,2	1,5	3	2,3	1,6	0,2	-0,1	0	1,9
Pobreziari eta gizarte-bazterketari buruzko adierazleak										
Lan-intentsitate apaleko etxebizitzetako pertsonen tasa (EAE)[7]	6,5	5,5	8,8	9,7	11,0	13,0	12,1	14,3	13,6	--
Gabezia material larriko tasa (EAE)[8]	2,8	3,4	2,1	4,0	2,1	4,8	4,8	4,6	4,2	--
Pobrezia edo gizarte-bazterketa arriskuko tasa (EAE)[9]	13,9	14,8	16,3	18,9	17,7	16,8	15,3	17,6	15,9	--
Mantentze-pobrezia (Gipuzkoa)[9]	3,9	--	--	--	6,3	--	6,6	--	5,1	--
Egiazko pobrezia (Gipuzkoa)[9]	2,5	--	--	--	3,8	--	4,2	--	4,0	--
Prestazio ekonomiak jasotzen dituzten pertsonak										
Langabezia-prestazioak. Kontribuzio-mailaren araberako estaldura[10]	17,0	18,0	24,6	22,4	19,8	20,1	18,7	17,9	16,8	--
Langabezia-prestazioak. Arreta-mailaren estaldura[10]	1,0	1,0	1,4	1,8	1,6	2,0	2,3	2,4	2,2	--
Langabezia-prestazioak. Gizarteratzerako Errenta Aktiboa (RAI)[10]	55,4	65,3	69,7	63,3	57,4	58,5	51,6	47,6	45,5	--
Langabezia-prestazioak. Guztizko estaldura[10]	17,9	23,8	25,2	27,3	26,0	30,2	33,3	36,5	40,7	--
Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren estaldura (titularrak 100 biztanleko)[11]	0,77	1,30	1,40	1,58	1,74	1,97	2,14	2,10	2,10	--

Iturriak: **(1)** EUSTAT. Jardueraren Araberako Biztanleria. JAB. **(2)** INE Biztanleria Aktiboaren Inkesta. EPA. **(3)** LANBIDE. Urte bakoitzeko IV. Hiruhilekoari dagozkien datuak. **(4)** INEko datuak oinarri hartutako lanketa propioa. Soldata Egituraren Inkesta. EAE osorako datuak. **(5)** EUSTAT. Kontu Ekonomikoak. **(6)** INE Kontsumorako Prezioen Indizea. **(7)** EUROSTAT**.** EU-SILC (European Union Statistics on Income and Living Conditions). Adierazle honek, biztanleria osoaren arabera, lan-intentsitate apaleko etxebizitzetan bizi den 0 eta 59 urte bitarteko pertsonen proportzioa adierazten du. Haien lanerako ahalmenetik %20 baino gutxiago lan egindako 18 eta 59 urteen bitarteko etxebizitzetako pertsonak maila horretan daudela ulertzen da. **(8)** EU-SILC**.** Zailtasun ekonomikoen ondorioz, 9 itemeko zerrenda batetik 4 item eskuratzerik ez duten etxebizitzetako pertsonak kontuan hartzen ditu adierazle horrek, adibidez, gutxienez urtean behin oporretara ezin joan izatea, etxebizitza ezin bero mantentzea edota garbigailu baten edo auto baten gabezia. **(9)** Estatistikako Organo Espezifikoa. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei Buruzko 2012 Inkesta **(10)** Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Langabezia-prestazioak. Estatistiken Urtekaria. Urteko batezbestekoa. Erregistratutako langabetuen guztizkoaren arabera kalkulatu dira estaldurak. **(11)** Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua, 2008-2011 aldia. 2012 urtetik aurrerantzeko datuak LANBIDEren bitartez eskuratu dira. Urte bakoitzaren bukaerako titularren zenbatekoaren arabera kalkulatu dira estaldurak.

3. GIZARTE-ZERBITZUETAKO BALIABIDE-SAREAREN EGOKITZAPENA GIPUZKOAKO BIZTANLERIAREN BEHARRETARA: AZTERKETA KUANTITATIBOA

3.1. Sarrera

Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako sarea aztertzea du xede ondorengo atalak, bereziki biztanleriaren premiei eta eskariei erantzuteko ikuspegitik. Ildo horretatik, zerbitzu desberdinen lurraldeko estaldura eta hedakuntza aztertzen da batik bat, eta nagusiki 185/2015 Dekretuak (urriaren 6koa, Gizarte-Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa) eta Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuen Mapak zehaztutako zentroak. Zehatzago esanda, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuen Mapak zehaztutako xede-betekizunak aztertzen dira atal horretan, dela Maparen 5. puntuan zehaztutako kudeaketa-helburuetan, dela zentro desberdinetarako gomendatutako estaldura-betekizunari kontu hartuta, lurralde-hedakuntzarako aproposenentzat jotzen diren lurralde-eremuetan.

Dagokion atalean nabarmentzen den bezala, analisi honek ez du xede 2015-2017ko Gizarte-Zerbitzuen Mapak zehaztutako betekizun-maila ebaluatzea –Zorroko zerbitzu eta zentroentzako berariazko estaldura tasak proposatzeaz gain, eguneko zentroetarako eta bigarren-mailako egoitza-baliabideetarako premiako esku-hartzeak zehazten zituena–, baizik eta 2. atalean eginiko analisiari gehitzea zenbait baliabideren lurralde-hedakuntzari buruzko azterketa, hurrengo Gizarte-Zerbitzuetako Maparen premiak ezagutzeko.

Atal honetako egitura hauxe da:

- Horretarako, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuen sistemaren helmenari buruzko oinarrizko datu batzuk eskaintzen dira, sistemaren osotasunari buruzkoak.
- Azterketa hori egin ondoren, Gizarte-Zerbitzuek artatutako kolektiboei edo kontingentzia desberdinetara orientatutako zerbitzuak eta zentroak analizatzen dira: adinduak eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak, desgaitasunak edo gaixotasun mentalak dituzten pertsonak, babesgabetasuneko egoeran edo arriskuan dauden adingabekoak, gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak, genero-indarkeriaren emakume biktimak.
- Kolektibo bakoitzari buruzko informazioa modu berean egituratzen da:
  - Lehenik, oinarrizko datu batzuk eskaintzen dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko biztanletalde horietako bakoitzera orientatutako zerbitzuak eta zentroak EAEko beste bi lurraldetan dagoen egoerarekin konparatuta.
  - Horren ondoren, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapan kolektibo horientzako zehaztutako helburu-betekizunaren azterketa biltzen da (5. atala). Ez dira Mapan zehaztutako helburu guztiak baloratzen, baizik eta zerbitzu eta zentro desberdinen egituratzearekin, hornidurarekin eta lurralde hedapenarekin harreman zuzena dutenak soilik.
  - Horren ondoren, eta ahal den heinean, lehen-mailako arretarako zerbitzuen eta zentroen lurralde-hedakuntza aztertzen da, 2017 urtean jasotako estaldurak (edo aurreko urteetako datuen eskuragarritasunaren arabera) Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak erreferentzia gisara nabarmendutako datuekin konparatuta. Lortutako estalduren eta erreferentzia gisara ezarritakoen arteko konparazioa bai Lurralde osoa aintzat hartuta bai lurralde-eremuen mailan egiten da (arloa, eskualdea edo sektorea), zentro horien hedakuntzarako apropostzat hartuak direnak. Datu horiek aztertzean, ez dira bete behar aipatutako estaldura horiek guztiak lurralde-eremu horietako bakoitzean, ez behintzat Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuen Mapak edota Euskadiko Mapak zehaztuta. Aitzitik, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak helburu horiek planteatzean –bereziki lehen-mailako arretan–, pro-

posamen gisara eta erreferentziazko osagai gisara planteatu ziren, eremu eta eskualde desberdinetako plangintzarako.

- Horren ostean, bigarren-mailako baliabideen lurralde-hedakuntza aztertzen da. Kasu horretan, zentro desberdinetarako itxarote-zerrendak eta zehaztutako estaldura-helburuen betekizuna aztergai hartzen da, bai Lurralde Historikoetako mailan bai lurralde-eremuaren baitan, zentro bakoitzaren egokitasunaren arabera. Lehen-mailako arretarako zerbitzu eta zentroetarako zehaztutako erreferentzien kasuan bezala, Gizarte-Zerbitzuetako Mapak ez ditu zehazten lurralde-eremu desberdinetarako derrigorrezko estaldurak, baizik eta baliabideak planifikatzean kontuan hartu beharreko argibide batzuk[27].

– Ondorio batzuekin ixten da atala.

Erabilitako datu-iturriei dagokienez, Behagi – Gipuzkoako Gizarte Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoak argitaratutako Gizarte-Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika, eta udal gipuzkoarrek zentro nagusietan eta Gizarte-Zerbitzuetan dituzten plaza-kopuruari buruz jasotako datuak izan dira.

Bi iturburuetatik lehenak 2017 urtera bitarteko oso informazio zehatza biltzen du foru-eskumeneko zerbitzuen inguruan, nahiz eta orokorrean mugatua izan. Bigarren iturriak udal-eskumeneko zerbitzuei buruzko informazioa eskaintzen du, baina datuak berrienak 2015 urtekoak dira, eta betiere ezin dira identifika estatistiketan Gizarte-Zerbitzuetako Mapan zehaztutako zentro eta zerbitzu horiek. Arrazoi horren ildo beretik, udalerri gipuzkoarretako 2018 urteko lehen-mailako arretarako zentroetako eta zerbitzuetako plazei buruzko informazioa erabili da.

Datu-iturri horien erabileraren hein bateko eraginen ondorioz, egindako azterketa honek muga batzuk ditu:

– Berezitasun horietako baten arrazoia bilatzean, egungo baliabide-sarearen dimentsioa ezagutzeko datuek erreferentzia gisara dituzten aldiak desberdinak direla antzeman da. Foru-titularsuneko bigarren-mailako arreta-zerbitzuei buruzko Gipuzkoako Gizarte Behatokiak eskainitako datuak 2017 urtekoak dira, baina udalek eskainitako lehen-mailako arreta-zerbitzuei buruzko datuak urte honetakoak dira, 2018 urtekoak. Bestalde, dokumentu horretan erabilitako datu gehienak, beste Lurraldeekin konparatzea ahalbidetzen dutena, 2015 urteari dagozkio, eta aipatutako Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika horretan dute jatorria.

– Bestalde, ez dira Mapan bildutako zerbitzu eta zentro guztiak aintzat hartu azterketa horretan, baizik eta eguneko zentroak, okupazionalak eta egoitzak, lehen- nahiz bigarren-mailakoak. Edonola ere, etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren estaldurari eta intentsitateari buruzko datu batzuen berri ematen da; gizarte-hezkuntzako esku-hartzeen estaldura, etab.

– Azterketa kolektibo eta kontingentzia desberdinen arabera egituratu arren, eskuratutako informazio hori batzuetan –gehienbat gainerako Lurralde Historikoetakoa– zerbitzuen guztizkoaren arabera egiten da. Arrazoi horren ondorioz, mendekotasun-egoerako prestazio ekonomikoei dagokienez, prestazioen jasotzaileak ezin izan dira desberdindu adinaren arabera.

[27] Ildo horretatik, EAEko Maparen esanean: "*GZESaren unibertsalizazioan aurrera egiteko funtsezko alderdia da zerbitzuak lurraldean hedatzea, bai eta zerbitzu eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea dutenei benetan jasotzeko aukera bermatzea ere (horretan ere badu eragina). Hori, lurralde bakoitzeko (Lurralde Historia izan daiteke, edo bestela, Foru Aldundiak eta Toki Erakundeek jarduten duten bestelako mugape geografikoak) errealitatera egokitzeko egin beharreko egokitzapenak alde batera utzi gabe) eta eraginkortasunaren, baliabideak baliatzearen eta ekimen pribatuarekin lankidetzan jardutearen printzipioei ere erreparatuta arreta-sarearen plangintzan eta hedapenean (ildo beretik, lehendik ere badiren baliabideak baliatuta)".* Ikuspuntu horretatik, testuan nabarmentzen da Maparen plangintza tresna bat dela, eta "*zentroak gaituko direla betiere zentroen behar besteko okupazioa bermatzea ahalbidetuko duten premia eta eskaria baldin badaude*".

- Beste alde batetik, informazio-iturriek eskainitako prestazio eta zentro desberdinen desagregazioa ez da betiere Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehaztua.

Ikuspegi horretatik hartuta, egiazko egoeraren irudi erlatibo bat eskaintzen du itxarote-zerrendari buruzko adierazleak, izan ere, eskaintzaren ezaugarriek (adibidez, koordinaketa, kokapen fisikoa, zerbitzuaren kalitatea, etab.) baldintzatzen baitute egiazko eskaria, eta haren ondoriozko itxarote-zerrenda. Bestetik, egoera errealak erakusten duen bezala, Gipuzkoako Lurralde Historikoko lurralde-eremuetan estaldura estandar bateko tasa bat zehazteak nolabaiteko homogeneotasuna edo oreka ahalbidetzen du baliabideen lurralde-banaketarako, baina ezin du izan arreta-zentroak planifikatzeko kontuan hartu beharreko irizpide bakarra. Horren ondorioz, analisi honek Gizarte-Zerbitzuetako Maparen lehentasunak zehazteko oinarrizko izaera orientatzailea du.

Azkenik, zentroetako eta gizarte-zerbitzuetako lurralde-hedakuntza aztertzeko diagnostiko honetan erabilitako sailkapenari buruz zehaztapen metodologiko bat egin behar da. Orokorrean, dokumentu honetan eremu, eskualde eta sektoretan antolatu dira udalerrien elkartzeak, 2015-2017 aldiko Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapan zehaztutako moduan. Hala eta guztiz ere, bi aldaketa txiki hartu dira kontuan.

- Errezileko eta Beizamako udalerriak Iraurgiko eremura eta Urola Kostako eskualdera adskribatu zituen 2015-2017 aldiko Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuen Mapak, baina azterketa honek Tolosaldeara (eremura eta eskualdera) adskribatuta hartzen du, egungo egoerari dagokion moduan.

- Bestalde, eskualdeko lurralde-eremu desberdinei dagozkion estaldurak aztertutako aldi orotan, informazioa 9 eskualdetan bereiztea erabaki da; Gipuzkoako Mapak hasieran aurreikusitako 7 eskualdeen aldean. Sailkapen berri horretan, Donostialdeako eskualdea (egungo biztanleriaren %46 biltzen duena) Donostiako, Oarsoaldeako eta Buruntzaldeako 'eskualdeetan' bereiztu da.

3.2. Gipuzkoako gizarte-zerbitzuak: osotasunetik egindako eboluzio- eta konparazio-ikuspegia

3.2.1. Artatutako biztanleria

2015 urtean, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzu guztien artean 38.100 bat biztanle artatu zituzten, baina betiere ondoko hauek kontuan hartuta: egoitza-zentro, eguneko arreta-zentro eta zentro okupazionaletako plazak; etxez etxeko laguntza-zerbitzuetako erabiltzaileen eta mendekotasun-prestazio desberdinetako jasotzaileen zenbatekoak; eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) jasotzaileak. Datu horrek izaera orientatzailea besterik ez eskaini arren[28], Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuen ekintza-gaitasuna azaleratzen du, baita azken urteotan izandako bilakaera ere. Taulan ikus daitekeen bezala, 2008 eta 2015 urteen bitarteko erabiltzaile- edo plaza-kopurua 27.000 izatetik 38.100 izatera pasa da zenbaki borobiletan, hau da, %41eko hazkundea. Datuen arabera, gainera, mendekotasun-prestazioen hedakuntzagatik gertatzen da hazkunderik handiena, baina bestelako zerbitzu batzuk hazi egin dira, adibidez, egoitza-plazak edota eguneko arretarako plazak, %13 eta %17, hurrenez hurren.

[28] Alde batetik, ez dira kontuan hartzen zerbitzu desberdinetako erabiltzaileak, adibidez, gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartze-zerbitzuetako foru- eta udal-programak, edo Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuetara jotzen duten biztanleak. Bestalde, zerbitzu eta zentro horietako pertsona erabiltzaile desberdinak ez dira aintzat hartzen, izan ere, pertsona edo familia batek aldi berean erabil baititzakete baliabide horiek.

28. Taula. Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako zerbitzu eta prestazio desberdinetako plaza- eta erabiltzaile-kopuruaren bilakaera (2008-2015)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2008-15 Δ (%)
Egoitza-zentroak [1]	7.471	8.147	8.329	8.350	8.487	8.344	8.421	8.469	13,4%
Eguneko laguntzako zentroak [1]	2.184	2.335	2.485	2.467	2516	2571	2570	2563	17,4%
Zentro okupazionalak [1]	890	929	905	914	777	871	753	863	-3,0%
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua [2]	5.856	5.853	5.517	5.510	5.288	4.904	4.927	5.041	-13,9%
Mendekotasun-prestazio ekonomikoak [3]	4.533	8.321	9.777	11.482	11.299	11.447	11.678	13.755	203,4%
Gizarte Larrialdietako Laguntzak [4]	6.102	9.198	5.597	5.008	6.502	6.393	7.092	7.431	21,8%
Guztizkoa	27.036	34.783	32.610	33.731	34.869	34.530	35.441	38.122	41,0%

(1) Plazak; (2) Urtean zeharreko pertsona erabiltzaileak; (3) Pertsona jasotzaileak urte bakoitzeko abenduaren 31n; (4) Urtean zeharreko jasotzaileak diren bizikidetza-unitateak.

Iturriak: Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistika. Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza; Foru Aldundiak; Gizarte-Zerbitzuetako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

Artatutako biztanleriaren ehunekoari dagokionez, Gizarte-Zerbitzu gipuzkoarrek 1.000 biztanleko 53,2 biztanle artatuko lituzkete, hau da, biztanleriaren %5,3. Bizkaiko estaldura baino pixka bat altuagoa da eta Arabakoa baino pixka bat apalagoa, gehienbat, egoitza-plazetako eta Gizarte Larrialdirako Laguntzen estaldura apalagoagatik.

29. Taula. Gizarte-Zerbitzuetako zerbitzu eta prestazio desberdinen estaldura (1.000 biztanleko), Lurralde Historikoaren arabera (2015)

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Zenbatekoa	Estaldura (%)	Zenbatekoa	Estaldura (%)	Zenbatekoa	Estaldura (%)	Zenbatekoa	Estaldura (%)
Egoitza-zentroak [1]	4.517	13,96	14.204	12,36	8.469	11,81	27.190	12,42
Eguneko laguntzako zentroak [1]	988	3,05	2.877	2,50	2.563	3,58	6.428	2,94
Zentro okupazionalak [1]	469	1,45	1.455	1,27	863	1,20	2.787	1,27
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua [2]	3.046	9,41	7.493	6,52	5.041	7,03	15.580	7,12
Mendekotasun-prestazio ekonomikoak [3]	4.688	14,48	13.537	11,78	13.755	19,19	31.980	14,61
Gizarte Larrialdietako Laguntzak [4]	4.503	13,91	19.002	16,54	7.431	10,37	30.936	14,13
Guztizkoa	18.211	56,27	58.568	50,98	38.122	53,18	114.901	52,48

(1) Plazak; (2) Urtean zeharreko pertsona erabiltzaileak; (3) Pertsona jasotzaileak urte bakoitzeko abenduaren 31n; (4) Urtean zeharreko jasotzaileak diren bizikidetza-unitateak.

Iturriak: Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistika. Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza; Foru Aldundiak; Gizarte-Zerbitzuetako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

3.2.2. Langileak

Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuen arloko langileen zenbatekoa 10.500 eta 13.300 langile bitartekoa da, langile izatearen definizioaren eta erabilitako datu-iturrien arabera. Ikuspegi ebolutibo batetik, dela Eusko Jaurlaritzako Gizarte-Zerbitzuen Estatistikak aintzat hartuta, dela Gizarte Segurantzako afiliazio-datuak aintzat hartuta, sektore horretan jarduten duten langileen hazkunde garrantzitsu bat adierazten dute, azken urteotan zehar %27tik %32 izatera pasa dena.

30. Taula. Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako eremuko langileen zenbatekoaren bilakaera iturri desberdinen arabera (2008-2016)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2008-15 Δ (%)
Batezbesteko langileak (ESSEC)	10.509	11.298	11.518	11.416	11.460	12.180	12.908	13.347	–	27,0
Gizarte Segurantzako afiliatuak	–	9.301	9.821	9.743	9.834	10.690	11.252	11.606	12.327	32,5
Landunak (EPA)	12.400	10.800	15.500	9.000	9.100	9.800	11.100	10.500	–	-15,3

Iturriak: Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistika. Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza; Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia. Urte bakoitzeko abenduko afiliazio-datuak; INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta (INE). II. Hiruhilekoko datuak.

Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako arloan mila biztanleko 14 eta 18 bitarteko zenbatekoak lan egiten du, hautatutako informazio-desberdinen arabera aldatzen den datua. Ikuspegi konparatu batetik, 2015/2016 aldiari dagozkion datuek azaltzen dutenez, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako okupazio-maila EAE osokoa baino erlatiboki handiagoa da.

31. Taula. Gizarte-Zerbitzuen arloan lan egiten duten pertsonen zenbatekoa (1.000 biztanleren arabera), Lurralde Historikoaren arabera, informazio-iturri desberdinen arabera. EAE 2015-16

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Batezbesteko langileak. Erakundeak eta Zentroak (2015)	18,0	15,7	18,6	17,0
Gizarte Segurantzan afiliatuak (2016)	18,2	13,3	17,2	15,3
Pertsona landunak. EPA (2015)	12,7	9,7	14,6	11,8

Iturriak: Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistika 2015. Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza; Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia. 2016 urteko afiliazio-datuak; INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta (INE). 2015eko III. Hiruhilekoko datuak; INE. Udal-errolda Jarraituko Estatistika.

3.2.3. Gizarte-Zerbitzuetako gastu publikoa

2015 urtean, Gipuzkoako instituzio publikoek 349 milioiko diru-kopurua bideratu dute −487 euro biztanleko− egoitza, zerbitzu eta prestazioak ordaintzera, Gizarte-Zerbitzuetako Estatistikaren arabera Gizarte-Zerbitzuetako muinean daudenak[29], eta Gizarte-Zerbitzuetako Legeak zehaztutako prestazioekin pareka daitezkeenak. 2012 urtetik, Gizarte-Zerbitzuen muinaren gastua %4,7ko ehunekoan hazi da.

[29] Gizarte-Zerbitzuetako nukleoaren kontzeptu hori ia erabat dator Gizarte-Zerbitzuetako Zorroaren egiturarekin, baina ez du derrigorrez era absolutu batean izan beharrik. Zehazki, Gizarte-Zerbitzuen nukleokoak dira:
(1) Gizarte-Zerbitzuetako egitura orokorreko zerbitzuak edo Gizarte-Zerbitzuetako eskumenak dituzten erakunde publikoetako zerbitzu garrantzitsuenak. (2) Gizarte-Zerbitzuetako berariazko egiturako zerbitzuak. Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuak, gizarte-larrialdietako zerbitzuak eta Gizarte-Zerbitzuetako teknikari espezializatuak. (3) Zentro eta zerbitzu guztiak, egoitzetako nahiz bestelakoak direnak, ondoko kolektiboen artarako bideratuak direnak: pertsona adinduak, desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonak, gazteak eta familiak, arrisku-egoeran dauden emakumeak (genero-indarkeriagatik, tratu txarrengatik edo bestelako gizarte-arazoen ondorioz); eta gizarte-bazterketa egoeran dauden beste biztanle batzuk. (4) Mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzako berariazko programak: etxez etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileentzako laguntza. Familia-arretarako eta

32. Taula. Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako nukleoko gastu publiko korrontearen bilakaera (2012-2015)

	2012	2013	2014	2015	2012-15 Δ (%)
Gastua milaka eurotan	333.234	326.125	353.145	349.124	4,77%
Biztanleko gastua eurotan	468,0	456,9	493,8	487,0	4,08%

Iturriak: Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistika. Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza; INE. Udal-errolda Jarraituko Estatistika.

Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, zentroetara eta zerbitzuetara bideratzen da gastuaren ia %61, eta zehatzago esanda, adineko pertsonentzako zentroetara eta zerbitzuetara %34,8. Zentroetako eta zerbitzuetako guztizko gastuaz gain, prestazio ekonomikoetako gastua gehitu beharko litzateke (Gizarte-Zerbitzuetako guztizko gastu publikoaren %14,5), eta gehienbat mendekotasun-prestazioetara bideratutakoa (biztanleko 70,2 euro).

33. Taula. Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako nukleoaren gastu korrontea (2015)

	Gastua (milaka eurotan)	Gastua (euro/biztanleko)	Banaketa (%)
Egituraren guztizko gastua	**49.232**	**68,7**	**14,1%**
- Egitura orokorra	18.993	26,5	5,4%
- Berariazko egiturak	30.239	42,2	8,7%
Zentroetako eta zerbitzuetako guztizko gastua	**212.507**	**296,5**	**60,9%**
- Adineko pertsonak	121.563	169,6	34,8%
- Desgaitasun/gaixotasun mentala duten pertsonak	49.553	69,1	14,2%
- Haurrak, gazteak, familiak, emakumeak	27.364	38,2	7,8%
- Gizarte-bazterketa	14.027	19,6	4,0%
Prometako guztizko gastua	**36.842**	**51,4**	**10,6%**
- Mendekotasun-programak	22.393	31,2	6,4%
- Familia-programak eta beste batzuk	14.449	20,2	4,1%
Prestazioetako guztizko gastua	**50.542**	**70,5**	**14,5%**
- Mendekotasun-prestazioak	50.351	70,2	14,4%
- Bestelako prestazioak	192	0,3	0,1%
Nukleoaren guztizkoa	**349.124**	**487,0**	**100,0%**

Iturria: Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistika. Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza.

Ikuspegi konparatiboari helduz gero, Gizarte-Zerbitzuetara bideratutako gastu publiko gipuzkoarra arabarraren eta bizkaitarraren tartean kokatzen da, EAEko adineko pertsonentzako, haurtzaroarentzako, familientzako eta emakumeentzako eta gizarte-bazterketarako zentroetako eta zerbitzuetako, batezbesteko gastua baino altuagoa dena; eta gehienbat mendekotasun-prestazio ekonomikoetan.

genero-indarkeriaren emakume biktimen aldeko programa espezializatuak: genero-indarkeriako edo tratu txarren arazoak pairatutako pertsonentzako arreta-zerbitzuak (SATEVI barne), familia-harrera, adopzioa eta familia-esku-hartzeko programa guztiak. (6) Mendekotasun-prestazio ekonomikoak. (7) Gizarte-Zerbitzuetako nukleoaren berariazko bestelako prestazioak, genero-indarkeriako edo tratu txarretako arazoak dituzten pertsonentzako prestazio ekonomikoak kontuan hartuta.

34. Taula. Gizarte-Zerbitzuetako nukleoaren biztanleko gastu publiko korronte, Lurralde Historikoaren arabera. EAE 2015

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Egituraren guztizko gastua	**92,6**	**75,7**	**68,7**	**75,9**
- Egitura orokorra	22,6	34,7	26,5	30,2
- Berariazko egiturak	70,0	41,0	42,2	45,7
Zentroetako eta zerbitzuetako guztizko gastua	**369,4**	**249,9**	**296,5**	**282,8**
- Adineko pertsonak	217,0	130,1	169,6	155,9
- Desgaitasun/gaixotasun mentala duten pertsonak	83,2	76,8	69,1	75,2
- Haurrak, gazteak, familiak, emakumeak	48,0	28,2	38,2	34,4
- Gizarte-bazterketa	21,2	14,8	19,6	17,3
Prometako guztizko gastua	**59,2**	**54,4**	**51,4**	**54,1**
- Mendekotasun-programak	42,7	37,0	31,2	36,0
- Familia-programak eta beste batzuk	16,5	17,3	20,2	18,1
Prestazioetako guztizko gastua	**44,2**	**41,4**	**70,5**	**51,4**
- Mendekotasun-prestazioak	43,4	41,0	70,2	50,9
- Bestelako prestazioak	0,8	0,4	0,3	0,4
Nukleoaren guztizkoa	**565,4**	**421,4**	**487,0**	**464,2**

Iturria: Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistika. Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza.

Gizarte-Zerbitzuetako muinera bideratutako gastu publikoaren finantza-iturriei dagokienez, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2015 urtean biztanleko 364,5 euroko ekarpena egin zuen –Arabakoak baino %8 gutxiago eta Bizkaikoak baino %22 gehiago–, eta udalerrietako ekarpena, hiru lurraldeen artetik apalena, biztanle bakoitzeko 63,2 eurokoa da. Horren ondorioz, foru-administrazioak Gizarte-Zerbitzuen %85 finantzatzen du Gipuzkoan, Arabako %78 eta Bizkaiko %80aren aldean.

35. Taula. Gizarte-Zerbitzuetako nukleoko Foru Aldundietako eta udaletako gastu publiko korrontea, Lurralde Historikoaren arabera. EAE 2015

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Foru Aldundietako gastua	128.147	343.124	261.319	732.591
Udaletako gastua (milaka eurotan)	36.558	85.188	45.301	167.046
Foru Aldundietako biztanleko gastua	395,9	298,7	364,5	334,6
Udaletako gastua biztanleko	113,0	74,2	63,2	76,3
Foru Aldundietako finantzazioaren %	%77,8	%80,1	%85,2	%81,4
Udalen finantzazioaren %	%22,2	%19,9	%14,8	%18,6
Biztanleko guztizko gastua (Foru Aldundiak eta udalak)	508,9	372,8	427,7	410,9

Taula honetako datuek ez dute kontuan hartu autonomia-erkidegotik gorako erakundeek edo Eusko Jaurlaritzak eginiko gastua.
Iturria: Gizarte-Zerbitzuetako Estatistika. Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza.

3.3. Mendekotasun-egoeran edo arriskuan dauden adineko pertsonentzako zerbitzuak

3.3.1. Sarrera

Epigrafe honetan, Gipuzkoako adineko pertsonei bideratutako zerbitzuen eta zentroen hornidura eta lurralde-hedakuntzari buruzko datuak biltzen dira. Atal honetako sarreran esan bezala, egindako analisirako datu-iturri nagusiak Gipuzkoako Gizarte Behatokia (behagi.eus) eta Enpleguko eta Gizarte-Zerbitzuetako Sailaren Estatistikako Organoak landutako Gizarte-Zerbitzuetako Inkesta izan dira. Bestetik, azterketa Mapan aurreikusitako zerbitzu eta zentro desberdinei buruzko informazioa eskaintzen saiatu da, lehen- nahiz bigarren-mailako arretarako arloan, eta eskuragarri dauden datuengatik, berariaz zentratu da Zorroko ondoko zentroetan eta zerbitzuetan:

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua (1.2)
- Adineko pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzuak (1.7)
- Adineko pertsonentzako ostatu zerbitzuak (1.9.3 eta 1.9.4)
- Adineko pertsonentzako eguneko zentroak (2.2.1)
- Adineko pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.1)

Epigrafe honetan, lehenik eta behin, Gipuzkoako adineko pertsonentzako Gizarte-Zerbitzuen ikuspegi osatu bat eskaintzen da, Gizarte-Zerbitzuetako Estatistika erabilita, eta beste bi Lurralde Historikoetan erregistratutako adierazleak gipuzkoarrekin alderatuta. Lehen analisi horren ondoren, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako ebaluazio-adierazleen betekizun-maila ebaluatzen da, adineko pertsonekin edo/eta mendekotasun-egoeran dauden zuzenekoenak diren osagaiei dagokienean. Hurrengo bi ataletan adineko pertsonentzako zerbitzuen eta zentroen lurralde-hedakuntza aztertzen da:

- Lehen-mailako zentroen analisia adineko pertsonentzako ostatu-zerbitzuetan eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuan zentratzen da. Azken horren kasuan, informazio hori Gipuzkoako Gizarte Behatokitik bildu da; eta ostatu-zerbitzuei buruzkoa 2015eko Gizarte-Zerbitzuei buruzko Inkestatik. Gizarte-Zerbitzuen Mapako zehaztasunen arabera, eremu- edo azpieskualde-mailan egiten da estalduraren analisia.
- Bigarren-mailako arreta-zentroei buruzko analisia ere eremu-mailan eskaintzen da, eta adineko pertsonentzako eguneko zentroetan eta egoitza-zentroetan zentratzen da, dela zentro horietako itxarote-zerrendei dagokienez, dela eremu edo azpieskualde bakoitzean jasotako estaldura-tasei dagokienez. Gipuzkoako Gizarte Behatokitik bildu da informazio hori guztia, eta 2017 urtera arte eguneratuta dago.

3.3.2. Gipuzkoako adineko pertsonentzako Gizarte-Zerbitzuak konparazio-ikuspegitik

Gizarte-Zerbitzuetako Estatistikak eskainitako datuen arabera, 2015 urtean 5.245 egoitza-plaza zeuden Gipuzkoako adineko pertsonentzat (plaza publikoak eta hitzartuak kontuan hartuta), eta biztanleria horrentzako finantzazio publikoko 1.601 plaza eguneko egoitzetan. Horretaz gain, etxez etxeko laguntza-zerbitzuko 4.500 erabiltzaile baino gehiago erregistratu zituzten urte osoan zehar. Plaza horiek eta erabiltzaileen zenbatekoa batuz gero, 65 urtez gorako biztanleriaren %7,5 da. Bizkaikoa baino (%6,1) estaldura-tasa altuagoa da, baina Arabakoa baino nabarmen apalagoa (%9,5). Pertsona horietaz gain, mendekotasun-prestazioetako jasotzaileak diren 10.751 adineko pertsona gehitu behar dira[30], artatutako pertsonen zenbatekoaren eta eskuragarri dauden plazen guztizkoa 22.012 izatera iristeko.

[30] Eskuragarri dauden hiru Lurralde Historikoei buruzko datuen araberako bereizketarik ezin da egin 65 urte eta gehiago dituzten mendekotasun-prestazioaren jasotzaileen artean, eta horren ondorioz, prestazio horietako jasotzaile guztien zenbatekoa hartu

36. Taula. Adineko pertsonentzako plazen eta erabiltzaileen zenbatekoa, Lurralde Historikoaren arabera. EAE 2015

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Egoitza-plazak (publikoak edo pribatu hitzartuak)	2.003	6.794	5.245	14.042
Eguneko zentroetako plazak (publikoak edo pribatu hitzartuak)	1.328	1.683	1.601	4.612
Etxez etxeko laguntza-zerbitzuko adineko pertsona erabiltzaileak urtean zehar	2.663	6.693	4.415	13.771
Mendekotasun-prestazio ekonomikoen jasotzaileak, abenduaren 31n	4.688	13.537	13.755	31.980
- ZLPE – Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa	701	700	116	1.517
- FIZPE – Familia Inguruko Zaintzarako Prestazio Ekonomikoa	3.879	12.769	10.397	27.045
- LPPE – Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa	108	68	3.242	3.418
Guztizkoa (plazak eta erabiltzaileak eta jasotzaileak)	10.682	28.707	25.016	64.405

Oharra: informazioa adineko pertsonentzako zentroei eta zerbitzuei buruzkoa da, prestazio ekonomikoen kasuan salbu, izan ere, jasotzaileen guztizkoari buruzkoak baitira datu horiek.

Iturria: Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistika. Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza; Foru Aldundiak.

Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, egoitza publikoen eta pribatu-hitzartuen estaldura gipuzkoarra batezbestekoa baino altuagoa da, baina eguneko zentroetako eta EELZko estaldura EAEko batezbestekoaren parekoa da. Bestetik, prestazio ekonomikoen estaldura altuagoa da Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoek lurraldean duten hedakuntzagatik, eta Familia Ingurunean Zaintzeko Prestazio Ekonomikoaren irismen altuagoagatik ere. Hori dela eta, prestazio ekonomikoei dagokienez, zuzeneko arreta-zerbitzuek eskainitako arreta Gipuzkoan eskainitako guztizko arretaren ehunekorik baxuena biltzen dute.

37. Taula. Adineko pertsonentzako 65 urte eta gehiagoko 100 biztanleko estaldurak, Lurralde Historikoaren arabera. EAE 2015

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Arta zuzenaren estaldura	9,49	6,10	7,48	7,01
- Egoitza-plazak (publikoak eta hitzartuak)	3,17	2,73	3,48	3,04
- Eguneko zentroetako plazak (publikoak eta hitzartuak)	2,10	0,68	1,06	1,00
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuko adineko pertsona erabiltzaileak urtean zehar	4,22	2,69	2,93	2,98
Mendekotasun-prestazioen estaldura abenduaren 31n	7,42	5,44	9,13	6,91
- ZLPE – Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa	1,11	0,28	0,08	0,33
- FIZPE – Familia Inguruko Zaintzarako Prestazio Ekonomikoa	6,14	5,13	6,90	5,85
- LPPE – Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa	0,17	0,03	2,15	0,74
Guztizko estaldura (arta zuzena eta prestazioak)	16,91	%11,54	%16,61	%13,93
Arta zuzeneko %	%56,1	%52,8	%45,0	%50,3
Prestazio ekonomikoen %	%43,9	%47,2	%55,0	%49,7
Guztizkoaren aldeko egoitzen %	%18,8	%23,7	%21,0	%21,8

Oharra: informazioa adineko pertsonentzako zentroei eta zerbitzuei buruzkoa da, prestazio ekonomikoen kasuan salbu, izan ere, jasotzaileen guztizkoari buruzkoak baitira datu horiek.

Iturria: Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistika. Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza; Foru Aldundiak; INE. Udal-errolda Jarraituaren Estatistika.

da aintzat. Gipuzkoako kasuan, 2015 urteko abenduaren 31n erregistratutako jasotzaileen zenbatekoa 13.755 pertsonetara iritsi zen; eta 65 urte eta gehiagoko adina zuten 10.751 pertsonek.

3.3.3. Adineko pertsonen eta/edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arloan Mapak zehaztutako helburuen betekizun-maila

Sarreran aipatu bezala, adineko pertsonentzako eta/edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehaztutako arreta-zerbitzuekin zuzenean erlazionatutako hornidurarekin eta hedakuntzarekin zerikusia duten helburuak hautatu dira azterlan honetarako.

1) **Itxarote-zerrendak murriztu eta zerrenda teknikoen mailan mantendu (1.5).** Helburuen artetik lehenean, eta zehatzago, adineko pertsonentzako egoitza-arretari dagokionean, ezin da esan aurreikusitako helburua bete denik. Izan ere, adierazle horren hazkunde nabarmena gertatu baita azken urteotan, 2013 urtean 98 biztanle izatetik, 2016 urtean 377 izatera. Aitzitik, eguneko zentroei dagokienean hobekuntza gertatu da, eta haren ondorioz, zehaztutako xedea.

2) **Itxarote-zerrendetako batezbesteko astia murriztea (3.1).** Egoitza-zentroei dagokienez,

3) **Mendekotasun-egoeran dagoen biztanleriaren egungo estalduraren % 2017 urtean mantentzea (1.6).** Mendekotasun-egoeran dagoen biztanleriaren estaldura-tasak mantentzeari dagozkien datuen arabera, mendekotasun-egoeran dagoen biztanleriaren %81,7k Gizarte-Zerbitzuetako Zorroan zehaztutako prestazio edo zerbitzuren bat jasotzen du 2013 urteko %73,9aren aldean, 2017 urterako xede gisara planteatu zena. Proposatutako helburuak erraz gainditu dituzte bai gizonek (%80,6) bai emakumeek (%82,3).

4) **2 eta 3 graduetako mendekotasun-egoeran dauden artatutako pertsonen % haztea (1.7).** Hazkuntza gertatu arren, ez da iritsi 2 eta 3 graduetarako zehaztutako helburuen ehunekoa betetzera, 2013 urtearen amaieran %88 izatetik, 2017 urtean %90,1 izatera pasa dena. Hala ere, ezarritako xedea lortzeko sei ehunen falta dira bakarrik (%90,7).

5) **Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoen (LPPE) bitartez laguntza pertsonala haztea (1.8).** Oso nabarmen eta gradualki, LPPEn garrantzia ere hazi egin da LPPEk eta Etxekoek Pertsona Zaintzeko Prestazio Ekonomikoek duten garrantziaren artetik; eta 2013 urte bukaeran %16,5 izatetik, 2016 urtean %33,2 izatera pasa da, hau da, hasieran zehaztutako %22koa erraz bete duena.

6) **Gaur egun artatzen den premia gabeko eskaria murriztea (2.2).** 2017 urtean ez da lortzerik izan Gizarte-Zerbitzuetako sisteman mendekotasun-gradu apala duten (Mendekotasunaren Balorazio Baremoaren %25 baino gutxiago) artatutako pertsonen zenbatekoa gutxienez %8an murrizteko helburua. 2017 urtean jasotako ehunekoa (%9,4) proposatutako helburutik urruti geratu da (%8), eta 2013 urtean jasotako proportzioa baino ia altuagoa da (%9,1).

7) **Eskatzen ez diren zerbitzuen eskaintza murriztea (2.3).** Gai honi dagokionean, eskatu gabeko zerbitzu-eskaintza murriztea hartu zen xede gisara, eta hori lortzeko zerbitzu mota bakoitzari buruzko okupazio-tasak hartzen dira kontuan. Datuen arabera, adineko pertsonentzako eguneko zentroen kasuan, %93,6 izatetik %94,6 izatera pasa da, eta adineko pertsonentzako egoitza-zentroak %97,7 izatetik %98,7 izatera. Bi kasuetan ere, 2016 urtean, adierazlea zehaztutako helburutik oso gora kokatzen da.

8) **Arreta-premia duten adineko pertsonak beraien etxebizitzetan segitu ahal izatea erraztea (3.3).** Aurkeztutako eskaintzari erantzuteko gaitasunaz gain, eskaintza horren ezaugarriak balioetsi beharra dago. Ikuspegi horretatik, Mapak zehaztutako helburu nagusietako bat da arreta-premia duten adineko pertsonak etxebizitza propioan segitu ahal izaten laguntzea. Horretarako, zerbitzu guztietan artatutako guztizko adineko pertsonen baitan, haien etxebizitzetan bizi diren 65 urte eta gehiago dituzten artatutako pertsonen ehunekoa ezartzen da adierazle gisara. 2013 urte bukaeran, %71,85ekoa zen ehuneko hori, eta 2017 urtera arte %76,2 hazi dena; ezarritako %75eko xedea gainditua.

38. Taula. Adineko pertsonentzako eta/edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak aurreikusitako adierazleen betekizun-maila 2013/2017

Helburu operatiboak eta adierazleak		2013	2014	2015	2016	2017	Helburua	Betekizuna
1.5. Itxarote-zerrendak murriztu eta zerrenda teknikoen mailan mantendu (*adierazlea: itxarote-zerrendaren eta zerrenda teknikoaren arteko aldea)*	Egoitzak	98	225	297	419	377	74	✗ -303
	Eguneko zentroak	46	77	44	58	0	32	✓
Itxarote-zerrendan dauden pertsonen batezbesteko itxaronaldiak murriztea (*adierazlea: izena eman eta egoitzan hartzetik batezbesteko egunak urte batean)*	Egoitzak	64	73	78	99	116	50	✗ -66
	Eguneko zentroak	51	47	53	50	43	45	✓
1.6 2017 urtean egungo mendekotasun-egoeran dagoen biztanleriaren estaldura mantendu (*adierazlea: artatutako pertsonen %)*	Guztizkoa	73,9	73,9	78,2	80,5	81,7	73,9	✓
3 eta 2 graduko mendekotasunagatik artatutako pertsonen % hazi (*adierazlea: artatutako pertsonen %)*	Guztizkoa	88,0	88,4	87,6	89,1	90,1	90,7	✗ -0,6
1.8 LPPE bitartezko laguntza pertsonala hazi (*adierazlea: LPPEko jasotzaileen % FIZPE eta LPPE laguntzen arabera)*	Guztizkoa	16,5	21,5	23,7	31,1	33,2	22,0	✓
Premiazkoa ez den gaur egun artatzen den eskaria murriztu (*adierazlea: Mendekotasun-zerbitzuetan MBBko <25 puntuko balorazioa duten pertsonen % mendekotasun-zerbitzuaren guztizkoaren arabera*	Guztizkoa	9,1	9,0	8,2	7,7	9,4	8,0	✗ -1,4
Eskatu gabeko zerbitzuen eskaintza murriztea *(adierazlea: landunen ehunekoa)*	Egoitzak	97,7	99,1	98,9	98,6	98,7	92,0*	✓
	Eguneko zentroak	93,6	93,5	94,8	97,6	94,6	92,0*	✓
Arreta-premiak dituzten adineko pertsonak etxebizitza propioan bizitzea erraztea (*adierazlea: etxebizitza propioan bizi diren artatutako 65 urte eta gehiagoko biztanleak artatutako biztanle guztien arabera)*	Guztizkoa	71,8	72,3	74,2	75,8	76,2	75,0	✓

Helburu honetarako aintzat hartutako zentro guztietarako xedea da.
Iturria: 2015-2017. Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehaztutako adierazleen ebaluazioa. Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

3.3.4. Adineko pertsonentzako lehen-mailako arreta-zerbitzuen lurralde-hedakuntza

3.3.4.1. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua (1.2)

Etxez etxeko laguntza-zerbitzuari dagokionez, 2015 urterako eskuragarri dauden datuen arabera, Bizkaikoa baino pixka bat altuagoa da Gipuzkoako estaldura, baina EAEkoa baino pixka bat apalagoa. Aldiz, Gipuzkoan jasotako intentsitate-maila[31] beste bi lurraldeek dutena baino altuagoa da.

39. Taula. Adineko pertsonentzako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren intentsitateari buruzko (erabiltzaile bakoitzeko orduak) estaldura (65 urte eta gehiagoko 100 biztanleko), Lurralde Historikoaren arabera. EAE 2015

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Urtean zeharreko pertsona erabiltzaileen zenbatekoa	2.663	6.693	4.415	13.771
Estaldura (urtean zehar izandako adineko pertsona jasotzaileen zenbatekoa 65 urte eta gehiagoko 100 pertsonen arabera)	4,217	2,690	2,932	2,977
Intentsitatea (erabiltzaile bakoitzeko ordu-kopurua)	205,6	190,6	230,5	206,5

Iturria: Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistika. Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organoa. INE. Udalerrolda Jarraituaren Estatistika.

Lurralde-mailako datuak eskaintzen dituen Gizarte-Zerbitzuetako Estatistikaz gain, Gipuzkoako Gizarte Behatokiak eskainitako informazioa askoz ere erabilgarriagoa da EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehaztutako helburuak neurtzeko; 2017 urterako, 65 urte eta gehiagoko 100 biztanleko onartutako guztizko 910,3 ordu. Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, EELZk Gipuzkoan eskainitako guztizko ordu-kopurua[32] 1.107.725 orduetara iritsi zen, hau da, 65 urte eta gehiagoko 100 biztanleko 712,6 orduko estaldura.

4. Grafikoa. Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren arreta-ordu kopurua 65 urte eta gehiagoko 100 biztanleko, eremuen arabera. Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

[31] Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistikak bildutako etxez etxeko laguntza-zerbitzuari buruzko datu globaletatik kalkulatu da. Beraz, ez da pertsona adinduek jasotako zerbitzuaren berariazko intentsitatea, baizik eta zerbitzuaren intentsitate orokorra, haren jasotzaile diren talde guztiak kontuan hartzen dira eta eskainitako guztizko orduen arabera kalkulatzen da.

[32] Erreferentzia gisara hartutako zifra eskainitako etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren guztizko orduei dagokio, jasotzaileen adinari garrantzirik hartu gabe.

3.3.4.2. Adineko pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzuak (1.7)

EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zerbitzu hauetarako ezarritako estaldura 0,072 plazakoa da 65 urte eta gehiagoko 100 biztanleko. 2018 urtean udal gipuzkoarrek eskainitako informazioaren arabera, Gizarte-Zerbitzuko hamahiru arloetatik bostek horrelako baliabideak zituzten, eta lurralde osoaren estaldura (0,117) 2017 urterako helburu gisara zehaztua baino altuagoa izan zen (0072).

5. Grafikoa. Pertsona adinduentzako eguneko arreta-zerbitzuak (65 urte eta gehiagoko 100 biztanleren arabera), eremuaren arabera. Gipuzkoa 2018



Oharra: azaldutako datuetan Bidania-Goiatzeko eta Errezilgo plazak hartu dira kontuan (Tolosaldeako eskualdeko udalerri bakoitzeko 8 plaza), nahiz eta baliabide horietan hilabetean 2 edo 3 arratsaldetan eskaini arreta. Haiek kontuan hartu ez balira izan, Tolosaldeako estaldurarik ez litzateke existituko, eta Gipuzkoako 0,117 plazako estalduraren ordez, 0,107 plaza izango lituzke 65 urte eta gehiagoko 100 biztanleko.

Iturriak: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia; INE. Udal-errolda Jarraituko Estatistika (2017).

3.3.4.3. Adineko pertsonentzako ostatu-zerbitzuak (1.9.3 eta 1.9.4)

Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzaren Estatistikaren datuek EAEko Lurralde Historiko bakoitzean udal-eskumeneko tutoretzapeko apartamentuen eta etxebizitza komunitarioen plaza-kopurua eta estaldura. Ikuspegi konparatu batetik, eskura dauden datuen arabera, Gipuzkoako adineko pertsonentzako ostatu-zerbitzuen estaldura Arabakoa baino pixka bat apalagoa izan arren, EAEkoa baino askoz ere altuagoa da.

40. Taula. Udal-eskumeneko tutoretzapeko apartamentuen eta etxebizitza komunitarioen plaza-kopurua eta estaldura (65 urte eta gehiagoko 100 biztanleko), Lurralde Historikoaren arabera. EAE 2015

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Tutoretzapeko apartamentuen plaza-kopurua	220	58	307	585
Etxebizitza komunitarioetako plaza-zenbatekoa	44	23	271	338
Guztizko plaza-kopurua	264	81	578	923
Estaldura (65 urte eta gehiagoko 100 biztanleren arabe-rako plazak)	0,418	0,033	0,384	0,200

Iturria: Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistika. Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organoa. INE. Udal-errolda Jarraituko Estatistika.

Gizarte-Zerbitzuetako Estatistika erabili ordez udalerri gipuzkoarrek 2018 urterako eskainitako datuak erabiliz gero, hurrengo taulak eremu-mailan eman diren estaldurak jasotzen ditu[33].

6. Grafikoa. Adineko pertsonentzako tutoretzapeko apartamentuetako eta etxebizitza komunitarioetako estaldura (65 urte eta gehiagoko 100 biztanleren araberako plazak), eremuen arabera. Gipuzkoa 2018



Iturriak: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia; INE. Udal-errolda Jarraituko Estatistika (2017).

Bildutako informazioaren arabera, 2018rako ostatu-zerbitzu mota honetako guztizko estaldura 0,407 plazakoa izango litzateke 65 urte eta gehiagoko 100 biztanleko, Euskadiko Mapak 2017 urterako zehaztua baino altuagoa, Gipuzkoako kasuan 0,538 plazakoa dena. Azpieskualde batzuetan, edonola ere, lortu edo gainditu dute helburu hori (Urola Kosta, Tolosaldea eta Donostialdea); beste batzuk gertu daude (Buruntzaldea eta Urola Garaia), eta gainerakoak nabarmen geratu dira atzetik.

3.3.5. Adineko pertsonentzako bigarren-mailako arreta-zerbitzuen lurralde-hedakuntza

Sarreran aipatu den bezala, epigrafe honetan Lurraldeko Gizarte-Zerbitzuetako eskualde eta eremu desberdinetan bigarren-mailako adineko pertsonentzako arreta-zentroetako eskaria nola artatzen den jakin nahi da –hau da, eguneko arreta-zentroak eta egoitza-zentroak–, eta zein neurritan ari diren konplitzen Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehaztutako helburuak. Horretarako, lehenik eta behin, zentro horietako itxarote-zerrenden bilakaera aztertzen da[34] eskualdeka, eta horren ondoren, Mapan zehaztutako erreferentziazko estalduren betekizun-maila, kasu honetan azpieskualdeen araberakoa dena, izan ere, EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehazten duenez, zentro horiei dagokien lurralde-eremua hori baita.

[33] Informazio-iturri horren arabera, adineko pertsonentzako 1.9.3 (tutoretzapeko apartamentuak) eta 1.9.4 (etxebizitza komunitarioak) zerbitzuei dagozkien guztizko 633 plaza dauden Gipuzkoan 2018 urtean. 633 plazetatik 452 plaza tutoretzapeko apartamentuak ziren, eta 181 etxebizitza komunitarioak.

[34] Kasu honetan, itxarote-zerrendan dagoen pertsonen guztizkoa da, ez egiazko itxarote-zerrendaren eta itxarote-zerrenda teknikoaren aldea. Urte bakoitzeko abenduan itxarote-zerrendan dagoen pertsonen zenbatekoaren batezbestekoaren erreferentzia jasotzen du epigrafe honetan erabilitako neurriak.

3.3.5.1. Adineko pertsonentzako eguneko arreta-zentroak (2.2.1)

41. Taulan ikus daitekeen bezala, 2017 abenduan 133 pertsonetara heltzen zen itxarote-zerrenda, aurretiko urteetan jasotako datua baino nabarmen apalagoa. Lurralde-ikuspegitik aztertuz gero, biztanle gehiago izateagatik itxarote-zerrendan pertsona gehien dituen eskualdea Donostialdea izan arren, Debagoienan eta Debabarrenan ematen dira alde handienak, izan ere, itxarote-zerrendan dauden pertsonen zenbatekoa eskuragarri dauden foru-plazen guztizkoaren %19ko eta %12ko baliokide baitira[35].

41. Taula. Adineko pertsonentzako eguneko zentroetako urte bakoitzeko abenduko itxarote-zerrendetako pertsonen zenbatekoaren bilakaera, eskualdeen arabera (2014-2017)

	Itxarote-zerrendan dagoen pertsona-kopurua					Plazak 2017	Plazen arabe-rako itxarote zerrendaren % 2017
	2014	2015	2016	2017	Δ (%) 2014-17		
Bidasoa	11	12	11	11	0%	108	%10,2
Debabarrena	15	12	14	12	-20%	97	%12,4
Debagoiena	17	23	60	25	47%	133	%18,8
Donostialdea	151	110	94	44	-71%	733	%6,0
Goierri	10	23	23	15	50%	186	%8,1
Tolosaldea	4		3	7	75%	109	%6,4
Urola Kosta	15	11	16	19	27%	174	%10,9
Guztizkoa	**223**	**191**	**221**	**133**	**-40%**	**1.540**	**%8,6**

Oharra: taula honetako datuak astean zeharreko eguneko arreta-plazei buruzkoak dira.
Iturria: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Adineko pertsonentzako zentroen estaldurari dagokionez, eremu-mailan zehaztua dena, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak ezarritako estaldura 1,006 plazakoa da 65 urte eta gehiagoko 100 biztanleko. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, balio hori lortu edo gainditzen dute 13 eremuetatik 9k, gabezia nabarmenenak Deba Erdian (0,548) eta Bidasoan (0,649) aurkitu dira. Estaldura Lurralde osoaren arabera kalkulatuz gero, 2017 urtean jasotakoa (0,991) urte horretarako helburu gisara zehaztuaren ia-ia baliokidea da.

7. Grafikoa. Adineko pertsonentzako eguneko zentroetako estaldura (65 urte eta gehiagoko 100 biztanleko foru-plazak, eremuen arabera. Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

[35] Txosten honetan itxarote-zerrendak hilabeteen arabera ez eskaini arren, haren azterketatik ondorioztatzen denez, abenduko itxarote-zerrenda kontuan hartu ordez urteko 12 hilabeteen batezbestekoaren tankerakoak dira antzeman izandako aldeak.

3.3.5.2. Adineko pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.1)

Egoitza-zentroetako itxarote-zerrendei dagokienez, itxarote-zerrendako biztanleen erdia baino gehiago (%54) Donostialdeako eskualdean kokatzen dira, nahiz eta Debabarrena eta Tolosaldea izan itxarote-zerrendaren hazkunde argia izandako eskualdeak. Bestalde, 2017 urteko itxarote-zerrendako pertsonen zenbatekoa eskualdean eskuragarri dauden foru-plazekin konparatuz gero, defizit teorikoak Debagoienako guztizko plazen %11,5 eta Donostialdeako %21,7 dira.

42. Taula. Adineko pertsonentzako egoitza-zentroetako abenduko itxarote-zerrendetako pertsonen zenbatekoaren bilakaera, eskualdeen arabera (2014-2017)

	Itxarote-zerrendan dagoen pertsona-kopurua					Plazak 2017	Plazen araberako itxarote zerrendaren % 2017
	2014	2015	2016	2017	Δ (%) 2014-17		
Bidasoa	93	74	83	93	%0	434	%21,4
Debabarrena	23	53	70	62	%170	382	%16,2
Debagoiena	71	70	80	53	-%25	461	%11,5
Donostialdea	369	386	476	464	%26	2.140	%21,7
Goierri	57	65	83	71	%25	436	%16,3
Tolosaldea	38	50	47	68	%79	339	%20,1
Urola Kosta	50	54	60	51	%2	420	%12,1
Guztizkoa	**701**	**752**	**899**	**862**	%**23**	**4.612**	%18,7

Oharra: taulako datuek foru-plazen guztizkoaren araberakoak dira. Oinarrizko plazak (3.911 plaza), psikogeriatriakoak (585 plaza), soziosanitarioak (100) eta aldi baterakoak (16) hartzen dira kontuan.
Iturria: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Adineko pertsonentzako zentroen estaldurari dagokionez, Gizarte-Zerbitzuetako Mapak estaldura-helburu generiko gisara 3,006 plaza 65 urte eta gehiagoko 100 biztanlekoa zehazten du. Egoitza-zentroetako lurralde-hedakuntzarako Mapak zehaztutako lurralde-eremua Gizarte-Zerbitzuetako eremua da.

8. Grafikoa. Adineko pertsonentzako egoitza-zentroetako estaldura (65 urte eta gehiagoko 100 biztanleko foru-plazak, eremuen arabera. Gipuzkoa 2017



Oharra: foru-plazen guztizkoaren arabera kalkulatu dira estaldurak. Oinarrizko plazak (3.911 plaza), psikogeriatriakoak (585 plaza), soziosanitarioak (100) eta aldi baterakoak (16) hartzen dira kontuan.
Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

8. Grafikoan ikus daitekeen bezala, oinarrizko foru-plazak, plaza psikogeriatriakoak, soziosanitarioak eta zenbait azpieskualdetako aldi baterako plazak batuz gero[36], kopuru horren azpitik, 13 azpieskualdetik 7 daude: Buruntzaldea (1,837), Deba Kosta (1,874), Oarsoaldea (2,279), Bergaraldea (2,446), Bidasoa (2,607), Urola Kosta (2,663) eta Urola Garaia (2,822). Edonola ere, Lurraldeko guztiari dagokion datua hartuz geroko estaldura (2,967) Mapak helburu gisara zehaztuaren ia-ia parekoa da.

3.4. Gipuzkoan desgaitasunak eta gaixotasun mentalak dituzten biztanleentzako zerbitzuak

3.4.1. Sarrera

Atal honetako xedea Gipuzkoan desgaitasunak eta gaixotasun mentalak dituzten biztanleentzako Gizarte-Zerbitzuetako eskaintza aztertzea da, bereziki arretarako zentroei eta zerbitzuei buruzko hornidurari eta lurralde-hedakuntzari dagokionean. Adineko pertsonei buruz egindako analisiaren aldean, kasu honetan aztertutako zentroak eta zerbitzuak bigarren-mailari dagozkio, izan ere, EAEko Gizarte-Zerbitzuen Mapak ez baititu zehazten desgaitasuna duten pertsonentzako berariaz bideratutako lehen-mailako zerbitzurik.

Horrela, Zorroko zentro eta zerbitzu hauen azterketa oso berariaz egin da:

- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa (2.2.1);
- Zentro okupazionala (2.2.2);
- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroa (2.4.2);
- Desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza (2.4.2. a)
- Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroa (2.4.3)
- Gaixotasun mentala duten pertsonentzako sostengudun etxebizitza (2.4.3.a)
- Arreta goiztiarreko gizarte-eskuartzeko zerbitzua (2.7.4)

Aurreko epigrafe batean azaldu den bezala, lehenik eta behin, desgaitasuna duten biztanleentzako Gizarte-Zerbitzuen ikuspegi oso bat eskaintzen da Gizarte-Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistikak oinarri hartuta; eta adierazle gipuzkoarrak EAEko beste bi lurraldekoekin konparatu. Lehen analisi horren ostean, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehaztutako ebaluazio-adierazleen betekizun-gradua aztertzen da, desgaitasun edo gaixotasun mentalen bat duten pertsonen arta-zerbitzuekin modurik zuzenenean lotura duten gaietako osagaietan.

3.4.2. Desgaitasunak dituzten pertsonentzako Gizarte-Zerbitzuak Gipuzkoan konparazio-ikuspegitik

Gizarte-Zerbitzuetako Estatistikako datuen arabera, 2015 urtean 827 plaza[37] zenbatu zituzten desgaitasuna duten Gipuzkoako pertsonentzako egoitza-zentro eta etxebizitzetan, 836 plaza eguneko zentroetan eta 863 plaza zentro okupazionaletan. Gainera, 415 pertsona etxez etxeko laguntza-zerbitzuko erabiltzaile izan ziren urtean zehar[38]. Zerbitzu horren bitartez artatutako pertsonen eta arreta-zuzeneko zentroetan eskuragarri dauden plazen batura ia 3.000 plaza izatera iristen da, Gipuzkoako

[36] Aurretik aipatu den bezala, azpieskualdeak bat datoz Gizarte-Zerbitzuetako eremuekin.
[37] Titulartasun publikoko eta pribatu hitzartuetako plazak hartu dira kontuan, egoitza-zentroen eta gizarte-zerbitzuetako eguneko zentroen kasuan.
[38] Datu horiez gain, mendekotasunaren arreta-sistemaren prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten desgaitasuna duten 65 urtez azpiko 3.700 erabiltzaile gehitu behar dira. Kolektibo horri buruzko hiru lurraldetako datuak eskuragarri ez izateagatik ez dira taulan sartu.

2015eko 18 eta 65 urte bitarteko biztanleriaren %0,65. Tasa hori Bizkaikoa baino altuagoa da, baina Arabakoa baino nabarmen apalagoa.

43. Taula. Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzu nagusietako plaza-kopurua, pertsona erabiltzaileak eta estaldurak (18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleren arabera), Lurralde Historikoaren arabera. EAE 2015

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
- Egoitza-zentroak (plazak)	720	1.165	827	2.712
- Eguneko zentroak (plazak)	145	1.063	836	2.044
- Zentro okupazionalak (plazak)	469	1.455	863	2.787
- EELZ (urteko pertsona erabiltzaileak)	266	690	415	1.371
Guztizkoa (plazak eta pertsona erabiltzaileak)	1.600	4.373	2.941	8.914
- Egoitzetako estaldura	0,352	0,162	0,187	0,199
- Eguneko zentroetako estaldura	0,071	0,148	0,189	0,150
- Zentro okupazionaletako estaldura	0,229	0,202	0,195	0,204
- EELZ estaldura	0,130	0,096	0,094	0,100
Guztizko estaldura (18 eta 64 urte bitarteko 100 pertsonen arabera)	0,781	0,608	0,666	0,653
Eguneko zentroetan, zentro okupazionaletan eta EELZan artatutako pertsonen proportzioa artatutako guztizkoaren arabera (%)	%55,0	%73,4	%71,9	%69,6

Oharra: egoitza-zentroetako eta eguneko zentroetako plazei dagozkien taulako datuek plaza publikoak eta pribatu hitzartuak hartzen dituzten kontuan. Zentro okupazionalen kasuan, plaza guztiak hartzen dira kontuan.
Iturria: Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistika. Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza.

Bestetik, eskainitako plazen eta zerbitzuen %71,9 etxebizitza propioan bizi diren pertsonei bideratzen zaie, Arabako %55aren aldean, zeinean egoitza-estaldura gipuzkoarra baino nabarmen altuagoa dena.

3.4.3. Desgaitasunen eta gaixotasun mentalen arloetarako Mapak zehaztutako helburu-betekizuna

Sarreran aipatu bezala, adineko pertsonentzako eta/edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehaztutako arreta-zerbitzuekin zuzenean erlazionatutako hornidurarekin eta hedakuntzarekin zerikusia duten helburuak hautatu dira azterlan honetarako. Aztertutako Maparen helburuak eta haien 2017 urteko betekizun-maila hurrengo lerroetan laburbiltzen da:

1) **Itxarote-zerrendak murriztu eta zerrenda teknikoen mailan mantendu (1.5** Nahasmendu mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroei dagokienean, 2017 urterako zehaztutako helburuak lortu direla adierazten dute datuek, baina ez desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zerbitzuei dagokionean.

2) **Itxarote-zerrendetako batezbesteko astia murriztea (3.1).** Eskatutako zentroan sartzeko batezbesteko astiari kontu hartuz gero, lau baliabide motetatik bakar batek lortu du finkatutako helburua betetzea, nahasmendu mentalak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroek.

3) **Eskari gabeko zerbitzu-eskaintza murriztea (2.3).** Aztertutako aldi osoan zehar, salbuespenen bat izan ezean, desgaitasunen arlokotzat ulertutako zerbitzuetako okupazio-tasa %92tik gora

mantendu da, zeina gutxieneko okupaziorako helburu gisara zehaztua baita zentro guztietarako, kasu batzuetan %100 izatera iritsi arte.

4) **Desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitza- eta egoitza-arreta urte osoko egunetara hedatzea (3.4).** Bestalde, Gizarte-Zerbitzuetako Mapak desgaitasunari dagokion arloan ezarritako jarraipen- eta ebaluazio-xedeek desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitza- eta egoitza-arta urteko egun guztietan eskaini beharra xedatzen du. 2017 urteko 365 egunetan eskainitako artatze-maila %41,2koa izan zen, beraz, %40an finkatutako helburua erraz lortu da.

5) **Arreta-premia egoeran dauden desgaitasuna duten pertsonak etxebizitza propioetan segitu ahal izatea erraztea (3.6).** Kontuan hartutako Maparen azken xedeak arreta-premia egoeran dauden eta desgaitasuna duten pertsonak etxebizitza propioan bizitzeko jarraipena aztertzea eskatzen du, eta desgaitasuna duten artatutako pertsona guztizkotik etxebizitza propioan artatutako desgaitasuna duten pertsonen ehunekoa. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, %80 eta %81 bitartean mantendu da aztertutako urte guztietan, batean salbu, izan ere, 2017 urtean %78,8ra beheratu da, %81 helburu hartutako ehunekoaren azpitik.

44. Taula. Desgaitasunak edo gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako zerbitzu eta zentroetako Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Maparen adierazleen betekizun-maila 2013/2017

		2013	2014	2015	2016	2017	Helburua 2017	Betekizuna 2017
Itxarote-zerrendak murriztu eta zerrenda teknikoen mailan mantendu (*adierazlea: itxarote-zerrendaren eta zerrenda teknikoaren aldea*)	Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzak	19	40	26	28	23	5	✗ -18
	Nahasmendu mentala duten pertsonentzako egoitzak	45	47	34	43	31	35	✓
Itxarote-zerrendan dauden pertsonen batezbesteko itxaronaldiak murriztea (*adierazlea: izena eman eta egoitzan hartzetik batezbesteko egunak urte batean*)	Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzak	156	85	87	152	175	120	✗ -55
	Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak	96	99	106	105	87	75	✗ -12
	Nahasmendu mentala duten pertsonentzako egoitzak	107	71	81	78	55	75	✓
	Nahasmendu mentala duten pertsonentzako eguneko zentroak	30	41	54	51	50	30	✗ -20
Eskatu gabeko zerbitzuen eskaintza murriztea *(adierazlea: landunen %)*	Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzak	100,0	99,8	99,5	100,0	99,8	92,0*	✓
	Desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitzak	97,5	95,8	99,5	94,9	97,6	92,0*	✓
	Nahasmendu mentala duten pertsonentzako egoitzak	97,9	98,0	95,2	93,1	98,4	92,0*	✓
	Nahasmendu mentala duten pertsonentzako etxebizitzak	93,6	100,0	94,2	98,1	98,1	92,0*	✓
	Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak	96,8	98,4	98,6	99,9	97,7	92,0*	✓
	Nahasmendu mentala duten pertsonentzako eguneko zentroak	95,2	97,8	95,2	94,7	95,3	92,0*	✓
	Zentro okupazionala	90,4	91,4	94,0	92,7	100	92,0*	✓
Urteko egun osora zabaltzea desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitza- eta egoitza-arreta (*adierazlea: urteko 365 egunetako arreta-plazen %)*	Guztizkoa	35,3	31,2	31,2	38,8	41,2	40,0	✓
3.6. Arreta-premiak dituzten adineko pertsonak etxebizitza propioan bizitzea erraztea (adierazlea: *etxebizitza propioan bizi diren artatutako 65 urte eta gehiagoko biztanleak artatutako biztanle guztien arabera)*	Guztizkoa	80,3	80,1	81,6	81,8	78,8	81,0	✗ -2,2

Helburu honetarako aintzat hartutako zentro guztietako xedea da.
Iturria: Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako 2015-2017 Mapako adierazleen ebaluazioa. Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

3.4.4. Desgaitasuna duten biztanleentzako zerbitzuetako bigarren-mailako arreta-ren lurralde-hedakuntza

Bigarren-mailako arretarako, Gizarte-Zerbitzuetako Mapak desgaitasunak edo gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzu mota hauek hartzen ditu kontuan:

- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa (2.2.1) [Sektorea];
- Zentro okupazionala (2.2.2) [Eremua];
- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa (2.4.2) [Sektorea];
- Desgaitasuna duten pertsonentzako sostengudun etxebizitza (2.4.2. a) [Eskualdea]
- Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroa (2.4.3) [Sektorea];
- Gaixotasun mentala duten pertsonentzako sostengudun etxebizitza (2.4.3.a) [Eskualdea]
- Arreta goiztiarreko gizarte esku-hartzeko zerbitzua (2.7.4) [Lurralde Historikoa]

Ondoren, aipatutako zerbitzu bakoitzean sartzeko itxarote-zerrendek azken aldian izandako bilakaera-analisia eskaintzen da, eta Mapan zehaztutako erreferentziazko estalduren betekizuna.

3.4.4.1. Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak[39] (2.2.1)

Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroei dagozkien datuen arabera[40], azken urteotako itxarote-zerrendak orekatu egin dira, Urola Kostan izan ezik, izan ere, oso plaza-kopuru murritza baitute, eta eskuragarri dagoen plaza-kopurua eta haien ondoriozko itxarote-zerrenden arteko erlazioa baxua baita. Gipuzkoako lurralde osoa kontuan hartuz gero, egungo plaza-kopuruaren %6,2koa da itxarote-zerrendetan daudenen ehunekoa.

45. Taula. Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroetako urte bakoitzeko abenduko itxarote-zerrendetako pertsonen zenbatekoaren bilakaera, eskualdeen arabera (2014-2017)

	Itxarote-zerrendan dagoen pertsona-kopurua					Plazak 2017	Plazen %aren araberako itxarote zerrendaren % 2017
	2014	2015	2016	2017	Aldea 2014-17		
Bidasoa	2	5	3	2	0	81	%2,5
Debabarrena	2	4	4	2	0	23	%8,7
Debagoiena	6	9	8	8	+2	98	%8,2
Donostialdea	23	23	25	22	-1	382	%5,8
Goierri	7	6	1	1	-6	54	%1,9
Tolosaldea	2	2	2	2	0	29	%6,9
Urola Kosta	2	2	5	5	+3	13	%38,5
Guztizkoa	**44**	**51**	**48**	**42**	**-2**	**680**	**%6,2**

Oharra: taula honetako itxarote-zerrendei buruzko datuek soilik desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroei buruzko informazioa biltzen dute, ez gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroak.

Iturria: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko arreta-zentroei dagokienez, eskuragarri izandako informazioak ez du itxarote-zerrendetan aldaketa nabarmenik azaleratzen, izan ere, azken lau urteotan 6 pertsonetan murriztu baita soilik. Gaur egun, itxarote-zerrendetan zerbitzu hauetarako sarbidearen zain daudenak eskuragarri dauden plazen %6,8aren baliokide dira, baina proportzio hori altuagoa da Debagoienan, Goierrin eta Urola Kostan.

[39] Zerbitzu hau aztertzean, EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak egoitza-modalitate bereiztu bat kontuan hartzen du. Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko laguntza-egoitzak dira.

[40] Itxarote-zerrendako datuak desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroei buruzkoak dira, gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroetatik desberdintzen direnak.

46. Taula. Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroetan urte bakoitzeko abenduan itxarote-zerrendan dauden pertsonen zenbatekoaren bilakaera, eskualdeen arabera (2014-2017)

	Itxarote-zerrendan dagoen pertsona-kopurua					Plazak 2017	Plazen %aren araberako itxarote zerrendaren % 2017
	2014	2015	2016	2017	Aldea 2014-17		
Bidasoa	4	3	4	2	-2	30	%6,7
Debabarrena	0	2	0	0	0	22	%0,0
Debagoiena	4	3	2	2	-2	20	%10,0
Donostialdea	8	6	9	8	0	102	%7,8
Goierri	5	5	5	2	-3	20	%10,0
Tolosaldea	0	0	1	0	0	20	%0,0
Urola Kosta	1	2	3	2	+1	20	%10,0
Guztizkoa	**22**	**21**	**24**	**16**	**-6**	**234**	**%6,8**

Iturria: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Aurretik aipatu izan bezala, EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zerbitzu honen baitan, berariazko zentro mota bat bereizten du gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako. Horren ondorioz, Gipuzkoarako estaldura global bat zehazten du 2017 urterako, 0,223 plazakoa 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko, eta 0,053ko berariazko estaldura (estaldura globalean kontuan hartua dena) gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako eguneko zentroetarako.

Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko arreta-zentroen egoera globalari dagokionez −zeinaren lurralde-eremu aproposena sektorea baita, behintzat, Gizarte-Zerbitzuetako Maparen arabera−, Gipuzkoako guztizko estaldura 0,209 plazakoa da 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanletan. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, Mapak proposatutako estaldura (0,223) Ekialdeko sektoreak gainditu egiten du (0,237), baina ez Mendebaldekoak (0,170).

9. Grafikoa. Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroetako estaldura (foru-plazak 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko), sektore eta eskualdeen arabera. Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

Bestetik, gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako eguneko arreta-zentroetako estaldura-tasa erlatiboki homogeneoa da eskualdeetan. Kasu horietan, estaldura-helburua (0,053) bai Ekialdean (0,053) bai Mendebaldean (0,054) betetzen da.

10. Grafikoa. Gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako eguneko zentroetako estaldura (foru-plazak 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko), sektore eta eremuen arabera. Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

3.4.4.2. Zentro okupazionala (2.2.2)

Zentro okupazionalen kasuko lurralde-hedakuntzari buruz eskuragarri dagoen informazioa mugatua da. Lehenik eta behin, ez duelako itxarote-zerrendei buruzko informaziorik biltzen, eta, bigarrenik, era orientatzaile batean hartu behar direlako Gizarte-Zerbitzuen arloen arabera eskuragarri dauden datuak. 1.050 plazei buruzkoa da. Zifra horren arabera, egungo Gipuzkoako guztizko estaldura 0,262 plazakoa izango litzateke 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko, 2017 urterako Mapak zehaztua baino pixka bat apalagoa (0285).

11. Grafikoa. Zentro okupazionaletako estaldura (foru-plazak 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko), eremuen arabera. Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

Bestalde, lurralde-hedakuntzari buruzko ikuspegitik aztertuta, Mapak proposatutako estaldura baino altuagoa soilik 13 eremuetatik 3tan jasotzen da. Deba Kostan, Buruntzaldean, Bidasoan eta Urola Kostan bereziki baxuak dira, %0,2 baino apalagoak.

3.4.4.3. Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroa (2.4.2)

Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetarako EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak bi modalitate hartzen ditu aintzat, sostengudun etxebizitzak eta egoitza-zentroak. Hurrengo analisia desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetako itxarote-zerrendei buruzko informaziotik egin da, eta aipatutako bi modalitate horiek aintzat hartu dira. Zentroetako estaldurari buruzko geroko analisian, aldiz, datuak bi modalitatetan bereiztuta azalduko dira.

47. Taula. Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetako abenduko itxarote-zerrendetako pertsonen zenbatekoaren bilakaera, eskualdeen arabera (2014-2017)

	Itxarote-zerrendan dagoen pertsona-kopurua					Plazak 2017	Plazen %aren araberako itxarote zerrendaren % 2017
	2014	2015	2016	2017	Aldea 2014-17		
Bidasoa	11	8	12	15	+4	106	%14,2
Debabarrena	2	2	1	0	-2	8	%0,0
Debagoiena	11	12	9	10	-1	51	%19,6
Donostialdea	67	67	74	61	-6	500	%12,2
Goierri	10	7	7	9	-1	34	%26,5
Tolosaldea	5	4	6	3	-2	104	%2,9
Urola Kosta	10	5	2	2	-8	22	%9,1
Guztizkoa	**116**	**105**	**111**	**100**	**-16**	**834**	**%12,0**

Oharra: taula honetako itxarote-zerrendari buruzko datuek eta eskainitako plazek desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroei buruzko informazioa biltzen dute soilik. Taulan ez dira kontuan hartu gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroak.

Iturria: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak osotasunean hartuz gero, 2014 eta 2017 urteen bitartean itxarote-zerrendak erlatiboki orekatuta mantendu dira. Gaur egun ,horrelako plaza bat eskuratzeko pertsonen zenbatekoa eskuragarri dauden plazen %12aren zifra baliokidea da. Halaber, eta itxarote-zerrenda dauden pertsonetatik erdiek bizitegia Donostialdeako eskualdean dute, baina Goierrin eskuragarri dauden plazen eta itxarote-zerrenden arteko erlazioa nabarmen altuagoa da (%26,5).

Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-plazen estaldurari dagokionez, 2017 urterako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehaztutako estaldurei buruzko argibide bat eskaini behar da hasieratik. Izan ere, Gizarte-Zerbitzuetako Mapak 0,271 plazako estaldura zehazten duenean 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko, ez ditu soilik 2.4.2 zentroko plazak zenbatzen (desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak), baita 2.4.3 zentrokoak ere (gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroak); nahiz eta Gizarte-Zerbitzuetako Katalogoak edo Zorroko Dekretuak elkarren artean bereiztu. Beraz, 2.4.3 zentroetarako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak xedatutako estaldura 0,064 plazakoa izan arren 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko, zentroari dagokion estaldura garbia 0,207koa da.

Horretaz gain, eta zentro horien analisirako aurretiko urrats gisara, beste argibide bat eman behar da, izan ere, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapan zehazten denez, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetako estaldura –lurralde-eremutzat sektorea duena– eta sostengudun etxebizitzen estaldura bereiztu beharra dago –lurralde-eremutzat eskualdea duena–. Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuek berariaz desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-baliabidetarako ezarritako estaldurei kontu hartuz gero, sostengudun etxebizitzetarako estaldura aproposena %0,020 da eta egoitza-zentroetakoa %0,187; beraz, Mapak proposatutako estaldura-maila aztertzean kontuan hartu beharreko balio zehatzak hauek dira:

- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroa (2.4.2) 0,207
    - Sostengudun etxebizitza (1 edo 2.4.2.a modalitatea): 0,020 [Eskualdea]
    - Egoitza-zentroak (2 edo 2.4.2.b modalitatea) 0,187 [Sektorea]

Datuak globalki aztertuz gero, EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetarako zehazten dituenak (2.4.2)[41], lurralde osorako 2017 urteko estaldura (0,190) Mapak zehaztua baino (0,207) pixka bat apalagoa dela ikus daiteke; nahiz eta defizitak zehaztutako 9 eskualdetik 6tan gertatu, zeintzuetan bereziki apalak diren estaldurak baitituzte: Debabarrena (0,024), Buruntzaldea (0,032), Oarsoaldea eta Urola Kosta (bietan 0,048 plaza 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko).

[41] Aipatu den bezala, EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak %0,271eko estaldura orokor bat aurreikusten du, 2.4.2ko eta 2.4.3ko zentroetako plazak izango lituzkeenak. Hala ere, epigrafe honetan 2.4.2ko zentroetako estadura aztertzen da, zeina %0,207ra helduko litzateke.

12. Grafikoa. Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetako (sostengudun etxebizitzak eta egoitza-zentroak kontuan hartuta) estaldura (foru-plazak 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko), eskualdeen arabera. Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

Sostengudun etxebizitzei dagokienez, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak modalitate horretarako gomendatutako estaldura (0,020) erraz gainditzen da bai Gipuzkoa osoan (0,095) bai zehaztutako bederatzi eskualdetik 8tan. Kasu honetan, salbuespen bakarra Oarsoaldea izan da, 8 plaza bakarrik dituena eta 0,018ko estaldura duena.

13. Grafikoa. Desgaitasuna duten pertsonentzako sostengudun etxebizitzetako modalitateko estaldura (foru-plazak 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko), eskualdeen arabera. Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

Aitzitik, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetako modalitatearen estaldura propioa aztertzean, ez da iristen sektore bakar bat ere zentro horietarako gomendatutako estaldurara, nahiz eta gabezia nabarmenenak Mendebaldeko sektorean bildu.

14. Grafikoa. Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetako modalitateko estaldura (foru-plazak 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko), eskualde eta sektoreen arabera. Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

3.4.4.4. Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroa (2.4.3)

Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroekin gertatzen den bezala (2.4.2), gaixotasun mentaleko pertsonentzako egoitza-zentroetan bi modalitate zehazten ditu EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak: sostengudun etxebizitzak (1 modalitatea) eta egoitza zentroak (2 modalitatea). Itxarote-zerrendei buruzko informazioan oinarritutako hurrengo analisiak gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentro guztiak aztertzen ditu, eta, beraz, bertan aipatutako mi modalitateei buruzko datuak gehitzen dira. Zentroetako estaldurari buruzko geroko analisian, aldiz, datuak bi modalitatetan bereiztuta azalduko dira.

48. Taula. Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroetan urte bakoitzeko abenduan itxarote-zerrendan egondako pertsonen zenbatekoaren bilakaera, eskualdeen arabera (2014-2017)

	Itxarote-zerrendan dagoen pertsona-kopurua					Plazak 2017	Plazen %aren araberako itxarote zerrendaren % 2017
	2014	2015	2016	2017	Aldea 2014-17		
Bidasoa	7	3	3	3	-4	44	%6,8
Debabarrena	6	6	8	7	+1	24	%29,2
Debagoiena	5	4	6	4	-1	12	%33,3
Donostialdea	33	32	31	25	-8	100	%25,0
Goierri	3	1	4	6	+3	17	%35,3
Tolosaldea	8	4	5	8	0	32	%25,0
Urola Kosta	4	4	2	4	0	0	--
Guztizkoa	**66**	**54**	**59**	**57**	**-9**	**229**	**%24,9**

Oharra: taula honetako itxarote-zerrendari buruzko datuek eta eskainitako plazek gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroei buruzko informazioa biltzen dute soilik. Iturria: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Beste zerbitzuekin gertatzen den bezala, ezin da esan azken urteotako itxarote-zerrendak nabarmen hazi direnik gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroetarako. Aldiz, aztertutako gainerako baliabideen aldean ez bezala, eskatutako eta eskainitako plazen arteko erlazioa altuagoa da, eta

ia eskualde guztietan, Bidasoan salbu, eskuragarri dauden baliabideen %25 eta %35 bitarteko baliokidetza izango luke.

Gizarte-Zerbitzuetako Maparen arabera, gaixotasun mentala duten pertsonentzako sostengudun etxebizitzetarako (1 modalitatea) eremua lurraldea da, helburutzat hartutako estaldura 0,014 plazakoa dena 18 eta 64 urte bitarteko biztanleko. Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroen kasuan (2 modalitatea), eremutzat sektorea duena, 0,05era iritsiko litzateke gomendatutako estaldura. Beraz, modalitate horretako (2.4.3) zentro baterako 0,064ko estaldura globala lortuko litzateke.

- Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroa (2.4.3) 0,064
    - Sostengudun etxebizitza (1 edo 2.4.3.a modalitatea): 0,014 [Eskualdea]
    - Egoitza-zentroa (2 edo 2.4.3.b mota) 0,05 [Sektorea]

Hurrengo grafikoan ikusten den bezala, gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroetako estaldura orokorra aztertzerakoan, 2017 urtean 0,052 plazakoa da 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko; Mapak proposatutako estaldura baino apalagoa (0,064). Lurralde-hedakuntzaren ikuspegitik, bederatzi gipuzkoar eskualdetatik lauk (Tolosaldea, Bidasoa, Donostia eta Debabarrena) lortu dute estaldura-maila hori.

15. Grafikoa. Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroetako (sostengudun etxebizitzen eta egoitza-zentroen modalitateak kontuan hartuta) estaldura (foru-plazak 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko), eskualde eta sektoreen arabera. Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

Gaixotasun mentaleko pertsonentzako sostengudun etxebizitzei dagokienean, Gipuzkoako egungo estaldura globalak (0,024) nabarmen gainditzen du Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak egindako proposamena (0,014). Lurraldeko bederatzi eskualdetik bostek gainditu dute estaldura hori, baina ez besteek: hirutan ez dute plazarik (Urola Kosta, Debagoiena eta Buruntzaldea), eta Oarsoaldea oso azpitik kokatzen da, lau plazekin (0,009).

16. Grafikoa. Gaixotasun mentala duten pertsonentzako sostengudun etxebizitzetako modalitatearen estaldura (foru-plazak 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko), eskualdeen arabera. Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

Gaixotasun mentaleko pertsonentzako egoitza-zentroen modalitateari dagokionez, Gipuzkoako egungo egoera –lehen modalitatea argi lehenetsi dena, sostengudun etxebizitzak– Mapak ezarritako erreferentzia gisako estalduratik urruti dago. Kasu horretan, bi sektoreetako batek ere ez luke lortuko 0,050 plazako estaldura 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko.

17. Grafikoa. Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroetako modalitatearen estaldura (foru-plazak 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko), eskualde eta sektoreen arabera. Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

3.4.4.5. Arreta goiztiarreko gizarte-esku-hartzeko zerbitzua (2.7.4)

Aipatutako zentro-modalitate desberdinez gain, EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak bigarren-mailako arretarako zerbitzu desberdinetarako estaldura-helburuak zehazten ditu, eta haien artetik arreta goiztiarreko gizarte-esku-hartzeko lurralde-hedakuntzarako eremu gisara Lurralde Historikoa zehazten da.

Kasu honetarako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak 2017 urterako zehaztutako estaldura 0 eta 6 urte bitarteko 1,723 pertsonakoa da adin-bitarte horretan artatutako 100 haurren arabera. Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, hala ere, Gipuzkoa helmuga hori lortzetik urruti omen dago. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak eskainitako datuen arabera, zerbitzu horrek 2017 urtean 420 haur artatu zituen, eta %0,888ko estaldura-maila lortu zuen, Gizarte-Zerbitzuetako Mapak ezarritakoaren erdia.

Laburbilduz, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak desgaitasunak eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako proposatutako estalduren betekizun-mailari buruzko informazioa eskaintzen du hurrengo taulak. Taula gehigarrian, lurralde osorako ezarritako guztizko estalduraren betekizuna hartzen da bakarrik, baina ez kasu bakoitzerako proposatutako mugaketa geografikoari dagokion lurralde-hedakuntza. Horretaz gain, egoitza-zentroei dagokienez, arlo horretako bi zentroetako modalitateak (2.4.2 eta 2.4.3) erreferentzia hartzen dituzten zifrak osotasunari buruzkoak dira, EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak egiten duen era berean.

49. Taula. Desgaitasunak eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonei Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehaztutako estaldura-helburuak

	Estaldura xedea 2017	Estaldura 2017	Plazak 2017	Betekizuna 2017
2.2.1. Autonomian mugak dituztenen pertsonentzako eguneko zerbitzu edo zentroa	0,223	0,209	914	✗
Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroa (aurrekotik banandua)	0,053	0,053	234	✓
Zerbitzu edo zentro okupazionala	0,285	0,240	1.050	✗
Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak	0,207	0,190	834	✗
Gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroak	0,064	0,052	229	✗
Arreta goiztiarreko gizarte-esku-hartzeko zerbitzua *	1,723	0,888	420	✗

0 eta 6 urte bitarteko biztanleriaren arabera kalkulatzen da estaldura. Urtean zehar artatutako adingabekoen zenbatekoari buruzkoak dira datu horiek.
Iturriak: Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapa; Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

3.5. Babesgabetasun-egoeran edo arriskuan dauden adingabekoentzako zerbitzuak

3.5.1. Sarrera

Atal honetan, gehienbat bi zentro- eta zerbitzu-modalitate aztertzen dira:

- Lehen-mailako arreta-zerbitzuei dagokienez, babesgabetasun-arriskuan dauden adingabekoentzako gizarte-hezkuntzako esku-hartze-zerbitzuaren estaldura aztertzen da Gipuzkoako Foru Aldundiko Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak berariaz sustatutako azterlan bat oinarri hartuta; eta gipuzkoar udalerrien %49aren egoera aztertzen du (hain zuzen ere, haurren eta nerabeen %80 biltzen dutena).

- Bigarren-mailako arreta-zerbitzuei dagokienez, babesgabetasun-egoeran dauden adingabekoentzako egoitza-zentroetan, gizarte-hezkuntzako eta gizarte-esku-hartzeetako familientzako zerbitzuetan eta arreta goiztiarreko gizarte-esku-hartzeko zerbitzuan zentratzen da azterketa. Lurralde-ikuspegia bakarrik erabili da (eskualdekoa kasu honetan), edonola ere, egoitza-zentroak aztertzeko.

Aurreko atalen tankerara egituratzen da atal hau, izan ere, Gipuzkoako sistemaren oinarrizko ezaugarriak aztertzen baitira, Arabako eta Bizkaiko egoerekin erlazionatuta (eta konparazio honetan familia-harrerari buruzko zenbait datu erabili dira). Ondoren, Gizarte-Zerbitzuen Mapak zehaztutako helburuen betekizun-maila deskribatzen da, eta horren ostean, haren estaldura; eta kasu batzuetan, zentro eta zerbitzu horietako lurralde-banaketa. Hala ere, beste arloetan bezala, ez da eskaintzen bigarren-mailako arreta-zentroetarako itxarote-zerrendei buruzko daturik, oso murritzak direlako eta ez dutelako eskaintzen kolektibo horretan artatu gabeko eskariaren egiazko irudi baten tankerakorik.

3.5.2. Babesgabetasun-egoeran edo arriskuan dauden adingabekoentzako zerbitzuak Gipuzkoan ikuspegi konparatuan

Gizarte-Zerbitzuetako Estatistikako datuen arabera, Gipuzkoak 2015 urtean babesgabetasun-egoerako adingabekoentzako 351 egoitza-plaza zituen, hau da, 0,28 plazako estaldura 100 adingabeko; Arabako eta Bizkaiko estaldurak baino apalagoak. Gainera, 2015eko abenduaren 31n 277 adingabeko egoitza-harreran zeuden, eta 377 familia-harreran. Beste bi lurraldeen aldean, egiazta daitekeen bezala, Gipuzkoako familia-harreraren tasa altuagoa da, baina egoitza-harrerarena, berriz, murritzagoa. Horren ondorioz, harrera guztietatik ia %58 harrera-familietan egiten da; Araban %40 eta Bizkaian %37.

50. Taula. Babesgabetasun-egoeran dauden adingabekoentzako zerbitzu nagusietako plaza-kopurua, pertsona erabiltzaileak eta estaldura, Lurralde Historikoaren arabera. EAE 2015

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Egoitza-harrera				
Plaza-kopurua	190	530	351	1071
Estaldura (<18 urteko 100 biztanleko plazak)	0,341	0,293	0,282	0,297
Adingabekoen zenbatekoa abenduaren 31n	194	569	277	1.040
Estaldura (<18 urteko 100 biztanleko plazak)	0,348	0,315	0,223	0,288
Familia-harrera				
Adingabekoen zenbatekoa abenduaren 31n	130	327	377	834
Estaldura (<18 urteko 100 biztanleko plazak)	0,233	0,181	0,303	0,231
Guztizkoa				
Adingabekoen zenbatekoa abenduaren 31n	324	896	654	1.874
Estaldura (<18 urteko 100 biztanleko plazak)	0,582	0,496	0,526	0,519
Egoitza-harreraren %aren araberako familia-harrera %	40,1	36,5%	57,6%	44,5%

Iturria: Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistika. Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza; Foru Aldundiak.

3.5.3. Babesgabetasun-egoeran edo arriskuan dauden adingabekoen arloko Maparen helburu-betekizuna

Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak berariazko lau helburu zehazten ditu babesgabetasuneko egoeran edo arriskuan dauden adingabeentzako. Analisi honetarako ardatz gisara hartutako helburuak ondokoak dira:

1) **Eskaririk ez duten zerbitzuen eskaintza murriztea (2.3).** Zehaztutako lehen helburuari dagokionez, egoitza-zentroen okupazio-maila 2015 urteko %88,8 eta 2017 urteko %95,7 bitartekoa izan da; zehaztutako helburu orokorra baino altuagoa, %92an kokatzen dena.

2) **Adingabeko autoktonoak harrera-familietan hartzeko jarraibide orokorra hartzea (3.7).** 2017 urtean, 0 eta 7 urte bitarteko adingabeko autoktonoen %90,1 eta 8 eta 17 urte bitarteko %53,3 harrera-familietan hartu zituzten. Bi kasuetan ere, baikorra izan da adierazleen bilakaera, eta 2017 urtean bete egin dira proposatutako helburuak.

3) **Familia-harrera profesionalizatua sustatzea (3.8).** Hala ere, adierazle horren bilakaera ez da horren baikorra izan, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala. Familia-harrera profesionalizatuan hartutako adingabeen ehunekoaren bilakaera era progresibo batean murrizten joan da –%7,3tik %3ra–, eta hasieran zehaztutako ehunekotik, %9 zena, urruti geratu da.

4) **Familiei bideratutako gizarte-hezkuntzako eta/edo arlo psikosozialeko esku-hartzeko zerbitzuak sustatzea (3.9).** Azkenik, familiei bideratutako gizarte-hezkuntzako eta arlo psikosozialeko esku-hartze zerbitzuei dagokienez, aztertutako hiru urtetan hazkunde garrantzitsua gertatu da, 2013 urte bukaeran 1.387 adingabeko izatetik, 2017 urtean 1.790 izatera pasa dira; eta horrelako programetan zehaztutako 1.500 adingabekoen artarako helburua gainditu egiten da.

51. Taula. Babesgabetasuneko egoeran edo arriskuan dauden adingabekoentzako Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak aurreikusitako adierazleen betekizun-maila 2013/2017

Helburu operatiboak eta adierazleak		2013	2014	2015	2016	2017	Helburua	Betekizuna 2016
2.3. Eskatu gabeko zerbitzuen eskaintza murriztea *(adierazlea: landunen ehunekoa)*	Adingabekoentzako egoitza	92,7	93,9	88,8	95,1	95,7	92,0*	✔
Jarraibide nagusi gisara, adingabeko autoktonoak harrera-familietan hartzea *(adierazlea: harreran hartutako adingabekoak adingabekoen guztizkoaren arabera)*	0-7 urteko adingabekoak	79,5	83,0	88,5	88,0	90,1	81,0	✔
	8-17 urteko adingabekoak	48,4	46,8	51,1	46,6	53,3	50,0	✔
Familia-harrera profesionalizatuaren sendotzea (*adierazlea: Harreran hartutako adingabekoen araberako %)*	0-17 urteko adingabekoak	7,3	6,7	6,1	5,4	3,0	9,0	✘ -6,0
3.9. Familiekin gizarte- eta hezkuntza-arloko eta/edo arlo psikosozialeko esku-hartze zerbitzuak sendotzea (*adierazlea: familia-esku-hartzeetako programetan urtean zehar artatutako adingabekoen zenbatekoa)*	0-17 urteko adingabekoak	1.387	1.392	1.642	1.783	1.790	1.500	✔

Helburu honetarako aintzat hartutako zentro guztietarako xedea da.
Iturria: 2015-2017. Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehaztutako adierazleen ebaluazioa. Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

3.5.4. Babesgabetasun-egoeran edo arriskuan dauden adingabekoentzako gizarte-zerbitzuetako lehen-mailako arretaren lurralde-hedakuntza

Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak, EAEko Mapak ezarritakoaren arabera, ez du jasotzen babesgabetasuna pairatzeko arriskua edo egoera kalteberan dauden adingabekoentzako arreta-zentrorik, eta bakarrik gizarte-hezkuntzako esku-hartze zerbitzua hartzen da aintzat, beste kolektibo batzuen artean babesgabetasun-arriskuan dauden haurrak artatzen dituena.

Ez dago datu bateraturik, ez Gizarte-Zerbitzuetako Inkestan ez Gipuzkoako Gizarte Behatokian, horrelako zerbitzuei buruzko estaldura konparatzeko udalerrietan edo Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako eremu desberdinetan. Hala ere, 2017 urtean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Haurren eta Nerabeen Babeseko zerbitzuak agindutako azterlan bateko datuak badaude, Gipuzkoako Udal Gizarte-Zerbitzuetan babesgabetasun-arriskuan dauden haurrei eta nerabeei buruzkoak[42].

Azterlan horretako datuen arabera, 2016 urtekoak, datuak eskuragarri dituzten 42 udalerrien arreta batuaren tasa adingabekoen %1,302koa izan da. EAEko Mapak ezarritako helburua 0,696 kasukoa da 18 urtez azpiko 100 adingabekoen arabera. Kasu guztietatik %37 Donostiako Udal Gizarte-Zerbitzuek artatu zituzten (adingabekoen biztanleriaren %29 biltzen duena). Gainera, kontsultatutako 42 udalerrietatik 7k adingabekorik ez dutela artatzen adierazten dute. Guztiak 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriak dira. Grafikoan ikus daitekeen bezala, Donostiako datuak eta adingabekorik artatzen ez dituzten udalerriak albo batera utziz gero, 0,075 eta 2.686 bitarteko tasa bat agertzen da 1.000 biztanleko.

18. Grafikoa. Babesgabetasun-egoeran dauden adingabekoentzako gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze-zerbitzuaren estaldura. Gipuzkoa 2016



Iturria: *Gipuzkoako babesgabetasun-arriskuan dauden haurren eta nerabeen udal Gizarte-Zerbitzuetako arreta* (2016). SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa / Haurren eta nerabeen Babeseko Zerbitzua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

[42] Guztira, 43 udalerrietan erantzun zioten inkestari, udalerri gipuzkoarren %49k, biztanleria osoaren %81 bizi dena, eta Gipuzkoako 18 urtez azpiko biztanleriaren %80 bizi dena.

3.5.5. *Babesgabetasun-egoeran edo arriskuan dauden adingabekoentzako gizarte-zerbitzuetako bigarren-mailako arretaren lurralde-hedakuntza*

Bigarren-mailako arretari dagokionez, Gizarte-Zerbitzuetako Mapak babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako zentro bakarrarentzat ezartzen du estaldura –babesgabetasun-egoeran dauden adingabekoentzako egoitza-zentroa (2.4.4)–, eta bi zerbitzuetarako ere –familiei bideratutako gizarte-hezkuntzako eta arlo sozialeko esku-hartzea (2.7.3.1) eta familia-harrerarako sostengu teknikoa (2.7.6.1)–.

Hurrengo taulan, Gipuzkoa osorako zentro eta zerbitzu hauetarako bai estaldura-helburuak bai 2017 urtean jasotako estaldura-tasak azaltzen dira. Bertan ikus daitekeen bezala, soilik familiei bideratutako gizarte-hezkuntzako eta arlo sozialeko esku-hartzeen egungo estaldurak gainditzen dute Mapak ezarritako maila.

52. Taula. Babesgabetasun-egoeran dauden adingabekoentzako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehaztutako estaldura-helburuak

	Estaldura xedea 2017	Estaldura 2017	Datuak 2017	Betekizuna 2017
2.4.4. Babesgabetasun-egoeran dauden adingabekoentzako egoitza-zentroak	0,256	0,240	301	✗ -0,016
Familientzako gizarte- eta hezkuntza-esku-hartze zerbitzua	1,228	1,425	1.790	✓
Familia-harreraren aldeko sustapen-zerbitzua eta sostengu teknikoa	0,061	0,049	350	✗ -0,012

Familia-harreran hartutako adingabekoen guztizko zenbatekoari dagozkio 2018 urteko datuak, (familia-harrera profesionalizatua barne) abenduaren 31n. EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Maparen arabera, Gipuzkoa osoko biztanleriaren arabera kalkulatzen da estaldura.
Iturriak: Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapa; Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

Lurralde-banaketari dagokion ikuspuntutik, babesgabetasun-egoerak dauden adingabekoentzako egoitza-zentroek eskualdeko eremukoak dira, eta aipatu den bezala, estaldura-helburua 0,256 plazakoa da 18 urtez azpiko 100 adingabekoen arabera. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, lurralde osoko estaldura-tasa (0,240) 2017 urterako proposatutako estaldura baino apalagoa da. Halaber, bederatzi eskualde gipuzkoarretatik soilik Donostiak eta Debabarrenak gainditzen dute proposatutako estaldura, hau da, 0,256 plazakoa 18 urtez azpiko 100 adingabekoren arabera.

19. Grafikoa. Babesgabetasun-egoeran dauden adingabekoentzako egoitza-zentroetako estaldura (0 eta 17 urte bitarteko 100 pertsonen araberako plazak), eskualdeen arabera. Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

3.6. Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden biztanleentzako zerbitzuak

3.6.1. Sarrera

Aurreko ataletan bezala, atal honetan Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden eguneko arreta zentroetako, gaueko harrerako eta ostatuetako estaldura- eta hornikuntza-maila aztertzen dira. Kasu honetan ere, lehen- eta bigarren-mailako arreta-zentroei buruzkoa da informazioa, eta 2015 urteko informazioa lortu da Gizarte-Zerbitzuetako Estatistikatik, eta 2017 urteko informazioa Gipuzkoako Gizarte Behatokitik. Zehazki, epigrafe honetan aztertutako zerbitzuak ondokoak dira:

- Eguneko arreta-zerbitzuak: gizarte-bazterketa (1.7)
- Gaueko harrera-zerbitzuak: gizarte-bazterketa (1.8)
- Larrialdi sozialeko egoerak artatzeko harrera-pisua (1.9.1.1)
- Tutoretzapeko etxebizitza: gizarte-bazterketa (1.9.2)
- Gizarteratzeko premiak artatzeko eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.3)
- Gizarteratzeko premiak artatzeko gaueko harrera-zentroa (2.3.2)
- Gizarte-bazterketan eta marjinazioan bizi diren pertsonentzako egoitza-zentroa (2.4.5)

Lehenik, Lurralde osoko egoitzen eta eguneko arretarako zerbitzuen oinarrizko datuak deskribatzen dira, estaldura gipuzkoarrak EAEko beste bi lurraldeetan jasotakoekin konparatuta. Horren ondoren, Gizarte-Zerbitzuetako Maparen helburuen konplitzea aztertzen da gizarteratzeko zerbitzuei dagokionean, eta azkenik, lehen- eta bigarren-mailako arreta-zentroen lurralde-hedakuntza, aipatutako iturburuak oinarri hartuta.

3.6.2. Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden biztanleentzako Gizarte-Zerbitzuak Gipuzkoan ikuspegi konparatuan

Gizarte-Zerbitzuetako Inkestaren arabera –bai zentro publikoak edo hitzartuak bai erabat pribatu direnak jasotzen ditu–, Gipuzkoan 1.180 ostatu-plaza daude gizarte-bazterketarako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako –horietatik 195 plaza gaueko harrera-zentroak dira– eta beste 223 plaza biztanle horientzako eguneko zentroetan. Egoitzen estaldura EAEko beste bi lurraldeetan baino altuagoa da, baina eguneko arretarako estaldura apalagoa.

53. Taula. Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako zerbitzu nagusietako plaza-kopurua eta estaldura (100 biztanleko), Lurralde Historikoaren arabera. EAE 2015

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Egoitza-zerbitzuak (plazak)	498	1.055	1.180	2.733
Egoitza-zerbitzuak (estaldura)	0,154	0,092	0,165	0,125
Gaueko harrera-zentroak (plazak)	99	247	195	541
Gaueko harrera-zentroak (estaldura)	0,031	0,022	0,027	0,025
Ostatua eta egoitza-zentroak (plazak)	399	808	985	2.192
Ostatua eta egoitza-zentroak (estaldura)	0,123	0,070	0,137	0,100
Gizarteratzeko eguneko zentroak (plazak)	126	753	223	1.102
Gizarteratzeko eguneko zentroak (estaldura)	0,039	0,066	0,031	0,050

Iturriak: Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistika. Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza; INE. Udal-errolda Jarraituko Estatistika.

3.6.3. Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden biztanleen arloan Mapak zehaztutako helburu-betekizuna

Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Maparen ezarpenaren jarraipena egiteko ezarritako aginte-taulak bi helburu zehazten ditu gizarte-bazterketan dauden pertsonentzako zerbitzuetan eta zentroetan:

1) **Itxarote-zerrendak murriztea eta zerrenda teknikoetako mailan mantentzea (1.5).** Gizarteratzeko eguneko zentroei dagokienez, eta 2013 urtekoaz erabat desberdina den egoeran, itxarote-zerrendetan murrizketa nabarmena gertatu da, eta zerrenda teknikoaren maila berean kokatzen da 2017 urteko itxarote-zerrenda. Ikuspegi horretatik aztertuta, 2017 urterako gutxieneko maila gainditu da (16).

2) **Eskaririk ez duten zerbitzuen eskaintza murriztea (2.3).** Gizarteratzeko zentroetako okupazio-tasa azken urteotan arinki beheratu da, %94,8tik %88,1era; kronifikatutako gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroetan ez bezala, zeinean okupazio-tasa hazi egin baita, baina helburu gisara hartutakotik apalagoa da 2017 urtean**.**

54. Taula. Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak aurreikusitako adierazleen betekizun-maila 2013/2017

Helburu operatiboak eta adierazleak		2013	2014	2015	2016	2017	Helburua	Betekizuna 2017
1.5. Itxarote-zerrendak murriztu eta zerrenda teknikoen mailan mantentzea *(adierazle: egiazko itxarote-zerrendaren eta zerrenda teknikoaren arteko aldea)*	Gizarteratzeko eguneko zentroa	23	1	-2	1	0	16	✔
Eskatu gabeko zerbitzuen eskaintza murriztea *(adierazlea: landunen ehunekoa)*	Gizarteratzeko eguneko zentroa	94,8	94,1	91,8	89,3	88,1	92,0*	✘ -3,9
	Bazterkeria kronifikatutako egoitza-zentroa	87,1	87,1	97,4	100,0	100,0	92,0*	✔
	Gizarteratzeko egoitza-zentroa	82,4	92,3	95,8	90,8	90,8	92,0*	✘ -1,2

Helburu honetarako aintzat hartutako zentro guztietarako xedea da.
Iturria: 2015-2017. Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehaztutako adierazleen ebaluazioa. Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

3.6.4. Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden biztanleentzako lehen-mailako arreta-zerbitzuen lurralde-hedakuntza

Ondoren eskaintzen diren datuek 2018an gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako lehen-mailako zentroen eta zerbitzuen estaldura eskaintzen dute, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bildu ditu udalerri gipuzkoar desberdinek emandako informazioa oinarri hartuta.

3.6.4.1. Eguneko arreta-zerbitzuak: gizarte-bazterketa (1.7)

EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak gizarte-bazterketan dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzuetarako 0,047 plazako estaldura zehazten du 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko. Horretaz gain, zentro hauen hedakuntzarako lurralde-eremua eskualdea da.

Eskuragarri dauden datuak oinarri hartuta, 2018 urteko Gipuzkoako egoera urruti dago Mapak proposatutakotik. 2018 urtean, lurralde osorako estaldura 0,038koa da; eta 2017 urterako proposatutako 0,047koa izan zen. Lurralde-hedakuntzaren ikuspegiari kontu hartuz gero, soilik Bidasoako, Oarsoaldeako eta Donostialdeako eskualdeak ageri dira proposatutako estalduratik gorago, baina beste eskualdeek 2018 urtean ere horrelako zerbitzurik ez zuketen jasoko.

20. Grafikoa. Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzuen estaldura (18 eta 64 urte bitarteko 100 pertsonen araberako plazak), eskualdeen arabera. Gipuzkoa 2018



Iturriak: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia; INE. Udal-errolda Jarraituko Estatistika.

Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroez gain, Gizarte-Zerbitzuetako Mapak 0,005 plazako estaldura gehigarri bat zehazten du jantoki sozialetako 18 urtez gorako 100 pertsonako. Estaldura hori 30 plazen baliokidea da 2017 urtean. 30 plaza horiek gaur egun lurraldean dagoen jantoki sozial bakarrarekin egokitzen dira, ardura publikokoa eta zeharkako kudeaketa duena, eta Irungo udalerrian kokatua.

3.6.4.2. Gaueko harrera-zerbitzuak: gizarte-bazterketa (1.8)

EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak gizarte-bazterketan dauden pertsonentzako gaueko harrera-zerbitzuetarako 0,031 plazako estaldura zehazten du 18 eta urte gehiagoko 100 biztanleko. Gainera, Mapak zehazten duenez, eskualdea da zerbitzu hauen hedakuntza aproposenerako lurralde-eremua.

21. Grafikoa. Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zerbitzuen estaldura (18 eta 64 urte bitarteko 100 pertsonen araberako plazak), eskualdeen arabera. Gipuzkoa 2018



Iturriak: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia; INE. Udal-errolda Jarraituko Estatistika (2017).

2018 urterako bildutako informazioak erakusten duenez[43], lurralde osorako estaldura (0,020) 2017 urterako estaldura-xede gisara ezarritakotik nabarmen behera geratu da (0,031). Kasu honetan, helburua gainditu izandako eskualde bakarrak Donostialdea eta Oarsoaldea izan dira, 0,053 eta 0,039 plazako estaldura dutenak, hurrenez hurren, 18 eta urte gehiagoko 100 pertsonako.

3.6.4.3. Larrialdi sozialeko egoerak artatzeko harrera-pisua[44] (1.9.1.1)

EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak ez du zuzenean zerbitzu honetarako helbururik zehazten. Horren ordez, 1.9.1.1 eta 1.9.1.2[45] zerbitzuetarako estaldura agregatu bat zehazten du, baina, aldi berean, gizarte-bazterketa arriskuko egoeran dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzetan 0,020 plazako estaldura lortu behar da 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko. Zeharkako era batean, beraz, gizarte-larrialdietako harrera-etxebizitzetako estaldura 0,046an zehaztuko litzateke. Gipuzkoarako aurreikusitako estalduraz gain, Mapak eremu apropos gisara lurraldea dela zehazten du.

Udalerri gipuzkoarrek eskainitako informazioaren arabera, 2018 urteko Gipuzkoa osoko estaldurak (0,063) 2017 urterako proposatutakoa gainditzen du (0046). Hamahiru eremuetatik hamarrek gainditzen dute, baina Bergaraldea, Urola Garaia eta, hein txikiago batean, Oarsoaldea geratuko lirateke azpitik.

[43] Gipuzkoan zenbatutako 116 plazen artean, ez dira kontatu Zarautzko zentro bati dagozkion 15 plaza, izan ere, 2017/2018ko neguan zabalik egon arren, behin betiko itxi baitute.

[44] Zerbitzuen modalitate hau gizarte-larrialdiko egoeren ondorioz ostatu-gabeziagatik krisi-egoerak pairatzen dituzten pertsonei bideratzen zaie, eta horren ondorioz, ez da derrigorrez gizarte-bazterketa egoera bat izan behar; eta biztanleria osoarentzako berariazko zentro eta zerbitzurik ez denez bideratu, azterlan honetako 3.6 atalean sartu da zerbitzu hau ('Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako zerbitzuak').

[45] Gizarte-bazterketan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzak dira, aurrerago aztertzen direnak.

22. Grafikoa. Gizarte-larrialdiko egoeretarako harrera-pisuen estaldura (18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleren araberako plazak), eremuen arabera. Gipuzkoa 2018



Iturriak: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia; INE. Udal-errolda Jarraituko Estatistika (2017).

3.6.4.4. Tutoretzapeko etxebizitza: gizarte-bazterketa (1.9.2)

EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehaztuaren arabera, egoitza-zerbitzu hauetarako estaldura-helburua, 2017 urterako, 0,02 plazakoa da 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko. Aipatutako eguneko arreta-zerbitzuez gain, ezarritako eremua eskualdea da.

23. Grafikoa. Gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzen estaldura (18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleren araberako plazak), eskualdeen arabera. Gipuzkoa 2018



Iturriak: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia; INE. Udal-errolda Jarraituko Estatistika.

2018 urteari buruzko datuek azaltzen dutenez, lurralde osoko ostatu-baliabideen estaldura (0,012) 2017 urterako zehaztutako estaldura-helburua baino apalagoa da (0,020). Eskualdeen arabera, haietatik bik, Tolosaldeak eta Urola Kostak lortu dute 2018 urtean proposatutako estaldura. Beste eskualdeetan, batzuek era honetako plazak izan arren, ez dute lortzen proposatutako estaldura (Goierri, Oarsoaldea, Donostia eta Bidasoa); eta besteek ez dute horrelako plazarik (Goierri, Oarsoaldea, Donostia eta Bidasoa).

3.6.5. Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden biztanleentzako bigarren-mailako arreta-zerbitzuen lurralde-hedakuntza

Ondoren azaltzen den informazioa bigarren-mailako bi oinarrizko arreta-zentroei buruzkoa da[46]: itxarote-zerrendak eta 2017 urteko foru-plazen eskuragarritasuna.

3.6.5.1. Gizarteratzeko premiak artatzeko eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.3)

Eguneko zentroen kasuan, 2017 urteko bukaeran erregistratutako itxarote-zerrenda lurralde osoan eskuragarri zeuden foru-plazetatik %9,5en baliokide izan ziren. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, eskualde desberdinen egoerak edonola ere, gutxi konpara daitezke, izan ere, haietatik batzuetan itxarote-zerrendan pertsonarik ez baitago, baina plazak bai (Debabarrena); eta beste batzuetan kontrakoa gertatzen da (Bidasoa y, Goierri eta Urola Kosta).

55. Taula. Gizarteratzeko premiei aurre egiteko eguneko zentroetako urte bakoitzeko abenduko itxarote-zerrendetako pertsonen zenbatekoaren bilakaera, eskualdeen arabera (2014-2017)

	Itxarote-zerrendan dagoen pertsona-kopurua					Plazak 2017	Plazen araberako itxarote zerrenden % 2017
	2014	2015	2016	2017	Aldea 2014-17		
Bidasoa	1	0	0	1	0	0	--
Debabarrena	0	1	1	0	0	13	%0,0
Debagoiena	0	0	0	5	5	5	%100,0
Donostialdea	10	7	10	6	-4	137	%4,4
Goierri		1	1	2	2	0	--
Tolosaldea	5	3	1	1	-4	13	%7,7
Urola Kosta		1	1	1	1	0	--
Guztizkoa	**16**	**13**	**14**	**16**	**0**	**168**	**%9,5**

Oharra: taula honetako itxarote-zerrendari buruzko datuek eta eskainitako plazek gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroei buruzko informazioa biltzen dute soilik. Iturria: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Gizarteratzeko premiak artatzeko eguneko zerbitzurako edo zentrorako, Gizarte-Zerbitzuetako sektoreko lurralde-eremuaren ikuspegitik , 0,044 plazako estaldura-helburua zehazten du 18 eta 64 bitarteko ehun biztanleko. 2018 urtean, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Ekialdeko sektoreak soilik (0,055) gainditzen du estaldura-helburua; eta Mendebaldeko sektorean (0,017) oso urruti ageri da.

[46] Aurretik azaldu den bezala, bigarren-mailako zentroetako itxarote-zerrendei buruzko informazioa bi zentro motarako eskaintzen da: gizarteratzeko eguneko zentroak eta gizarteratzeko egoitza-zentroak.

24. Grafikoa. Gizarteratzeko premiak artatzeko eguneko zentroetako estaldura (foru-plazak 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko), eskualde eta sektoreen arabera. Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

3.6.5.2. Gizarteratzeko premiak artatzeko gaueko harrera-zentroa (2.3.2)

Gizarteratzeko premiak artatzeko gaueko harrerarako Zentroari dagokionez, Gizarte-Zerbitzuetako Mapak Lurralde Historiko osorako 0,003 plazako estaldura ezartzen du 18 eta urte gehiagoko biztanleko. Gaur egun, Gipuzkoako Foru Aldundiak Caritaseko etxegabeko pertsonentzako harrerarako Aterpe Zentroan 8 plaza finantzatzen ditu, eta egungo estaldura 0,001 plazakoa izango litzateke 18 eta urte gehiagoko 100 biztanleko.

3.6.5.3. Gizarte-bazterketan eta marjinazioan bizi diren pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.5)

2017 urtearen bukaeran erregistratutako itxarote-zerrenda eskuragarri dauden plazetatik %26,5aren baliokidea da, desgaitasuna duten pertsonen eta adineko pertsonen kasuan baino ehuneko altuagoa. Egoerarik onenak Tolosaldean (%9,7) eta Donostialdean (%24,4) aurkitzen direla esan daiteke, izan ere, plazarik gehien eta itxarote-zerrendetan dauden pertsonen eta eskuragarri dituzten plazen arteko erlazio onena baitute. Beste eskualdeetan, itxarote-zerrendan dagoen pertsonen zenbatekoa murritza izan arren, plaza gutxi dutenez (edo ez dute plazarik), plazen gabezia nabarmena gertatzen da, behintzat, teorikoki.

56. Taula. Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zerbitzuetako urte bakoitzeko abenduko itxarote-zerrendetako pertsonen zenbatekoaren bilakaera, eskualdeen arabera (2014-2017)

	Itxarote-zerrendan dagoen pertsona-kopurua					Plazak 2017	Plazen %aren araberako itxarote zerrendaren % 2017
	2014	2015	2016	2017	Aldea 2014-17		
Bidasoa	1	2	11	8	+7	18	44,4
Debabarrena	1	4	5	5	+4	5	100,0%
Debagoiena	0	2	3	4	+4	0	--
Donostialdea	27	66	111	97	+70	397	24,4%
Goierri	2	3	1	2	0	6	33,3%
Tolosaldea		2	4	3	+3	31	9,7%
Urola Kosta	2	1	4	2	0	0	--
Guztizkoa	**33**	**80**	**139**	**121**	**+88**	**457**	**26,5%**

Oharra: epe. Iturria: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak gizarte-bazterketan eta marjinazioan dauden pertsonentzako egoitza-zentroetarako 0,12 plazako estaldura zehazten du 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko. Halaber, Zorroaren Dekretuak zentro horietatik bi modalitate desberdintzen ditu: egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako egoitza-zentroak eta gizarteratzeko egoitza-zerbitzuak; eta hauek bi motakoak izan daitezke: gizarteratzeko sostengudun etxebizitzak eta gizarteratzeko egoitza-zentroak. Aurrenekoentzat ezarritako eremua Lurralde Historikoa da, eta gizarteratzeko egoitza-zerbitzuetarako eremu gisara sektorea zehazten da.

Estaldura orokorrari dagokionez, hau da, gizarte-bazterkeria eta marjinazioan dauden pertsonei bideratutako bigarren-mailako egoitza-plaza guztiei dagokienez, Gipuzkoak horrelako 457 plaza ditu eta gaur egun 0,104 plazako estaldura du 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko. Mapak zehaztua baino estaldura apalagoa da aurreko hori (0,120). Gainera, sektoreen araberako banaketa desberdina da, izan ere, Ekialdeko sektorean baitaude plaza guztietatik %91.

25. Grafikoa. Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetako estaldura (foru-plazak 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko), eskualde eta sektoreen arabera. Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroen estaldura orokorra ebaluatzeaz gain, modalitate edo mota desberdinetako estaldurak aztertzen dira, egoeraren berri izateko. Lehen modalitatean, egoera kronikoko pertsonentzako egoitza-zentroei dagokienez, Mapak eremu gisara Lurralde Historiko osorako estaldura 0,032 plaza 65 urte eta gehiagoko 100 biztanletan ezartzen du. Gipuzkoako egungo egoeran, era honetako 44 plazekin, 2017 urterako 0,01 estaldura bat zehazten dute, aurreikusitako helburuaren azpitik.

26. Grafikoa. Egoera kronifikatua (1 modalitatea) batean dauden pertsonentzako egoitza-zentroetako estaldura (foru-plazak 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko). Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

Bigarren modalitatea, gizarteratzeko egoitza-zerbitzuetakoa, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak 0,088 plazako estaldura zehazten zuen 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko, eta lurralde-eremua sektorea da. 2017 urterako eskuragarri dagoen informazioaren arabera, Gipuzkoak 413 plaza dituen honetan, lortuko lukeen estaldurak (0,094) 2017 urterako zehaztua gaindituko luke. Aldiz, oso desberdina da sektoreen arabera: Ekialdeko estaldura 0,148koa da, baina Mendebaldean (0,022) oso azpitik geratu da aurreikusitako estaldura-helburua.

27. Grafikoa. Gizarteratzeko (2 modalitatea) egoitza-zerbitzuen estaldura (foru-plazak 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko), eskualde eta sektoreen arabera. Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

Laburbilduz eta Gipuzkoa osorako, hurrengo taulak, gizarte-bazterketan dauden biztanleentzako bigarren-mailako arreta-zentro desberdinei dagozkien estaldurak ikus daitezke, baita Mapak zehaztutako estaldura-helburua ere. Gizarteratzeko egoitza-zerbitzuetan bakarrik esan daiteke lortu direla ezarritako helburu guztiak.

57. Taula. Gizarte-bazterketan egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako Gizarte-Zerbitzuetako Mapan zehaztutako estaldura-helburuak

	Estaldura helburua 2017	Arloa	Estaldura 2017	Plazak 2017	Betekizuna 2017
2.2.3. Gizarteratzeko premiak artatzeko eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.3)	0,044(1)	Sektorea	0,038(1)	168	✗
Gizarteratzeko premiak artatzeko gaueko harrera-zentroa (2.3.2)	0,003(2)	Lurralde Historikoa	0,001(2)	8	✗
Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak	0,120(1)	--	0,104(1)	457	✗
- Egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako egoitza-zentroak	0,032(1)	Lurralde Historikoa	0,010(1)	44	✗
- Gizarteratzeko egoitza-zerbitzuak	0,088(1)	Sektorea	0,094(1)	413	✓

(1) 18 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren arabera kalkulatutako estaldurak.
(2) 18 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren arabera kalkulatutako estaldurak.
Iturria: Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapa; Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

3.7. Genero-indarkeriaren emakume biktimentzako zerbitzuak

3.7.1. Sarrera

Atal honetako eskemak, ahal den heinean, aurrekoen antolakuntzari jarraitzen die: lehenik, genero-indarkeriaren emakume biktimentzako Gizarte-Zerbitzuetako oinarrizko ezaugarriak azaltzen dira ikuspegi konparatu batean; Mapak kolektibo honetarako zuzenenak diren helburuen konplimendua aztertzen da; eta, azkenik, kolektibo honi bideratutako lehen- eta bigarren-mailako zerbitzuen lurralde-irismena aztertzen da.

3.7.2. Genero-indarkeriaren emakume biktimentzako Gizarte-Zerbitzuak Gipuzkoan ikuspegi konparatuan

Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistikaren arabera, 2015 urtean Gipuzkoan guztizko 41 egoitza-plaza zituen genero-indarkeriaren emakume biktimei berariaz bideratuak. Zifra horren baitan, egoitza-zentroetako bigarren-mailako arreta-plazak eta indarkeria matxistaren emakume biktimentzako lehen-mailako harrera-etxebizitzak daude. Ikuspegi konparatuari kontu hartuz, datu horien arabera, Gipuzkoak genero-indarkeriaren emakume biktimei bideratutako egoitza-plazen estaldurarik apalena du. Edonola ere, datu horiek urte bereko eskuragarri dauden beste informazio-iturburuekin konparatuaz, zuhurtziaz hartu behar dira[47].

[47] Dela Arabako kasuan, dela Bizkaiko kasuan, Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistikak eskainitako datuak bat datoz beste datu-iturburuek eskainitakoekin. Arabako kasuan, Arabako Gizarte-Zerbitzuetako Behatokiak lurralde osorako 2015 eta 2016 urteetan emakumeei bideratutako guztizko 66 plaza ditu (lehen- eta bigarren-mailako arretakoak), Gizarte-Zerbitzuetako Estatistikak eskainitako datutik oso hurbil dagoena (69). Bestetik, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak, 2015 nahiz 2016 urteko datuen arabera, guztizko 140 plaza jasotzen ditu, era honetan banatzen direnak: larrialdiko foru-harrerako zerbitzua (15 plaza), epe ertain eta luzeko foru-zentroak (26 plaza) eta lehen-mailako arretako harrera-pisuak (99 plaza). Gipuzkoako kasuan, Behagiren datuen arabera, 20 plazetara iristen da foru-baliabideetako plazak. Gizarte-Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Inkestako Erakunde eta Zentroen atalean 2015 urtean jasotako plazak kenduz gero, 21 plaza geratuko lirateke. Do-

58. Taula. Genero-indarkeriaren emakume biktimentzako ostatu-zerbitzuek artatutako emakumeen zenbatekoa eta estaldura (18 eta 64 urte bitarteko 100 emakumeren arabera), Lurralde Historikoaren arabera. EAE 2015

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Plaza-kopurua	69	140	41	250
Estaldura (18 eta 64 urte bitarteko 100 emakumeren arabera)	0,068	0,039	0,019	0,037

Iturria: Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistika. Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza; INE. Udal-errolda Jarraituko Estatistika.

3.7.3. Genero-indarkeriaren emakume biktimen arreta-arloan Mapak zehaztutako helburuen betekizun-maila

Gizarte-Zerbitzuetako Maparen jarraipena egiteko adierazle-taulak soilik adierazle bat hartzen du kontuan, okupazio-tasari dagokiona, etxeko indarkeriaren emakume biktimak berariaz hartzen dituena. Gipuzkoako Foru Aldundiak eskainitako informazioaren arabera, zentro horietako okupazio-indizeak erlatiboki garrantzitsuak izandako bariazioak izan ditu azken urteotan zehar, 2014 urtean %25 izatetik, 2017 urteko %87,5era.

59. Taula. Genero-indarkeriaren emakume biktimentzako egoitza-zentroetarako Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak aurreikusitako adierazleen betekizun-maila. 2013/2017

Helburu operatiboak eta adierazleak	2013	2014	2015	2016	2017	Helburua	Betekizuna 2017
2.3. Eskatu gabeko zerbitzuen eskaintza murriztea *(adierazlea: landunen ehunekoa)*	37,5	25,0	87,5	50,0	87,5	92,0*	✗ -4,5

Helburu honetarako aintzat hartutako zentro guztietarako xedea da.
Oharra: taula honetako datuak epe ertaineko egonaldietako erreferentziei buruzkoak dira.
Iturria: 2015-2017. Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehaztutako adierazleen ebaluazioa. Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

3.7.4. Genero-indarkeriaren emakume biktimentzako lehen-mailako arreta-zerbitzuen Lurralde-hedakuntza

EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak Gipuzkoako genero-indarkeriaren emakume biktimentzako harrera-etxebizitzetako estaldura[48] 0,03 plazetan zehazten du 18 eta 64 urte bitarteko 100 emakumeko. Horretaz gain, baliabide hauetarako eremua izatea xedatzen du Mapak.

2018 urterako eskuragarri dagoen informazioaren arabera, Gipuzkoa osoko egungo estaldurak gainditu egiten du 2017 urtean proposatutako estaldura. Hala ere, Lurraldean askotariko egoerak gertatzen dira. 13 azpieskualdetatik 10rrek, zailtasunik gabe, gainditzen dute proposatutako estaldura. Aldiz, haietako bitan ez dute plazarik (Iraurgi eta Urola garaia), eta Bidasoaldeako kasuan, 2017 urterako zehaztua baino estaldura apalagoa dute.

---

nostiako Udalak genero-indarkeriaren emakume biktimak artatzeko 22 udal-plaza dituela aintzat hartuta, eta udalerri horretaz gain beste udalerri batzuetan (adibidez, Eibarren, Errenterian edo Irunen) emakume biktimak artatzeko pisuak dituztela jakinda, baliabide honen inguruko egoitza-eskaintzari buruz Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Inkestako datuak oker daudela nabarmen daiteke.

[48] Zorroko Dekretuak xedatzen duen bezala, zerbitzu hori modalitate bat da –Etxeko indarkeriaren emakume biktimentzako harrera-pisua–, 1.9.1 Ostatu-zerbitzuak/Harrera-pisua modalitatearekin batera gizarte-larrialdiko egoerak artatu ahal izateko.

28. Grafikoa. Genero-indarkeriaren emakume biktimentzako harrera-pisuetako estaldura (18-64 urte bitarteko 100 emakumeren araberako plazak), azpieskualdeen arabera. Gipuzkoa 2018



Iturriak: Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia; INE. Udal-errolda Jarraituko Estatistika (2017).

3.7.5. Genero-indarkeriaren emakume biktimentzako bigarren-mailako arreta-zerbitzuen lurralde-hedakuntza

Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehazten duen bezala, tratu txarrak pairatutako emakume biktimentzako egoitza-zentroen artean, ondoko bi zerbitzuak agertzen dira: berehalako harrera-zerbitzua, epe motzeko egonaldi eta egonaldi ertaineko harrera-zentroak. Lehen kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak 12 plaza ditu, eta bigarrenari dagokionean, 8 plaza ditu[49].

Hala ere, kasu honetako egoitza-zerbitzuen estaldura-datuek, beste zentroekin egindakoaz gain, premiako dute analisi desberdin bat egitea. Lehenik eta behin, zentro horietako itxarote-zerrenda ia-ia hutsa baita[50], eta bigarrenik, Lurralde Historikoa delako zerbitzu honen eremua; beraz, ez du zentzurik eskualdeetako estaldura aztertzeak. 2017 urterako dagoen plaza-kopurua ezagututa, 2017 urterako estalduraren emaitza (0,009) Mapak 2017 urterako proposatutako estaldura baino pixka bat apalagoa da (0,010).

[49] EAEko 2016-2019ko Gizarte-Zerbitzuetako Maparen arabera, Gipuzkoako emakumeentzako egoitza-zentroetarako (2.4.6) 0,01 plazako estaldura-helburua zehazten du 18 eta 64 urte bitarteko 100 emakumeren arabera. Zorroko Dekretuak geroago zentro horien arteko bi modalitate bereiztu arren –berehalako harrera-zerbitzuak eta epe ertaineko egonaldietarako harrera-zentroak–, EAEko Mapak ez du modalitate horietarako berariazko estalduraik kontuan hartzen.

[50] Epe ertaineko egonaldietarako zentroetako itxarote-zerrendak aztertutako 48 hilabetetatik soilik 11etan jaso dira, eta aipatutako 11 hilabete horietan gehienez, 4 pertsona.

29. Grafikoa. Emakumeentzako egoitza-zentroetako estaldura (foru-plazak 18 eta 64 urte bitarteko 100 biztanleko). Gipuzkoa 2017



Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia – Behagi.

3.8. Ondorioak

Hurrengo orrialdeetan ondorio nagusiak biltzen dira, hurrengo Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Maparen lanketarako kontuan hartzeko.

Mendekotasun-egoeran dauden adineko pertsonentzako zentroei eta zerbitzuei dagokienez:

- 2015 urtean, Gizarte-Zerbitzuetako sare gipuzkoarrak arreta zuzeneko zerbitzuen bitartez, adineko biztanleria osotik mendekotasun-egoeran zegoen %7,5ari arreta eskaintzen zien; eta Araban %9,5 eta Bizkaian %6,1. Datu horietaz gain, mendekotasuneko prestazio ekonomikoa duten jasotzaileak batuz gero (65 urtetik azpikoak kontuan hartuta), erabiltzaileen guztizko zenbatekoa adineko biztanleriaren %16,6aren baliokidea da; Arabako %16,9 eta Bizkaiko %11,5aren aldean.
- Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak adineko pertsonentzat edo/eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzat zehaztutako kudeaketa-helburuei dagokienez, erabat konplitu dira proposatutako adierazle askotan.
    - Bilakaera baikorra izandako adierazleei dagokienez, 2017 urterako zehaztutako helburuak bete dituzte: itxarote-zerrenden murrizketek eta eguneko zentroetan sartzeko batezbesteko denborak, mendekotasun-egoeran dagoen biztanleriaren estaldura-hazkundeak, mendekotasun-prestazio ekonomiko guztien aldean laguntza pertsonalerako prestazio ekonomien hazkundeak. okupazio-tasen hobekuntza eta adineko pertsonak etxebizitza propioan bizitzea ahalbidetzeak.
    - Bestetik, ez da lortu egoitza-zentroetako itxarote-zerrendak murrizterik, izan ere, egiazko itxarote-zerrenda eta itxarote-zerrenda teknikoa 2013 eta 2016 urteen bitartean 98 pertsona izatetik 377 pertsona izatera pasa baitira; hasieran ezarritako 74 pertsonen helburutik urruti. Aldeak horren nabarmenak ez izan arren, mendekotasuna duten pertsonen guztizkotik 3 eta 2ko mendekotasun-gradua duten pertsonen ehuneko hazkundearen adierazlea eskasagoa izan da, baita premia gabeko artatutako eskariari dagokiona ere.
- Lehen-mailako zentroetako lurralde-hedakuntzari dagokionez, ondorengo alderdiak nabarmen daitezke:
    - EELZari dagokionez (1.2), 65 urte eta gehiagoko 100 biztanleko eskainitako ordukopurua 734,8 ordukoa da, EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapan zehaztua baino baxuagoa (910,3). 13 eremutik soilik 3k lortu dute edo oso gertu daude adierazle horrek zehaztua konplitzea (Urola Garaia, Donostialdea eta Tolosaldea).
    - Bestetik, progresiboa izan arren oso eskasa den eguneko arreta-zerbitzuen ezarpena (1.7). 2018 urtean, Gizarte-Zerbitzuetako hamahiru eremutik soilik bostek dituzte horrelako baliabideak eta lortzen dute proposatutako estaldura, baina bestelako zortzi eremuetan ez dute horrelakorik lortzen.
    - Adineko pertsonentzako ostatu-zerbitzuek (1.9.3 eta 1.9.2) –etxebizitza komunitarioak eta tutoretzapeko apartamentuak– jasotako guztizko estaldura 0,407 plazakoa da 65 eta urte gehiagoko 100 biztanleko; euskal Mapak ezarritako adierazlea baino apalagoa (0,538). Hiru eskualdetan –Urola Kosta, Tolosaldea, eta Donostialdea– lortu edo hurbildu egin dira erreferentzia gisara jarritakora, baina haietatik seitan, 2018 urterako estaldura-maila 0,3 plazakoa baino apalagoa da 100 adineko pertsonen arabera.

- Azkenik, adineko pertsonentzako bigarren-mailako arreta-zentroei dagokienez:
  - Bigarren-mailako egoitza-zentroetara sartzeko itxarote-zerrendak 2013 urtetik %23 hazi dira, egungo plazetatik %18,7. Debabarrenan eta Tolosaldean gertatu dira hazkunderik nabarmenenak, nahiz eta itxarote-zerrendan dauden pertsona gehienak, eta eskuragarri dauden plazen eta 2017 urtearen bukaeran itxarote-zerrendan dauden pertsonen arteko alderik handiena Donostialdean eta Bidasoaldean jaso.
  - Lurralde osoaren mailan, 2017 urteko egoitza-zentroei dagokien estaldura (2.4.1) 2,967koa da, hau da, ia-ia erreferentziazko estaldura lortzen da (3,006). Sei eremuk lortu edo gainditu egin dute, eta defizit nagusiak Buruntzaldean, Deba Kostan eta Oarsoaldean biltzen dira.
  - Eguneko zentroetako egoera tankerakoa da (2.2.1), izan ere, Lurralde osorako ezarritako erreferentziazko adierazlea, ia-ia, egungo plazen hornidurekin bat baitator (0,991), eta eremu gehienetan erreferentzia gisara ezarritako estaldura gainditzen da (1,006). Defizit nabarmenenak Deba Erdian eta Bidasoan pilatzen dira.

- Plaza eta zerbitzu horiek guztiek biztanleria gipuzkoar helduaren %0,66aren baliokide dira: estaldura bizkaitarraren tankerakoa da (%0,61), baina arabarra baino baxuagoa (%0,78). Horretaz gain, mendekotasun-egoeran dauden 65 urtez azpiko 3.700 pertsonen kasuak ere kontuan hartu behar dira.
- Gizarte-Zerbitzuetako Mapak ezarritako helburuen betekizun-mailari dagokionean, adineko pertsonen kasuan bezala, ez da lortu itxarote-zerrendei buruzko helburuak betetzea (nahasmendu mentala duten biztanleentzako egoitza-baliabideen kasuan salbu), baina, bestalde, ez da nabarmentzen artatu gabeko eskariaren goranzko joera argirik. Aitzitik, eskaririk gabeko zerbitzuen eskaintza murriztea lortu da, baita urteko 365 egunetara egoitza-baliabideetako arreta areagotzea ere.
- Desgaitasunak eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako bigarren-mailako arreta-zentroen estaldurari eta lurralde-hedakuntzari dagokionean, hauxe nabarmen daiteke:
  - Ezin da esan bi kolektibo horietara bideratutako egoitza-zentroetako eta eguneko arreta zentroetako itxarote-zerrendetan hazkunde handirik gertatu denik. Izan ere, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroen kasuko itxarote-zerrenda 2013 eta 2017 urteen bitartean murriztu egin baita, eta haien kopurua eskuragarri dauden plazen %12aren baliokidea baita. Halaber, itxarote-zerrendak murriztu egin dira gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroetan, baina kasu honetako itxarote-zerrendan dauden pertsonen ehunekoak nabarmen gainditzen du eskuragarri dauden plazen ehunekoa (%245). Horietaz gain, bai desgaitasuna duten pertsonentzako bai gaixotasun mentala duten pertsonentzat bideratutako eguneko zentroetako itxarote-zerrendetan murrizketak gertatu dira. Bi kasuetan, 2017 urtean itxarote-zerrendan zeuden pertsonak eskuragarri zeuden plaza guztien %7 izan ziren.
  - Zentro desberdinetako estaldurarekin erlazioa duten adierazleen betekizun-mailari dagokionez, gaixotasun mentala duten pertsonentzako Lurralde osorako estaldurak lortzen direla nabarmendu behar da. Ez da hori gertatzen desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroetan, ez eta egoitza-zentroetan –dela desgaitasuna duten pertsonentzat, dela gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzat–, baina estaldura horiek helburutzat finkatutakoetatik oso gertu daude gaur egun. Halaber, bai desgaitasunak dituzten pertsonak bai gaixotasun mentalak dituztenen pertsonentzako egoitza-zentroen esparruan, sostengudun etxebizitzen modalitateari dagokion Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako mapak zehaztutako estaldurak gainditu egiten dituzte gaur egungo estaldura-mailek.

- Zentro horien lurralde-hedakuntzari dagokionez:
  - Eguneko arreta-zentroen kasuan (2.2.1), sektore-mailan definituak direnak, erreferentziazko estaldurak lortzen dira –desgaitasuna duten pertsonen kasuan eta ia-ia gaixotasun mentalak dituzten pertsonen kasuan–, eta Mendebaldeko Sektorean azpitik geratzen dira, baina desgaitasuna duten pertsonen kasuan bakarrik.
  - Zentro okupazionalei (2.2.2) dagokien 2017 urteko estaldura 0262koa da, eta urte horretarako Mapak zehaztutakotik pixka bat beherago kokatzen da (0,285).
  - Desgaitasuna duten pertsonentzako sostengudun etxebizitzen erreferentziazko estaldura (0,020) nabarmen gainditzen da lurralde osoan (0,095), eta Gizarte-Zerbitzuetako bederatzi eskualdetatik zortzitan.
  - Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroen modalitateari dagokion estaldura (0,187) ez da lortzen Ekialdeko sektorean (0,120), ez eta Mendebaldeko sektorean ere (0,058).
  - Gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako zentroei dagokienez, eta zehazki sostengudun etxebizitzei dagokienean, gomendatutako estaldura (0,014) Lurralde osoan betetzen da eta Gizarte-Zerbitzuetako bederatzi eskualdetatik bostetan.
  - Gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroen modalitaterako proposatutako estaldura (0,050), berriz, Gipuzkoa osorako egungo estaldura baino apalagoa da (0,028), eta ez dute bi sektoreek gainditzen.

Babesgabetasunerako egoeran edo arriskuan dauden adingabekoentzako zentroei eta zerbitzuei dagokienez:

- Gizarte-Zerbitzuetako Estatistikako datuen arabera, Gipuzkoak 2015 urtean babesgabetasun-egoerako adingabekoentzako 351 egoitza-plaza zituen, hau da, 0,282 plazako estaldura 100 adingabeko; Arabako eta Bizkaiko estaldurak baino apalagoak. Gainera, 2015eko abenduaren 31n egoitza-harreran hartutako 277 adingabeko eta familia-harreran hartutako 377 adingabeko zeuden, beraz, Gipuzkoako familia-harrera tasa beste bi lurraldeen aldean altuagoa da, eta egoitza-harrera, aldiz, murritzagoa da. Horren ondorioz, harrera guztietatik ia %58 harrera-familietan egiten dira; Araban %40 eta Bizkaian %37.
- Biztanleria horrentzako Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak ezarritako helburuen betekizun-maila dagokionez, okupazio-tasei buruzko helburua lortu eta gainditu egin da (2017 urtean gutxieneko %92ko helburua baino altuagoa); baita 0 eta 7 urte bitarteko adingabeko autoktonoen %81 familia-harreran hartzearen helburua ere; eta adin horiek baino zaharragoak diren adingabekoen %50eko helburua bete egin da. Bestetik, familiei bideratutako arreta psikosozialeko eta gizarte-hezitzaileko zerbitzuak sendotzeko helburua gainditu egin da, artatutako 1.500 adingabekoen zenbatekoa nabarmen gaindituta. Aitzitik, ez da konplitu familia-harrera profesionalizatuaren zerbitzua sendotzeko helburua.
- Lehen-mailako arretaren arloan, babesgabetasun-arriskuan dauden adingabekoentzako gizarte-hezkuntzako zerbitzuaren (1.3) estaldurari buruzko datuak udalerri-mailan eskaintzen dira, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak eginiko inkesta batean dute jatorria. Udaletxeetako inkesta horretako datuen arabera, galdetutako 43 udalerrietan programa horren bitartez 18 urtez azpiko adingabekoen %1,3 artatzen da, Euskadiko Maparen erreferentziazko adierazlearen gainetik, zeina 100 adingabekotik 0,696koa izan zen. 43 udalerrietatik hamabostek ez dute lortzen, edonola ere, erreferentziazko adierazle horren maila.

- Bigarren-mailako arretari dagokionez, babesgabetasun-egoeran dauden adingabekoentzako egoitza-zentroen (2.4.4) estaldura (0,240) lurralde osorako erreferentziako estalduraren azpitik kokatzen da (0,256). Erreferentziazko estaldura hori soilik bi eskualdek gainditzen dute (Donostialdea eta Debabarrena). Beste zazpi eskualdetan, Tolosaldea (0,084) eta Debagoiena (0,240) bitartean kokatzen da egungo estaldura.

Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden biztanleentzako zentroei eta zerbitzuei dagokienez, hauexek dira daturik nabarmenenak:

- Gizarte-Zerbitzuetako Inkestaren arabera –bai zentro publikoak edo hitzartuak bai erabat pribatu direnak jasotzen ditu–, Gipuzkoan 1.180 ostatu-plaza daude gizarte-bazterketarako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako –horietatik 195 plaza gaueko harrera-zentroak dira– eta beste 223 plaza biztanle horientzako eguneko zentroetan. Egoitzen estaldura EAEko beste bi lurraldeen aldean altuagoa da, baina eguneko arretarako estaldura apalagoa.

- Gizarte-Zerbitzuetako Mapak gizarte-bazterketa pairatzen duten pertsonentzako zerbitzuetarako ezarritako helburuen betekizun-mailari dagokionez, itxarote-zerrendaren helburua bete egin da eguneko zentroen kasuan. Eskari gabeko zerbitzuei buruzko eskaintzaren murrizketari dagokionez, egoera kronifikatuan bizi diren pertsonentzako egoitza-zentroetako okupazio-tasaren hazkuntza lortu da, helburu gisara ezarritako okupazioa baino altuagoa lortuta (%92). Aldiz, ez da lortu tasa hori gizarteratzeko eguneko zentroetan eta gizarteratzeko egoitza-zentroetan.
- Arlo honetako lehen-mailako arreta-zerbitzuen oinarrizko ezaugarriak hauek dira:
    - Gipuzkoako Foru Aldundiak bildutako informazioaren arabera, 2018 urtean udalerri gipuzkoarrek 167 plaza dituzte eguneko arreta-zerbitzuetan (1.7), 0,038ko estalduraren baliokidea dena, Euskadiko Mapak helburu gisara ezarritakoa baino apalagoa (0,047). 2018 urtean, bederatzi eskualdetatik soilik hiruk gainditzen dute estaldura hori (Bidasoa, Oarsoaldea eta Donostialdea). Gainerako eskualdeek ez dute 2018 urtean horrelako zerbitzurik.
    - Gaueko harrera-zerbitzuei dagokienez (1.8), Gipuzkoak 116 plaza ditu 2018 urtean, hau da, 0,020 plazako estaldura baliokidea 18 eta urte gehiagoko 100 biztanleko. Euskadiko Maparen erreferentziazko adierazlea (0,031) ez da lortzen lurralde osoari dagokionean. Eskualdeen arabera, estaldura hori Donostialdean eta Oarsoaldean lortzen da soilik.
    - Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako ostatu-zerbitzuen estaldurari dagokionean (1.9.2), eskuragarri dagoen informazioaren arabera, 51 plaza aurki daitezke Lurralde osoan. Kasu honetan ere, egungo estaldurak (0,012) ez du Euskadiko Mapak erreferentzia gisa ezarritako estaldura betetzen (0,020). Lurralde-hedakuntzari dagokionez, Tolosaldeak eta Urola Kostak gainditzen dute soilik proposatutako helburua.
    - Azkenik, gizarte-larrialdietako harrera-etxebizitzen (1.9.1.1) egungo estaldurak 2017ko Mapak proposatutakoa gainditzen du (proposatutako 0,046aren aldean, 0,063koa dena), eta soilik hiru eskualde geratzen dira maila horren azpitik (Bergaraldea, Urola Garaia eta Oarsoaldea).
- Bigarren-mailako arreta-zerbitzuei dagokienean:
    - Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroei dagokienez, 2017 urte bukaerako itxarote-zerrenda eskuragarri dauden plazen %27aren baliokidea da. Eguneko zentroetako proportzio hori, aldiz, %9,5ekoa da.

- Lurralde osoa kontuan hartuz gero, 2017an eskuragarri zeuden plazek ez dute lortzen eguneko zentroetako, gaueko harrerako edo egoitzetako erreferentziazko adierazleen maila, baina aldeak murritzak dira orokorrean.
- Lurralde-ikuspegitik, eguneko arreta-zerbitzuei (2.2.3) buruzko gabezia nagusiak Mendebaldeko sektorean kokatzen dira (0,017ko estaldura dute, eta helburua 0,044koa izan zen). Hori bera gertatzen da bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden egoitza-zerbitzuetan (2.4.5), eta Mendebaldeko sektoreko estaldura (0,022) Mapak zehaztutakotik oso urruti geratzen da (0,120).

Azkenik, **genero-indarkeriaren emakume biktimentzako** zerbitzuei eta zentroei dagokienez:

- Gizarte-Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistikaren arabera, 2015 urtean Gipuzkoan guztizko 41 egoitza-plaza zeuden genero-indarkeriaren emakume biktimei berariaz bideratuak. Zifra horren baitan, egoitza-zentroetako bigarren-mailako arreta-plazak eta indarkeria matxistaren emakume biktimentzako lehen-mailako harrera-etxebizitzak leudeke. Ikuspegi konparatuari kontu hartuz, datu horien arabera, Gipuzkoak genero-indarkeriaren emakume biktimei bideratutako egoitza-plazen estaldurarik apalena du.
- Genero-indarkeriaren emakume biktimentzako lehen-mailako harrera-pisuei dagokienez (1.9.1.1), Gipuzkoa osoko egungo estaldurak (0,039) Mapak proposatutako estaldura gainditzen du (0,030), baina oraindik ere, ez dago plazarik bi eremuetan (Iraurgi eta Urola Garaia).
- 2017 urteko bigarren-mailako egoitza-plazei dagokienez (2.4.6), urte horretarako estaldura (0,009) Mapak proposatutakoa baino pixka bat apalagoa da (0,010).

Gizarte-Zerbitzuetako Mapak 2017 urterako ezarritako estalduren araberako egungo egoera laburbiltzen du hurrengo taulak.

60. Taula. Gizarte-Zerbitzuetako egungo hedakuntzari buruzko laburpen-taula. Gipuzkoa 2017/18

	2017ko Mapako Helburuak		Egungo egoera	Saldoa[3]		Plazen araberako itxarote zerrenden %[4]
	Estalduraren araberako plazak[1]	Balioen araberako plazak[2]	Plazak	Estalduraren araberako plazak[1]	Balioen araberako plazak[2]	
MENDEKOTASUN EGOERAN EDO ARRISKUAN DAUDEN ADINEKO PERTSONAK						
1.2. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua (ordu baimenduak)	1.415.135	1.399.518	1.107.725	-307.410	-291.793	--
1.7 Adineko pertsonentzako eguneko arreta-zentroa	112	111	182	+70	+71	--
1.9.3 eta 1.9.4 Ostatu-zerbitzuak: adinekoak (plazak)	836	827	633	-203	-194	--
2.2.1 Premia handienak eta mendekotasuna artatzeko eguneko zerbitzua edo zentroa (plazen %)	1.564	1.547	1.540	-24	-7	8,6
2.3.1 Autonomia-mugetarako gaueko zentroa (plazak)	16	15	0	-16	-15	--
2.4.1 Adineko pertsonentzako egoi-zentroak (plazen %)	4.673	4.622	4.612	-61	-10	18,7
DESGAITASUN ETA GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONAK						
2.2.1 Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak	745	672	680	-65	+8	6,2
2.2.1 Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko gizarte-zerbitzuetako zentroa (plazak)	232	210	234	+2	+24	6,8%
2.2.2 Zerbitzu edo zentro okupazionala (plazak)	1.249	1.130	1.150	-99	+20	--
2.4.2 Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak (plazak)	907	821	834	-73	+13	12,0%
2.4.3 Gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroak (plazak)	280	254	229	-51	-25	24,9%
2.7.4 Arreta goiztiarreko gizarte-eskuartzeko zerbitzua (artatutako 0-6 urte bitarteko haurrak)	815	770	420	-395	-350	--
BABESGABETASUN EGOERA ARRISKUAN EDO LARRIAN DAUDEN ADINGABEKOAK						
1.3 Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko eskuhartze-zerbitzua (artatutako adingabekoak)	875	816	--	+754	+812	--
2.4.4 Babesgabetasun-egoeran dauden adingabekoentzako egoitza-zentroak (plazak)	322	300	301	-21	+1	--
2.7.3.1 Familien esku-hartze gizarte-hezitzaileko eta/edo psikosozialeko zerbitzua (artatutako pertsonak)	1.543	1.441	1.790	+247	+349	--
2.7.6.1 Familia-harreraren aldeko sustapen-zerbitzua eta sostengu teknikoa (harreran hartutako adingabeak)	439	410	350	-89	-60	--
GIZARTE BAZTERKETA EGOERAN EDO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONAK						
1.7 Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua: eguneko zentroak (plazak)	206	188	167	-39	-21	--
1.8 Gaueko harrera-zerbitzuak	184	171	116	-68	-55	--
1.9.1.1 Larrialdi sozialeko egoeretarako harrera-pisua	202	181	277	+75	+96	--
1.9.2 Gizarte-bazterketan dauden pertsonentzako tutoretza-peko etxebizitzak	88	80	51	-37	-29	--
2.2.3 Gizarteratzeko premiak artatzeko eguneko zerbitzua edo zentroa	193	174	168	-25	-6	9,5%
2.3.2 Gizarteratzeko premietarako gaueko harrera-zentroa	18	15	8	-10	-7	--
2.4.5 Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak	526	476	457	-69	-19	26,5%
GENERO INDARKERIAREN EMAKUME BIKTIMENTZAKO ZERBITZUAK						
1.9.1.2 Genero-indarkeriarentzako harrera-pisua	65	70	84	19	14	--
2.4.6 Etxeko indarkeriaren emakume biktimentzako egoitza-zentroak	22	25	20	-2	-5	--
BESTELAKO ZERBITZUAK, PROGRAMAK ETA PRESTAZIO EKONOMIKOAK						
2.5 Adineko pertsonentzako atseden-zerbitzuak (plazak)	31	30	16	-15	-14	--
2.5 Desgaitasuna duten pertsonentzako atseden-zerbitzuak (plazak)	22	18	8	-14	-10	--
2.6 Gizarte-larrialdietako koordinazio-zerbitzua (erabiltzaileak)	902	833	412	-490	-421	--
3.1.1 Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE) (titularrak)	3.025	2.803	5.481	+2.456	+2.678	--
3.2.1 Familia Inguruko Zaintzarako Prestazio Ekonomikoa (FIZPE) (titularrak)	12.062	11.929	11.011	-1.051	-918	--
3.3 Autonomia pertsonala errazteko laguntzak (laguntza teknikoak) (pertsona onuradunak)	1.587	1.570	2.905	+1.318	+1.335	--

(1) EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak Gipuzkoako egungo biztanleriarako zehaztutako estaldurak ezartzearen emaitza da. (2) EAEko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak Gipuzkoarako 2017 urtean aurreikusitako plaza-kopurua da. Aurreko neurriarekin duen aldea kasu honetan, Maparen lanketa garaian aurreikusitako biztanleriaren arabera Mapak zehaztutako plaza-kopuruaren araberako estaldurak ezartzearen emaitza da. (3) Ezarritako irizpidearen araberako egungo saldoa adierazten du. Balio positiboek gainditutako estaldura adierazten dute, eta balio negatiboek defizita. (4) Itxarote-zerrendaren garrantzi erlatiboaren ehunekoa adierazten du plaza-kopuruaren arabera.

4. GIZARTE-ZERBITZUEN BALIABIDE SAREAREN EGOKITZAPENA GIPUZKOAKO BIZTANLERIAREN PREMIETARA: AZTERKETA KUALITATIBOA

4.1. Aurretiko argibideak

Sarrerako atalean aipatu den bezala, azken atal honetako helburua Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako sareak dituen gabezia nagusiak edota hobegarriak diren alderdiak identifikatzea da Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapa 2018-2021 zehazten joateko. Hurrengo orrialdeetako analisiak ez du aintzat hartzen plazen hornikuntza, ez eta baliabideen lurralde-hedakuntza ere –aurreko ataletan bildu diren alderdiak–, gehienbat, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako sarearen funtzionamenduan eragina duten osagaiak lehenesten dira, hurrengo Gizarte-Zerbitzuetako Mapa egitean kontuan hartzeko modukoak direnak. Zehatzago esanda, atal honen xedea Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako sare publikoaren hobekuntzarako helburuak zehazten laguntzea da, 2015-2017ko Mapak[51] hobekuntza-helburu gisara ezarritakoen ildo beretik.

Zentzu horretan, hurrengo orrialdeetan egiten den analisiaren helburua Aginte Koadroaren lanketari laguntzea da, dagozkien helburu orokorrekin, helburu operatiboekin eta adierazleekin, eta haien bitartez Gizarte-Zerbitzuetako Maparen jarraipena eta ebaluazioa bermatzea; zerbitzu edo prestazio bakoitzaren helburuen betekizun-mailaz eta estaldura-gomendioez edo lurralde-hedakuntzaz harago. Horren ondorioz, analisi hau Aginte Koadro operatibo bati lotu beharrak baldintzatzen du ez hartzea arreta-sarearen funtzionamenduan eragina duten beste alderdi batzuek, baina bai: a) Gipuzkoako tokiko administrazioek eta foru-administrazioak hartzeko modukoak direnak; b) helburu operatiboetan edo kudeaketa-adierazleetan bihur daitezkeenak; eta c) gutxienez zeharka lotzen dira indarrean dagoen Gizarte-Zerbitzuetako Legearen esparruan administrazio gipuzkoarrek duten zerbitzu- eta prestazio-eskaintzarekin.

Kontuan hartu izandako irizpide orokorrei dagokienez, funtsean, aurreko Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapa lantzeko erabilitako berberak izan dira:

- Gaur egun emandako zerbitzuak hobetzea;
- Inguruko arreta eta izaera komunitarioa sustatzea zerbitzu batzuetan, eta bereziki, adineko pertsonen arretan eta haurren babeserako arloetan;
- Programa eta zerbitzuen bitartez berariazko premiak dituzten pertsonak eta kolektiboak artatzeko egungo eskaintza osatzea;

Aurreko irizpideei beste batzuk gehitu zaizkie, adibidez:

- Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako sare osoaren artikulazioa hobetzea;
- Kalitate eta intentsitatea nahikoa duten zerbitzuak bermatzea;

Egindako analisia ondoko bi zati handi hauetan egituratzen da:

- Alde batetik, auzi orokor batzuk biltzen dira, sistemaren osotasunari eragiten diotenak.

[51] Aurreko Mapak berariazko helburu eta neurri batzuk planteatzen zituen, baina ez plaza-estaldurari zuzenean lotutakoak, baizik eta bigarren-mailako zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen hobekuntzarekin eta efizientziarekin.

- Ondoren, gabeziak, premiak edota esku-hartzeko berariazko arlo bakoitzaren alderdi hobegarriak aztertzen dira (zahartzea eta mendekotasuna; desgaitasuna eta osasun mentala; babesgabetasuna; eta gizarte-bazterketa).

Azkenik, analisiak lehen-mailako arretarako zentroak eta zerbitzuak aintzat hartzen dituela nabarmendu behar da, baita bien arteko erlazioa ere.

4.2. Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako lehen- eta bigarren-mailako hobekuntza-arlo nagusien identifikazioa

4.2.1. Alderdi orokorrak

Sistema osoaren arabera nabarmen daitezkeen premia nagusiak ondokoak dira:

- Eusko Jaurlaritzak gaur egun erkidegoko erregulaziorik ez duten zentroen eta zerbitzuen edukia zehaztu bitartean, lehenetsi beharreko hobetzeko alderdi gisara har daitezke **Gizarte-Zerbitzuetako Zorroaren edukiak, baldintzak, funtzioak, eta zentro eta zerbitzu propioetako ekipamenduak eta ezaugarriak,** Zorroko Dekretuan definituta dauden osagaiez areago. Dagoeneko erregulazio nahikoa duten zenbait zentroetan eta zerbitzuetan eraginik ez izan arren –adibidez, adineko pertsonentzako edo babesgabetasun-egoeran dauden adingabekoentzako bigarren-mailako zentroak–, lehen-mailako zerbitzu eta zentro gehienei eragiten die, eta desgaitasuna duten pertsonen eta gizarteratzeko arloetako bigarren-mailako zentroei. Era koordinatu batean egin beharko litzateke zentro horien edukiaren definizioa –dela eskualde gipuzkoarretako garapenei dagokienean, dela EAEko hiru Lurraldeei dagokionean–, dagoeneko dauden alderdi gehigarri gehiago ez sortzeko asmoz.

- Bigarren osagaiak **tokiko zaintza-ekosistemak sortzeko** premiaren araberakoak dira, lurraldean eskainitako Gizarte-Zerbitzu guztiak tokiko eta eskualdeko mailan (lehen- eta bigarren-mailako arretakoak) hartuko dituztenak, eta sistemaren baitako koordinazio hobea errazteko eta zaintzen jarraitutasun handiagoa izateko. Tokiko ekosistema horiek bestelako babes sozialeko koordinazio-sistemekin egokiagoa den koordinazioa erraztu beharko lukete (Osasuna, Hezkuntza, Enplegua, etab.). Ekosistema horien aurrerabideak ez du zalantzan jartzen administrazio-maila desberdinen betekizuna, baina elkarrekin eginiko planifikaziorako esfortzua eskatuko dute, eta kasu batzuetan, zenbait zentroen eta zerbitzuen elkarren artean eginiko kokapena, kudeaketa eta kofinantzazioa.

- Esparru horren baitan, **aurreko Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetako Mapak zehaztutako eremuei eta eskualdeei dagozkien lehen-mailako arretako tokiko Gizarte-Zerbitzuetako Mapak gauzatu eta praktikara eramateko** premia plantea daiteke. Azken hilabeteetako eskualdeetako eta/edo eremuetako mapak garatzeko prozesuak zailtasunak azaldu ditu udal-ikuspegiko funtzionamendu- eta kudeaketa-egiturak oinarri hartuta udal-eremutik gorako Gizarte-Zerbitzuen eskaintza landu ahal izateko.

- Zerbitzuen edukiari dagokionez, **izaera prebentiboko programak eta zerbitzu anizkun konbinatuen prestazioak etxebizitza propioan** sustatzeko premia argia dago, **intentsitate-maila nahikoa izango dutenak,** instituzionalizaziorako alternatiba gertatzeko. Zerbitzu horiek sendotzeko premiak bi traba nagusi izaten ditu: batetik, Udal Gizarte-Zerbitzuek –udalerri gipuzkoar batzuetan– estaldura, kalitate eta intentsitate nahikoa duten eskaintza artikulatzeko dituzten zailtasunak, eta aurretik aipatutako udalen arteko koordinaziorako zailtasunak; eta bestetik, Gizarte-Zerbitzuetako Zorroak derrigorrez aintzat hartu gabeko biztanleria-talde batzuei orientatzea zerbitzu hauek, babesari baino sustapen- eta prebentzio-ikuspegi bati helduta.

- Ildo horretatik, **Gizarte-Zerbitzuetako Zorroak aintzat hartutako zerbitzuak izaera prebentibo bati begira sendotu beharko lirateke eta edukiak era horretan hornitu,** adibidez, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua, zaintzaileentzako laguntza-zerbitzua edo Gizarte-Zerbitzuetako lehen-arretan Gizarteratzea eta/edo autonomia errazteko zerbitzua; eta bigarren-arretako Autonomia babesteko zerbitzuak.

- Bestalde, aurretik sarritan aipatu den bezala, udalerri gipuzkoarren **antolakuntza-irizpideen, praktiken eta profil profesionalen homogeneizazio handiagoa lortu eta Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuetako langileen ratioak hobetzea** ezinbestekoa gertatzen da aurrera egiteko, esparru teoriko eta metodologiko komun bat oinarri hartuta.

- Bestalde, **erabiltzaileen partaidetza ekonomikoaren erregulazioa** aipatzeko modukoa da, bai lehen-arreta mailan bai bigarren-arretan, errenta- eta ondare-maila erlatiboki altua duten balizko erabiltzaileei koordainketarako disuasio-neurririk; bereziki, mendekotasunaren arloan prestazio ekonomikoen eta arreta pertsonaleko zerbitzu-eskaintza pribatuen konkurrentzia aintzat hartuta. Zentzu horretan, erabiltzaileak gehienaz ere zerbitzu gehigarriak eta/edo ostalaritza-zerbitzuak (ostatua, garraioa eta/edo janaria) ordainduko lituzkeen eredu bat progresiboki ezartzea litzateke egokiena, Gizarte-Zerbitzuetako Legearen esparruko kontingentzietarako arreta-zerbitzuen doakotasuna joera nagusi gisara ulertuta.

- Bestalde, desgaitasun- eta gizarteratze-arloetan, gehienbat, **hitzartutako zentro pribatuetako plaza bakoitzeko edo artatutako pertsona bakoitzeko ordainketa-irizpideen harmonizazio handiagoa lortu behar da.** Prozesu horretan zentro edo zerbitzu bakoitzaren berezkotasunak aztertu beharra izan arren, prestazio komunak egon daitezkeela hartu behar da kontuan, adibidez ostalaritzakoak; edota tarifetan gastuak aintzat hartzeko irizpide komunak ezartzeko premia.

- Alderdi horri dagokienez, bestalde, lehen- eta bigarren-mailako arretarentzako premia komun gisara, **erabiltzaileen bizi-kalitatean zerbitzuek izandako eragina neurtuko duten arretaren jarraipen- eta ebaluazio-sistemak** ezartzeko premia, erabiltzaileen kalitatea eta gogobetetzea neurtzeko sistemak orokor bihurtuta; egungo ikuskaritza-zerbitzuen osagarri.

- Ostatu-zerbitzuei dagokienez –lehen- nahiz bigarren-mailako arreta-zerbitzuetan, eta Gizarte-Zerbitzuetako Euskal Sistemak artatutako edonolako kontingentziari aurre egiteko–, **Etxebizitza Sistemarekin koordinazioa hobetzeko** premia nabarmendu behar da eta, zentzu horretan, etxebizitza-sistema Gizarte-Zerbitzuetako erabiltzaileen ostatu-premiez arduratu beharreko joera nagusitu beharko da; eta gizarte-zerbitzuek gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzeen ardura. Epe ertain eta luzean, Gizarte-Zerbitzuetako ostatu-zerbitzuen hornidura ostatu mota oso espezializatu baten premia egotean eskainiko litzateke soilik; arretaren intentsitate-mailak eta artatutako problematiken konplexutasunak derrigorrezko bihurtzen duenean.

4.2.2. Mendekotasuna eta zahartzea

Eskaera errealari aurre egin eta baliabideen lurralde-hedakuntza orekatua bermatzeko plaza- eta zerbitzu-eskaintza artikulatzeaz gain, adineko pertsonentzako eta/edo mendekotasun-egoeran daudenentzako zentro eta zerbitzuei buruzko premia nagusiak ondokoak dira:

- **Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako etxez etxeko laguntza-ereduaren hobekuntzan aurrera egitea,** eta etxeko zainketa-ekosisteman eragina duten osagai guztiei buruzko diagnostiko integrala egitea. Ildo horretatik, adineko biztanleak etxebizitza propioan bizitzea

sustatzen duen arreta pertsonan zentratutako arreta-ereduaren definizioa lortzeko Lurraldean ematen ari diren aurrerakuntzen helburuak betetzeak garrantzi handia du; baita eskuragarri dauden baliabide komunitarioak pertsona nagusien alde egiteko dinamizatzea ere, lehen- eta bigarren-mailen arteko mugak desagerrarazita. Ildo beretik, teknologia berrien erabilera-aukerei buruzko diagnostiko bat egin behar da, baita informazioaren kudeaketa integral bati buruzkoa ere, izan ere, etxez etxeko zaintza-eskaintza hobetzeko lagungarri izan baitaitezke.

- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako egungo arreta-eredua hobetzeko, aurretik esandakoaren ildo beretik, **izaera prebentiboa duten lehen-mailako arretarako zerbitzuak eta zentroak garatu behar dira,** baita zaintzaileei eskaintzen zaien arreta hobetzera bideratutakoak ere (atsedenerako zerbitzuak eta laguntza teknikoetarako hornikuntza barne).

- Hori guztia gertatzeko, **Gipuzkoako foru- eta udal-administrazioen arteko akordioen onarpenean eta ezarpenean aurrera egin behar da** finantzarioa eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren (EELZ) prestazioa gauzatzeko edota Kabia Organismo Autonomoari udal-titulartasuna duten egoitzak transferitzeko; dagoeneko hasia den eskumen- eta finantza-antolaketa progresiboki bukatzeko.

- Bestalde, **pertsonan zentratutako artaren paradigmara zerbitzuak egokitzen jarraitu behar da –beste batzuen artetik bereziki, egoitza- eta ostatu-zerbitzuak–,** eta zentro horietan eskainitako arreta bizi-kalitatearen optikatik diseinatu. *Gipuzkoako pertsona adinduentzako egoitza-zerbitzuen egoerari buruzko txostena*-ren arabera, nahikoa indibidualizatutako arreta-ereduen garapenean aurrera egin behar da, eta ingurugiro eta instalazio etxekoiagoen garapenean ere. Arreta-kalitatea hobetu beharra sare osoaren arazoa izan arren, nahasmendu psikiatrikoetan eta psikogeriatriakoetan oso nabarmena da, baita, oro har, problematika konplexuak dituzten pertsonentzako arreta-arloan.

- Ildo beretik, **arta-ereduaren berrikuste- eta eguneratze-prozesuan aurrera egin behar da,** adineko pertsonen profil eta premia berrietara egokituta; beste zentroetako medikalizaziorako joeraren ordez arlo psikosozialeko eta soziokulturaleko esku-hartzeak erabilita. Horretarako, tresnak garatu behar dira –protokoloak, jarduera egokietako katalogoak, adierazleen aginte-koadroak, ikuskaritza-sistemak, kalitate-estandarren garapena, prestakuntza-birziklapen-jarduerak, I+Gren sustapena, erreferentziazko zentroen garapena, etab.–, jarduera profesionala eta zentroetako kudeaketa zentzu berean kohesionatu eta orientatzeko.

- Mendekotasunaren arretarako prestazio ekonomikoen artikulazioari dagokionez, **24/2017 Foru Dekretua**, abenduaren 12koa, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta zainketa sustatzekoak, ezarritako prestazio ekonomikoak arautzen dituena ezarri beharra nabarmen daiteke, bereziki, hurrengo alderdietan:

    - profesionalak ez diren zaintzaileen jardueretarako prestakuntza bermatzea, Familia Ingurunean Zaintzeko Prestazio Ekonomikoen (FIZPE) esparruan;

    - etxeko zainketei buruzko jarraipen- eta sostengu-formulak garatzea, aldizka egingo direnak, intentsitate eta kalitate nahikoa dutela bermatzeko xedez; eta zaintzaileek haien rola baldintza egokietan egiten dutela eta inguruneak eta testuingurua ziurra dela ziurtatuta.

    - arreta pertsonaleko funtzioak betetzeko berariazko prestakuntza egiaztatzea.

    - zerbitzuari lotutako prestazioak eskuratzeko malgutasuna, itxarote-zerrendak murrizteko eta egoitza-zentroaren hautaketarako gaitasun handiagoa izateko.

- **Egungo egoitza-zentroen sarea Adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko dekretu-proiektuari xedatutakora egokitzea,** laster onartuko dena.

- Azkenik, **Gizarte-Zerbitzuetako lehen- eta bigarren-mailetako arreta-jarraitutasuna hobetzea** ezinbestekoa da oraindik ere, bi mailen arteko koordinazioa erraztuta, eta erabiltzaileen egoeren eta haien premien eboluzioak batetik besterako trantsizioa erraztuta.

4.2.3. Desgaitasuna eta gaixotasun mentala

Desgaitasunen eta gaixotasun mentalen arloetan planteatu beharreko premiak ondoko hauek dira:

- Alde batetik, **desgaitasunak eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako zerbitzu okupazionalen eta eguneko arreta-zerbitzuen egokitzeari buruz hausnarketa bat egin behar da,** eta malguak eta elkarren artean komunikatuak dauden zerbitzu-sare bat osatu plangintza indibidualaren eta erabiltzailearen parte-hartzearen bitartez, autonomia pertsonala eta erabateko gizarteratzea sustatzen duena.

- Bestetik, desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen dituzten erakundeen arabera, **desgaitasuna duten pertsonentzako bizimodu independenteko eta gurunean lagun egiteko programak sendotu eta berriz orientatu** beharra dago, erabateko gizarteratzea eta parte-hartze soziala errazteko xedez. Erakunde horien esanean, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-baliabideetako arreta-eredu berri bat diseinatu behar omen da, zeinean erabiltzaileen eskubideak eta desgaitasunaren eredu soziala materializatzea oinarri hartu behar baita.

- **Patologia mentalak eta portaera-nahasmenduak dituzten haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzu- eta programa-artikulazioan aurrera egin** beharra nabarmen daiteke, osasun mentaleko, Gizarte-Zerbitzuetako eta hezkuntza-zerbitzuetako arloak inplikatuko dituzten jarduera bateratuak garatuta.

- Azkenik, **desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza teknikoen egungo hornidura-ereduaren berriz orientatze eta sendotzea nabarmen daiteke,** indarrean dauden kudeaketa-ereduak berrikusita, eta gai horren inguruan eskumenak dituzten instituzioen arteko koordinazioa eta lankidetza areagotuta; eta desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatean eragina izango duen inplikazio ekonomiko handiagoagatik eta berrikuntza teknologikoan eginiko bultzadagatik autonomia pertsonala eta erabateko parte-hartze komunitarioa bermatuko duten sostengurako premiako produktuez gozatzeko erabateko eskubidea lortzea.

4.2.4. Babesgabetasun- edo arrisku-egoeran dauden edo kaltebera diren adingabekoak

Kalteberatasun sozioekonomikoko egoeran eta babesgabetasuneko egoeran edo arriskuan dauden haurren eta nerabeen arretari dagokionez, ondoko alderdi hauek nabarmen daitezke:

- Alde batetik, **lehen-mailako gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartze-zerbitzuen definizio komun berri bat** lortu behar da, izan ere, udalerrien arteko oso desberdintasun garrantzitsuak azaleratzen baitira balorazio-tresnen erabilerari dagokionean, detektatu eta baloratutako kasuen kopuruan, sostengu espezializatuaren eskuragarritasunean, Gipuzkoako Foru Aldundira bideratutako kasuetan, arreta-tasetan, kalteberatasun eta babesgabetasunera bideratutako programen eskuragarritasunean, esku-hartze-programen edukietan, etab.

- Ikuspegi horretatik aztertuta, instituzioen arteko estrategia bateratuan aurrera egin beharra dago –euskal administrazioek sinatutako Familien eta Haurren aldeko Euskal Itunak nabarmentzen duen bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere sinatutakoa–, **gizarte- eta hezkuntza-arloko zerbitzuak, kultur- eta kirol-ekipamenduak, eta autokudeaketa komunitarioko ekimenak** artikulatzeko orientatua dagoena, adibidez, denbora-bankuak, gizarte-ludotekak eta/edo eskola-sostengurako programak. Ildo horretatik, pareen arteko sostengu-programak, eta mentore eta aitabitxi izateko programak sustatzea bereziki interesgarriak dira, izan ere, eragile komunitarioen inplikazioa ahalbidetzen dute desabantaila sozioekonomikoko edo kaltebera-egoeran dauden haurrak eta nerabeak artatzeko. Aurretik aipatu izandako izaera prebentiboko programen aldeko apustua argiro lotzen da horrelako programa modalitateen sendotzearekin, baita europar instituzioek sustatutako gizarte-inbertsioaren paradigmarekin ere.

- Bestetik, euskal administrazioek hitzartutakoaren ildo beretik, familia- eta haurtzaro-politiken gobernantza-formula hobeagoak ezarri beharko lirateke **gizarte- eta hezkuntza-politiken arteko integrazio hobea lortzeko Gizarte-Zerbitzuen eta hezkuntza- eta osasun-zerbitzuen artean, lurralde- eta toki-mailan.**

- Horretarako, **lehen- nahiz bigarren-mailako arretan eskaintzen diren esku-hartze goiztiarreko zerbitzuak sendotu** beharko lirateke, ahal bezain lasterren familia-esku-hartze horiek hasteko xedez; ebidentzian oinarritutako “programa-zorro” osatu baten ezarpen-esparruan. Adituek aurkeztutako gomendioen arabera, oso adin goiztiarretako kasu gehiago antzeman behar dira; eta arrisku-faktoreak agertzen diren kasuetan, osasun-arloko profesionalekin erlazio egoki bat garatu behar da (familia-medikuntza, pediatria-arreta goiztiarra, obstetrizia eta ginekologia, etab.)

- Bigarren-mailako arretarako programa eta zerbitzuei dagokienez, **eguneko arreta-baliabide espezializatuak garatu beharra** aipa daiteke, **portaera-nahasmenduak edota bereziki konplexuak diren beste premia batzuk dituzten egoera kalteberan dauden adingabeen egoerak konpontzeko.** Maila orokor batean, gainera, egoera kalteberan dauden haurren profil konplexuagoei eta anitzagoei erantzuteko haurren zerbitzu-sarea egokitzeko premia ere nabarmendu behar da; baita Gipuzkoako Lurralde Historikora lagundu gabeko adingabeko immigranteen goranzko joera egoki artatzea ere.

- Azkenik, **harrera-familia profesionalizatuen zenbatekoa mantendu beharra dago, eta egoitza-harrera saihestu 6 urtez azpiko haur guztientzat, eta ahal den neurrian 8 urte azpiko kasu guztietan.** Adituen esanean, bestetik, egungo Psikologo Komunitarioen, Gipuzkoako Haurren eta Nerabeen babeseko Sistema eta Haur eta Nerabeen gaietarako Eskualdeko Taldeen (HNET) egitura mantendu behar da, eta kasu bakoitzeko arduradunek Kasuak Ebaluatzeko Sistema eta Kasuetako Planen Lanketa modu berriak erabili behar dituzte, gurasoen gaitasunak eraldatzeko laburrak eta eraginkorrak diren esku-hartzeen bitartez.

4.2.5. Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden biztanleak

Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako zerbitzuetako premia nagusiak ondoko hauek dira:

- **Elkar-EKIN Planaren ezarpenean aurrera egin behar da, eta zehatzago, Zorroko Dekretuak kontuan hartutako bigarren-mailako zentroetako eta zerbitzuetako edukiak berriz definitu behar dira,** Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte-bazterketaren arloan bizi-kalitatean, pertsonan zentratutako arretan eta autodeterminazioan oinarritutako esku-hartze-eredu bat garatu ahal izateko. Horretarako, ondoko hauek bete beharko dira:

- Gizarte-bazterketaren baloraziorako tresna baten garapenean eta ezarpenean aurrera egitea.
- Gizarte-Zerbitzuetako Zorroaren garapenean Gipuzkoako Foru Aldundiak artikula ditzakeen gizarteratzeko zerbitzu-katalogoan aintzat hartutako zentroetako sarbide-baldintzak, exijentzia-irizpideak, intentsitate-mailak, profil profesionalak, prestazio teknikoak, baldintza materialak eta langile-ratioak zehaztu behar dira.
- Gaur egun indarrean dauden Hirugarren Sektoreko erakundeek eskaintzen dituzten zerbitzuei buruzko hitzarmenak eta zerbitzu-prestaziorako kontratuak egokitu behar dira, zerbitzu-sarea arreta-eredu berrira orientatzeko xedez.
- Eguneko zerbitzu edo ostatu-zerbitzu gehienek zerbitzu txikiak izateagatik artatzerik ez duten talde anbulatorio ibiltari espezializatuak garatu izaera espezializatuko prestazioak eskaintzeko.
- Lagun egite espezializatuko programak garatu eta sendotzea, intentsitate-maila ertain eta altukoak, gaur egun Gizarte Politikako Departamentuak eskaintzen dituenak.
- Gizarte-bazterketa egoerak eta gizarteratzeko zerbitzu eta zentroetarako sarbideak gaur egun arautzen dituen arau-esparrua egokitzea, arreta-eredu berriaren eskakizunetara edukia egokituta.

- Bigarren-mailako arretarako zentro eta programa desberdinen edukiak eta prestazioak zeintzuk diren argitzeaz gain, aurretik aipatu den bezala, **lehen-mailako arretarako gizarteratzeko zerbitzuen eta zentroen planifikazioa bukatu behar da,** arreta-eredua arrazionalizatu eta sendotzea ahalbidetu dezaketen instituzioen arteko hitzarmenak alboratu gabe.

- Esparru horren baitan, aurretik azaldu den bezala, gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonei **lagun egiteko eta gizarte- eta hezkuntza-arloko zerbitzuak oinarrizko guneetan, eremuetan eta eskualdeetan sendotu behar dira,** eta bereziki gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko zerbitzua kontuan hartuta, gizarte-bazterketan nahiz bazterkeria-arriskuan dauden pertsonei orientatzen dena, eta Gizarte-Zerbitzuetako parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzuaren garrantzia ere nabarmenduta.